ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko otsailaren 22a > Astelehena > VI. urtea > 266. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net TOKIKOM



"Lan egin dezakegu erakundeak izan daitezen naturarekiko sentiberagoak"

**Leire Beteta**
Ingurumen teknikaria > 8

**G2a** **Aramaio, koadrila onena bertsotan** > 29

**ARRASATE**
**Merkemerkauko berrikuntzekin gustura erosle eta saltzaileak** > 11

**ANTZUOLA**
**Armarriaren gaineko hitzaldiak, herritarrak informatzeko** > 20

**UDA**
**Hirugarren mailako taldeak 1-2 irabazi du Santurtzin** > 23

**ATZEGI** > URREZKO EZTEIAK

# 50 urte adimen urritasuna dutenen bizi kalitatea hobetzen

**ZERBITZUAK** Hiriburuan dauden zerbitzu guztiak daude Debagoienean ere: tailerrak eta eguneko zentroa, besteak beste

**KOPURUA HANDITZEN** Gaur egun, Gipuzkoan, 2.000 familia inguru daude; horietatik 168 debagoiendarrak dira

**BI OSPAKIZUN** Txolarte Eguna Arrasaten egingo dute maiatzaren 8an; bailarako Atzegi Eguna, Oñatin > 03

**AZPIEGITURAK** > GARRAIOA

## Tranbiaren proiektua geratuta

Debagoieneko tranbiaren proiekturako ez dagoela dirurik esan du Iñaki Arriolak > 04




**29 ZIKLISTA** Bergarako eta Antzuolako txirrindulariekin osatutako lau taldek ordezkatuko dute Lokatza oraingo denboraldian. JOSETXO ARANTZABAL

## Lokatzak gertu ditu urteko ziklista taldeak eta egutegia

Bergarako ziklismo eskolak erronka polita du aurretik: hamaika proba antolatu ditu 2010erako, inoiz baino gehiago. Maiatzaren 2ko 3+5 zikloturisten martxa eta ekainaren 19ko emakumezkoen lasterketa dira berritasunak. Zapatuan aurkeztu zuen egutegia, erdigunean, herritarrengandik hurbil. Ekitaldi horretan aurkeztu zituen oraingo denboraldian ziklismo eskola ordezkatuko duten taldeak ere; lau izango dira: kimu, haur, kadete eta gazte mailakoak. > 21

**AURKIBIDEA**

**Asteko gaia** > 03
**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Eskelak** > 38
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**BASOA** > HARRAPAKETA

## Basurde ehiza Arantzazun

Oñatiko ehiztari talde batek tamaina handiko bederatzi pizti bota zituen zapatuan > 12



Asteburuan botatako bederatzi basurdeak, zintzilikatuta. AITOR BIKUÑA

Goiena kluba



Oreka TX ikuskizunerako sarrerak opari. Nahi?
Zoaz 7. orrialdera

Goiena kluba

Abantailaz betetako kluba!



**'SIMPLEMENTE' DOKUMENTALERAKO SARRERAK**
Otsailaren 26an Amaia antzokian izango den Jon Anduezaren *Simplemente* dokumentalerako sarrerak.

**ELHUYAR-EN JOKOAK**
Joko hauek opari gura badituzu, Interneten erosi; %5eko deskontua *www.elhuyar.org/edizioak* helbidean.

- **ZOO ZOROA (PANPINA ETA JOKOA)**
*www.elhuyar.org/zoozoroa*
- **ARMIX KART**
*www.elhuyar.org/armixkart*




# Bi opari berri. Nahi?

Goiena Klubeko bazkide baldin bazara, deitu **943 25 05 05** zenbakira eta

**LORTU SARIETAKO BAT DOAN***

*Deiak jasotzeko azken eguna: otsailaren 22a; zozketa eguna: otsailaren 23a.

**Egin zaitez bazkide!** | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com*** | **Kuota 45€**



**JENDARTEA** > ATZEGIREN URTEURRENA

# Mende erdia adimen urritasuna dutenen bizi kalitatea hobetzen

**SORRERA DONOSTIAN** 1960an Donostian sortu zuen gaixotasuna zutenen familia talde batek, eta apurka herrialde osora zabaltzen joan zen

**BERGARAKO ESKOLA** Debagoienean sartu zen Bergaran jarritako 16 urtetik beherakoendako eskola bereziarekin; gerora, tailerra iritsi zen herri horretara

**TXOLARTE EGUNA ARRASATEN** Aurten Txolarte Eguna Arrasaten egingo dute, maiatzaren 8an; Gipuzkoa osoko 20 aisialdi klubetako kideak bilduko dira



Adimen urritasuna dutenek askotariko irteerak egiten dituzte urtean zehar; hainbat gidari izaten dituzte bidelagun. ATZEGI

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Pozik egoteko arrazoiak dituzte aurten Atzegin, adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak urrezko ezteiak egingo ditu-eta urte amaieran; 50 urte, adimen urritasuna duten gipuzkoarren bizi kalitatea hobetzeko lanean.

Jokin Antxia aretxabaletarrak gogorarazi du adimen urritasuna zutenen senide talde batek 1960an Donostian sortutako erakundea dela: "Poliki-poliki herrialde guztian zabaltzen joan zen. Orduko Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak gizarte-ekintza egin zuen horren inguruan; hain justu, eskola bereziak sortu zituen adimen urritasuna zutenendako. Horietako bat Bergaran jarri zuten. Horrela izan zen Atzegiren lehenengo kontaktua Debagoienarekin". Eskola haietan hezkuntza berezia jasotzen zuten neska-mutikoek, 16 urte betetzen zituzten arte.

Lehenengo pausoa izan zen hura; baina, gerora, bestelakoak ere iritsi ziren. Antxiaren esanetan, "eskolan amaitu ondoren, etxera bueltatu behar zuten lagun horiek, eta, horri aurre egiteko, tailerrak sortzen hasi ziren". 1975ean, *Behar bakoitzari, erantzun bat* elkartearen leloari jarraituz, gerora *Gureak* izango zenak ikusi zuen argia, lanaren erantzunari aurre egin ahal izateko. Debagoienean, ostera ere, Bergaran jarri zuten lehen tailerra. Gerora, erresidentziak eta aisialdiarekin lotutako programak iritsi ziren.

**GIPUZKOAN, 2.000 BAT FAMILIA**

Hasieran, esan bezala, familia talde bat hasi bazen ere, poliki-poliki handitzen joan zen kopurua, eta gaur egun, Gipuzkoa mailan, 2.000 familia inguru daude. Horietatik, 168 debagoiendarrak dira.

Bestalde, hasierako urte haietatik gaur arte, adimen urritasuna duten lagunen bizi-kalitatea asko hobetu dela nabarmendu gura izan du Antxiak: "Asko aldatu da, hain justu ere, helburua hori delako. Lagun horiek gizartean integratzea lortzen ari dira; esaterako, gaur egun, irakasle bereziarekin baina eskola normaletan daude, kiroldegira joaten dira eta kalean normaltasunez ibiltzen dira".

Lehen, zerbitzu gehienak Donostian zentralizatuta bazeuden ere, egun, hiriburuan dauden zerbitzu guztiak aurki daitezke Debagoienean ere: tailerrak, eguneko zentroa, Bergarako Uliazpi Fundazioa, Aretxabaletako erresidentzia eta Arrasateko eta Bergarako Txolarteak daude, besteak beste. 50 urtean zerbitzu horiek guztiak bailaran izatea lortu bada ere, oraindik lan asko dagoela dio aretxabaletarrak: "Behar asko ase dira, baina aisialdi arloan eta bizimodu arruntean gehiago gizarteratu behar dira; ahalik eta gehien elkartu".

**TXOLARTE EGUNA ARRASATEN**

Antxiak, azkenik, aurreratu digu aurtengo Txolarte Eguna bailaran egingo dela. Txolarteak Atzegiren aisialdi klubak dira; Gipuzkoa guztian 20 inguru daude. Urtean behin Txolarte Eguna egiten dute eta aurten Arrasaten izango da, maiatzaren 8an. Aurreikusita dago jaialdi horretan klub horietako 500 bat kide batuko direla. Aretxabaletarrak gaineratu du, bestalde, urteurreneko ospakizunak urte amaieran egingo direla.

## Atzegi gaur egun, herriz herri

| HERRIA | FAMILIA KIDEAK | KOLABORATZAILEAK | ATZEGIZALEAK |
|---|---|---|---|
| Antzuola | 7 | 8 | 37 |
| Aretxabaleta | 14 | 17 | 143 |
| Arrasate | 58 | 80 | 115 |
| Bergara | 36 | 55 | 103 |
| Elgeta | 7 | 8 | 19 |
| Eskoriatza | 15 | 2 | 64 |
| Leintz Gatzaga | - | - | - |
| Oñati | 31 | 55 | 95 |
| **GUZTIRA** | **168** | **225** | **576** |

Iturria: Atzegi

BAILARAKO ATZEGI EGUNA

## Oñatin egingo dute urteroko ospakizuna

Debagoieneko Atzegiko familiek urteroko ospakizuna egingo dute: Atzegi Eguna, hain justu ere. Azken hamar urteotan bailarako herriren baten ospatzen duten eguna da, eta aurten Oñatin egingo dute. Oraindik guztiz zehazteke badago ere, jaialdia maiatzaren 15ean egiteko asmoa dutela jakinarazi digute antolatzaileek.

Dena dela, egun horretako ekimenak gertatzen joateko Debagoieneko batzordeko kideek batzarra egingo dute martxoaren 25ean, 19:00etan, Bergarako Txolartean. Tartean, denborarekin egun horretako erreferentzia bilakatu den bazkariaren gainekoak zehaztuko dituzte. Baina, urteroko ekimenez gain, bailarako jaialdiarako berrikuntza bat gertatzen dabiltzala aurreratu digute: erakusketa bat antolatu nahi dute.

**AZPIEGITURAK** > GARRAIO ZERBITZUA

# Tranbiaren proiekturako ez dagoela dirurik dio Arriolak

"Tranbiaren auziari irtenbidea bilatu nahi diogu; helburua da debagoiendarren garraioa hobetzea"




Gipuzkoa eta Euskadiko sozialistak Arrasateko Hotel Mondragonen batu ziren, krisiaz eta garraioaz hitz egiteko. MIRARI ALTUBE

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Zapatuan, Hotel Mondragonen batu ziren Iñaki Arriola Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburuarekin batera: Paco Gartzia, legebiltzarkidea; Aritz Arrieta, Arrasateko sozialisten bozeramailea; Jesus Egiguren, Euskadiko PSE-EEko presidentea; eta Manuel Huertas, Gipuzkoako sozialisten presidentea, besteak beste. Arriolak, krisiari aurre egiteko sozialistek hartutako erabakiekin hasi zuen agerraldia: "Zapateroren E-Planarekin, krisiari aurre egiten lagundu nahi izan diegu udalei. Herritarrei eta udalei laguntzeko dirua jartzeko prest gaude, gainera".

**TRANBIAREN PROIEKTUA GELDI**

Debagoieneko garraio zerbitzua ere hizpide izan zuen. Tranbiaren proiektuak ez daukala aurrekonturik eta geldi dagoela azaldu zuen: "Ezinbestekoa da udalekin, Diputazioarekin eta Mankomunitatearekin, elkarlanean, erabakiak hartzea debagoiendarren garraioa hobetzeko".

Bestalde, Garraio sailburuak azaldu zigun Debagoieneko AHTko lanak martxa onean doazela. Antzuola eta Bergarako tartea egiteko lizitazio deialdia kaleratu dela kontatu zigun: "Gure asmoa da AHTko lanak lehenbailehen hastea lizitatu berri den zatian". Arrasate-Aramaio arteko lur-jausiari buruz galdetuta, horren berri ez zeukala aitortu zigun Garraio sailburuak.

ESANAK

**"Eusko Jaurlaritza Debagoieneko garraio zerbitzua diruz laguntzeko prest dago, egungo eskaintza hobetzeko**

**"Tranbiaren proiektuari ipinitako alegazio guztiak, banan-banan, erantzun nahi ditugu"**

**Iñaki Arriola** > Garraio sailburua

DATUA

**528**

**ALEGAZIO**

Tranbiaren proiektuak bostehun eta hogeita zortzi alegazio jaso ditu. Arriolak azaldu duenez, 2004tik daude erantzun gabe.




**EKONOMIA** > GIPUZKOAKO UDALEN LIKIDAZIOA

## Debagoieneko udalek 8'5 milioi euro itzuliko dizkiote Foru Aldundiari

Gipuzkoako udal guztien artean, 98,9 milioi euro pasatxo itzuliko dizkiote

**M.A.** > BERGARA

Udal Finantzaketarako Foru Fondoak, 2009ko Gipuzkoako herrien likidazioa kaleratu du. Hala, Gipuzkoako udalek 98,9 milioi euro itzuli beharko dizkiote Diputazioari; aurreikusitakoa baino 7,5 milioi gutxiago. Horrek %23ko murrizketa suposatzen duela azaldu du Udal Finantzaketarako Foru Fondoak. Izan ere, 2009ko aurrekontua 444 milioi euro ingurukoa zen eta 345 milioiko likidazioa izan dute Gipuzkoako Udalek.

Debagoieneko udalek ere, –Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati– espero baino gutxiago itzuli beharko dute; guztira, 8,5 milioi euro.

**INTERESIK GABEKO ITZULKETA**

Eudel eta Gipuzkoako Diputazioarekin adostutako hitzarmenaren arabera, udalek itzuli beharko duten diru kopuruak ez du inolako interesik izango. Hala, 2011, 2012 eta 2013 urteen artean itzuli beharko dute bueltatzeko duten diru kopurua; aipatu bezala, inolako gain kargarik gabe eta hiru urteko epean.

### 2009ko herrien likidazioa

| HERRIA | LIKIDAZIO SALDOA |
|---|---|
| Antzuola | 293.089 |
| Aretxabaleta | 907.656 |
| Arrasate | 3.077.493 |
| Bergara | 2.055.061 |
| Elgeta | 152.533 |
| Eskoriatza | 551.403 |
| Leintz Gatzaga | 50.730. |
| Oñati | 1.498.835 |
| **GUZTIRA** | **8.586.804** |

**Trinidad Vicente** > Soziologia irakaslea eta ikertzailea

# "Hartzailea den gizarteak erantzukizun handia du integrazioa indartzeko bidean"

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

**Trinidad Vicente (Bilbo, 1969) Deustuko Unibertsitateko soziologiako irakaslea eta ikertzailea da. Elkarhezitzenek antolatuta, kulturartekotasunari buruzko hastapen ikastaroan parte hartu zuen zapatuan Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Besteak beste, integrazioaren gainean hausnarketa egin zuten. Harekin egin dugu berba ikastaroaz.**



Trinidad Vicente, Eskoriatzako Ibarraundi museoan. JOSETXO ARANTZABAL

**Guztion ahotan dago kulturartekotasun kontzeptua; baina, zer da?**

Kulturartekotasunari buruz berba egiten dugunean integrazioari erreferentzia egiten diogu. Azken hamarkadan gorakada nabarmena izan du etorkinen kopuruak, eta behin eta berriz galdetzen diogu gure buruari ea ondo integratzen diren.

Eusko Jaurlaritzak etorkinen integrazioa bultzatzeko plana du, eta helburua da gizartean kulturartekotasuna bultzatzea. Arazoa da hori bultzatzeko proposatzen dituzten ereduak jendartean ez direla ondo ezagutzen.

**Etorkinekin integrazioaren arazoa handitu egin da?**

Arazoa betidanik egon da, baina etorkinekin areagotu egin da berriro ere. Orain dela 20 urte, integrazio arazoa izan zuten Espainiako beste lurralde batzuetatik etorritako pertsonek. Bestalde, beti aipatu dugu ijitoek gure gizartean integratzeko arazoak dituztela.

Era berean, integratzeko arazo berberak dituzte talde gutxiengodunek; adibidez, emakumeek.

**Hortaz, integrazioa arazoa dela esan dezakegu?**

Ez, eta guk okerreko kontzeptu hori zuzentzeko egiten dugu lan. Integrazioa ez da arazoa; bai, ordea, integrazioa bultzatzeko erabiltzen dituzten metodoak edo bideak. Kontua da etorkin kopuruak gora egin duela, eta gizartea anitza dela kulturari dagokionez. Benetako arazoa hori guztiori kudeatzea da.

**Etorkinen esku dago gizartean integratzea?**

Neurri baten, bai. Eurak datoz gizarte berri bateko kide izateko asmoz, eta eurek egin behar dute ahalegina. Baina beste aldean gaudenok ere, hau da, hartzailea den gizarteko kide garenok, geure ahalegintxoa egin behar dugu. Integrazioan guztiok dugu zeresana. Baina bakoitzak ze paper bete behar duen eta norainoko laguntza eman behar duen zehaztu barik dago.

**Zeintzuk dira integrazioa baldintzatzen duten faktoreak?**

Asko daude. Bereziki kultura ezaugarriak hartzen ditugu kontuan. Jaurlaritzak egindako inkesten emaitzek diote euskaldunondako musulmanak integra ezinak direla, duten kulturagatik. Baina ez dira kultura ezaugarriak bakarrik; askotarikoak dira integrazioa baldintzatzen duten faktoreak: besteak beste, ekonomia, familia, lana, egoera juridikoa eta politikoa...

Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da gai honen inguruan eztabaida bultzatzea, eskubideetan eta aukeretan benetako berdintasuna lor dezagun, inportanteena pertsonak direla ahaztu barik.

**"Integrazioa ez da arazoa; bai, ordea, integrazioa kudeatzeko erabilitako bideak"**

**"Eztabaida bultzatu behar dugu eskubideetan benetako berdintasuna lortzeko"**

**"Krisi garaian gaudenez etorkinak oztopo direla esaten dugu, soberan daudela"**

**Jendartea kontzientziatuta dago integrazioa indartzeko egin beharrekoaz?**

Zaila da horri erantzutea. Une honetan krisi garaian gaudenez, etorkinak oztopo moduan ikusten ditugu. Gure herrira etorri dira lan eta bizitza hobe baten bila. Baina orain lanik ez dagoenez, alde egin behar dutela pentsatzen dugu? Eskubide eta aukera berdintasunaren aldekoek gurekin geratzea nahi dute. Baina etorkinak lanerako bakarrik balio dutela uste dutenendako, soberan daude.

Ikuspuntu ezberdinak daude, eta ondorioz, irtenbide ezberdinak planteatzen dituzte.

Inkesten emaitzak oso garbiak dira: herritar gehienendako integrazioa arazo bat da.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Nahiko ilun ikusten dut. Erakunde gehienek lanean dihardute, integrazioa eta kulturartekotasuna bultzatzeko. Baina ez da erraza izango. Gu, gure aldetik, tailerrak eta ikastaroak antolatzen ari gara; hausnarketarako bideak zabaldu nahi ditugu modu horretan.

---

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Gure esku dago, ez itxaron beste batzuei

Ni bizi naizen etxeko leihotik mozorro eta karroza ugari ikusi nituen joan den asteburuan; dagoeneko zalantza barik esan dezakegu Aretxabaleta eta Arrasate parekatuta dabiltzala jai horren arrakasta eta partehartzeari dagokionez. Hala ere, Arrasateko adibidea nabarmenagoa iruditzen zait, herri handiagoa bada ere, Aratuste-zapatuaren ospakizuna ia zerotik hasi delako. Tabernari eta koadrila gutxi batzuen ahaleginarekin, hiru urtetan, urteko egun indartsuenetako bat bilakatu da. Maritxu Kajoi ere hala sortu zuten, koadrila gutxi batzuen ekimenez, eta badira adibide gehiago.

**"Herritar soilok gai izan gaitezke gauzak sortu eta aldatzeko, nahiz eta ezetz pentsa"**

Honek erakusten digu, nahiz eta gaur egun ahaztuta daukagun, herritar soilok uste baino indar handiagoa daukagula, eta gu geu gai izan gaitezkeela gauzak sortu eta aldatzeko; borondatea eta lan egiteko gogoa da falta den bakarra.

Badakit kooperatibak hemen sortu izanaren kontakizunak atso-agureen aspaldiko pasartea dirudiela, baina ezin da ukatu hala gertatu zenik, nahiz eta horrek abantailak eta desabantailak ekarri. Desabantailak? Bai. Guztia eginda jasotzeak ekarri digun balore eta balio galera itzela. Eta kooperatibena agerikoena bada ere, badira hemen sortutako beste mugimendu indartsu asko hainbat esparrutan: arlo politikoan, iraultzailean, euskalgintzan, auto-eraketan, komunikabideetan, musikan, eta abar, eta abar.

**> Lau urtetik behin hauteskundeen zain egon barik, egunerokoan gauzak sortu, erabaki eta aurrera ateratzen saiatu behar dugu; eta ahal bada, gai polemikoen edo geuri eragiten digutenenen gainean herritarrek dugun iritzia jaso.**

**> Galdeketak egitea ez dute nahi gure agintariek, eta ahal duten baliabide guztiekin oztopatzen eta zigortzen saiatzen dira. Horra hor, Aramaioko alkate Asier Agirrek daukan epaiketa. Eta errepideagatik, inor epaituko ote dute?**

---

**JENDARTEA** > IRITZIAK

## Partaidetzarako bloga abiarazi du Foru Aldundiak

Foru Araua egin ahal izateko herritarren proposamenak jaso gura dituzte

M.B. > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bloga jarri zuen martxan hilaren 14an, informazioa biltzeko eta herritarren proposamenak jasotzeko. *http://blog.gipuzkoaapartehartzen.net* helbidean egin daitezke iradokizunak eta ekarpenak. Webgunean jasotako informazioa aintzat hartuko dute Foru Araua egin ahal izateko.

**FORU ARAUA, UDABERRIRAKO**

Aldundiak bilerak egiten dihardu hainbat eragilerekin, herritarren partaidetzarekin zerikusia duten prozedurak abian jartzeko eta interesa duten eragileek egindako proposamenak dokumentu baten biltzeko.

Foru Arauaren proposamena udaberrian Batzar Nagusietan aurkezteko konpromisoa hartu du Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olanok.

INGURUMENA > KANPANZARREKO HARROBIA

# Udalatx ez du harrobi moduan aurreikusten Arrasateko Udalak

Arrasateko Udalak ez du ustiapen mota hori gauzatzeko aukerarik ikusten Kanpanzarren

Harrobia kudeatzen duen enpresak 2024an hasi nahi du lur azpiko ustiakuntzarekin

U. MADERA/E. MENDIBIL > ARRASATE

Arrasateko Udalak adierazi du Udalatx barrutik ustiatzen segitzeko "hirigintza ikuspuntutik planteatutako ustiapen berriak ez duela egun udalerriko planeamenduaren estaldurarik". Horrez gain, jasotako dokumentazio guztia gainontzeko ikuspuntuetatik ere sakonki aztertu ahal izateko denbora gehiago eskatu dio Udalak Eusko Jaurlaritzari, martxoaren bukaerara arte, hain zuzen.

**INGURUMEN ERAGINA**

Horixe, beraz, Arrasateko Udalaren ikuspuntua Udalatx barruan harrobia egiteko eskaeraren aurrean. Udalatx mendia ustiatzeko proiektuaren ingurumen eragina aztertzeko tramiteak hasi dituzte jada. Horren gaineko ebazpena jendaurrean ipini du Jaurlaritzak, enpresa ustiatzaileak Udalatxetik harria ateratzen segitu nahi dutelako, aurkeztutako proiektuaren arabera.

**PLANEAMENDU OROKORRETIK AT**

Arrasateko Udalak ez du ustiapen mota hori gauzatzeko aukerarik ikusten. Kanpanzar Harrobia S.A. enpresak ustiatu nahi duen gunea ez dago aurreikusita Arrasateko planeamendu orokorrean harrobi moduan. Gauzak horrela, zaila izango da enpresak Udalatx ustiatzeko harrobia egitea. Udalaren baimena beharko lukeela uste dute Hirigintza Sailean, Udalatx Arrasateko udalerrian dagoelako. Udal Gobernuaren arabera, Hirigintza Sailak ez du proiektu horren aldeko txostenik egin.



Udalalatx barrutik ezagutzeko, bisita gidatu bat. GOIENKARIA

**LUR AZPIKO HARROBIA, AGINDUTA**

Kanpanzar Harrobia Calcinor taldeko enpresa batek kudeatzen du. 1999an lur azpiko harrobi bat ikusi zuten Italian eta bide beretik jotzeko aukera ikusi zuten. Lur azpiko ustiakuntzaren proiektua Celestino Gonzalez katedratikoari agindu zioten orain zortzi urte, eta modelo berria 2024an abian jartzea da beraien asmoa.

PROTESTA

# Auto-karabana Aramaiotik Arrasatera

70 bat autok parte hartu dute, lur-jausiak eragindako egoera salatzeko

GOIATZ ARANA > BERGARA

Atzo, domeka, egin zuten auto-karabana: 70 auto inguru, *Zabaldu bidea* leloa zeraman traktorearen atzetik. 11:30ean Aramaioko frontoitik atera eta bi orduko itzulia egin zuten: Zabola-Untzilla-Aretxabaleta-Arrasate, eta buelta berriz ere Aramaiora. Ekimenaren bultzatzaileak pozik zeuden deialdiak izandako erantzunarekin, "70 auto asko" direlako. AHTko lanen eraginez Arrasate eta Aramaio arteko errepidean izandako lur-jausia gertatu zenetik, hiru protesta ekitaldi egin dituzte jada egungo egoera salatzeko.

Auzoz-auzo joateko bidea zabaltzeko lanak ez dituzte amaitu oraindik. Egoerak hobera egin du hein baten, baina ez da ona.

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Ford Kuga Trend 2.0 TDCi 136 ZP 2 wd. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria auto berrientzat. Eskaintza ez da baliagarria langileentzako eta flotentzako. Ikusten den modeloa ez da eskaintzen dena. Kuga gama, batez besteko kontsumoa: 6,1-10,3 l/100 km. $CO_2$ igorpenak: 159-244 g/km.



auzorik auzo

**LARRAÑA** > Oñatiko auzoa da Larraña. Herriaren iparraldean dago, Errekalde auzoaren eta ETEOren goiko aldean. Abuztuan ospatzen dituzte jaiak: San Lorentzo jaiak, hain zuzen ere. Arrakastatsuak izaten dira.



Inazio Urtzelai, Larraingain elkartearen goiko aldean, auzoa atzean duela. A.E.

**Inazio Urtzelai** > Larrañako auzo-alkatea

# "Baserriak hutsik geratuz gero, etxe inguruak txukun mantentzea arazoa izango da"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Uriko- Garaikoa baserrikoa da Inazio Urtzelai. Bi urte daramatza auzo-alkate; esan digu urtean behin elkartzen direla auzotarrak. Asko aldatu da auzoa azkenaldian; lehen baserriak zeuden tokian orain etxe asko egin dituzte.**

**Larraña izena du auzoak, baina ez da aspaldiko kontua hori.**

80ko hamarkadan aldatu zen izena; lehen Narria zena Larraña izatera pasa zen. Gainera, Zumeltzegi dorrea ere orduan pasa zen Larraña auzoa izatera.

**Baserri asko hutsik geratu dira azkenaldian. Ez da hala?**

Aurreko Mendia, Narria Goikoa eta Narria Behekoa ziren lehen hemengo auzuneak. Aurreko Mendian bederatzi etxe zeuden; eta orain, guztiak hutsik daude. Goiko auzoan 15 etxe zeuden eta behekoan beste 15.

Gaur egun 35 baserri daude auzo guztian; baina horietatik asko hutsik daude. Auzoa hutsik geratuko ote den? Baserri asko daude hutsik, eta beste askotan pertsona nagusiak bizi dira. Ez da ikusten etorkizunik...

**Hori dela-eta, ikusten duzun arazoa baserri inguruak txukun mantentzea da.**

Bai, arazo orokorra dela esango nuke, auzo guztietakoa. Etxe inguruak garbi mantentzeko, batzuek ardiak jartzen dituzte... hori da arazoa, etxe inguruak zelan garbi eduki. Laguntza askorik ere ez dute ematen...

**Gaur egun, zein da Larraña auzoak duen arazo nagusia?**

Musika Eskola ondoan, adibidez, arazoa daukagu. Gertatzen dena da autoak aparkatzen dituztela izkinetan haurren zain dauden gurasoek. Eta zu auzora baldin bazatoz, ezin pasatuta geratzen zara. Eskatu nuen Udalean inguru horiek txukuntzea, baina ez didate onartu.

**Errepide zati bat konpontzeko eskaera ere egin duzu.**

Bai, Errekaldetik Urubilera arteko bidean porlana botatzeko eskatu nuen. Izan ere, baserri batzuetakoek basotik datozenean traktorearekin herritik pasa behar izaten dute. Porlana botaz gero, herritik pasatu barik baserrira iristeko modua egongo litzateke.

Porlana botatzeko etxetik etxerako baldintza ez dutela onartzen esan zidaten Udalean, baina ez dut uste hori horrela denik.

**"Musika Eskola ondoan autoekin gertatzen den arazoa konpontzeko eskatu dut Udalean"**

**"Sasoi baten, Olakuako ahateak dauden lekuan ospatzen genituen auzoko jaiak"**

**Noiz ospatzen dituzue jaiak?**

San Lorentzo jaiak ospatzen ditugu, abuztuan. Arrakasta izaten dute. Garai baten, oso ospetsuak ziren; izan ere, orkestrak irten zirenean, Oñatin lehenengo aldiz San Lorentzo jaietan jo zuen orkestra batek.

Sasoi baten, orain Olakuako ahateak dauden tokian egiten ziren jaiak; orain, San Lorentzo ermita ondoan.

**Ibilaldiak egiteko aukera paregabea eskaintzen du auzoak.**

Bai, jende asko etortzen da alde honetara. ETEOtik edo Torrealdetik gora etorrita, Larraña auzora sartzen da. Egia esan, oso ikuspegi polita daukan auzoa da, Oñati guztia ikusten da hemendik. Jende asko etortzen da hona gora, eta hemen, lauan ibiltzen dira oinez.

Gainera, auzoan Larraingain elkartea daukagu; auzotarrez gain, kaleko jendea ere badago bertan. Bestalde, ikustekoen artean, Zumeltzegi dorrea dago. Garai baten, Zumeltzegi kalea zen hura, baina orain, Larraña auzoan dago Zumeltzegi dorrea.



Euskal Autonomia Erkidegoa naturaguneen aldetik aberatsa dela dio Leire Beteta ingurumenean adituak. Baina ohartarazi du gune horiek babestu egin behar ditugula eta erakundeak konbentziarazi gune horiek babestea aurrerakoia, errentagarria eta aberasgarria dela. Azpiegitura lan handien gainean dio "planteamendu horiek zaharrak eta betikoak" direla.

**Leire Beteta** > Ingurumen teknikaria

# "Lan egin dezakegu erakundeak izan daitezen naturarekiko sentiberagoak"

**ENEKO AZKARATE** > ESKORIATZA

**Ingurumen Zientzietan lizentziaduna da eta Lezoko Udalerako lanean dihardu, ingurumen aholkulari. Errenteriarra da eta 31 urte ditu. *Natura 2000, bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* izenburuko erakusketa ibiltaria egon da ikusgai egunotan Eskoriatzan, eta eguenean berbaldia egin zuen gai hori hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatu duen erakusketa ibiltari horren azken geltokia izan da Eskoriatza. Atzo amaitu zen.**



Leire Beteta eguenean Eskoratzako Ibarraundi museoan, berbaldia egin aurretik. GOIENKARIA

**Zer da Natura 2000 sarea?**

Europako naturaguneen sarea. Hemen, gure autonomia erkidegoan, dauzkagun eremu naturalen, biotopoen eta parke naturalen sarearen modukoa. Habitatak eta espezieak babesteko sortutako sarea da. Helburua da eremu naturalak babestu eta horien sarea osatzea. Europako herrialde bakoitzak bere eremua aurkezten du Europa 2000 sarerako eta, hala, guztira, gure erkidegoko 57 eremu daude sare horretan; guztiak ere, interes berezikoak.

**Zer erakutsi duzue erakusketa ibiltarian?**

Eusko Jaurlaritzak antolatu duen komunikazio kanpaina da. Ekainean hasi eta atzo amaitu zen Eskoriatzan. Natura 2000 zer den, zertarako sortua den, zer eremuk osatzen duten eta abar ezagutzera eman nahi izan da.

**Ze erantzun izan du ekimenak?**

Interesa agertu du jendeak, baina egia da, era berean, berbaldiei dagokienez, behinik behin, erantzun handirik ez duela eduki. Baina berbaldietara etorri direnak, kasu askotan, erakundeetako ingurumen teknikariak-eta izan dira, eta, alde horretatik, aberasgarria izan da.

**Euskal Herrian, oro har, bizi izateko toki egokiak ditugu?**

Erkidego txikian jende asko bizi gara, eta naturagune batzuk beste batzuk baino hobeto zainduta daude. Halere, dibertsitate handiko eta ugaritako gunea da gure erkidegoa. Kantauri edo Atlantiko eremuetako isuriak ditugu, baita mediterranear isurialdekoak. Habitat eta espezie aldetik, gune aberatsak. Oso lurralde txikian oso eremu desberdinak ikus ditzakegu. Mendialdeak eta itsasadarrak, padurak, ibaiak… bertatik bertara ditugu. Zaindu beharreko gune aberats ugari daukagu.

**Eta gure bizitokia, ingurunea, ondo zaintzen dugu?**

Apurka-apurka kontzientzia handiagoa daukagu, baina mehatxu asko dauzkagu. Batez ere, azpiegitura egitasmo askok ingurumenari kalte egiten diotelako, nahiz eta esaten duten garapenerako beharrezkoak direla. Koska hortxe dago: zelan zaindu gure natura eta bioaniztasuna, garapenari uko egin barik.

**Ze baldintza behar du bizi izateko toki on batek?**

Ez dugu esan nahi eremu babestuetan ezer egin ezin daitekeenik. Bizi izateko tokiak dira. Gune orekatuenak dira, jendearen jarduera eta natura bateragarri dituenak. Jeneralean izaten dira landa eremuetan egiten diren jarduerak: abeltzaintza, nekazaritza… Naturaren babesarekin talka egiten duten jarduerek edo planteamenduek eskatzen dute zalantzan jartzea ezinbesteko diren proiektu horiek, kaltea ahalik eta txikiena izan dadin. Gure landa eremuan ekintzak egitea posible da. Europan eta baita gure erkidegoan ere, gaur egun daukagun biodibertsitatearen zati handi bat geuk sortu edo manipulatutakoa da. Geuk zaintzen ditugu larreak… Gauzak egin daitezke, eta seguruen egin behar dira, zaila delako gune batzuk gizakiok ukitu barik edukitzea, baina natura zainduz.

NATURA ETA GIZAKIA

**"Ez dugu esan nahi eremu babestuetan ezer egin ezin daitekeenik; bizi izateko tokiak dira"**

NATURAGUNEAK

**"Dibertsitate handiko eta ugaritako gunea da gure erkidegoa"**

EZTABAIDA

**"Zer nahi dugu? Leku bat babestea ala bertan plataforma logistiko bat egitea?"**

**Gure eskuetan dagoen guztia egiten dugu natura babestearren?**

Ezetz esango nuke. Asko falta zaigu. Sarritan, kontraesan handiak planteatzen dira, erakundeen aldetik batez ere: gune bat babestu nahi eta, aldi berean, leku berean egitasmo handi bat planteatu. Eta gero, bestalde, eskatzen diogu jendeari kontzientzia har dezala. Poliki-poliki urratsak egiten gabiltza eta Natura 2000 da beste urrats bat. Edozelan ere, partikularrok badaukagu zer esana: erakundeak naturarekiko sentiberagoak izateko egin dezakegu lan.

**Zein da ingurumenaren arriskurik handiena?**

Jende asko bizi gara erkidego honetan eta hirietan edo populazio handiena daukan eremuetan mehatxu handiagoa dago: esaterako, mendietan motorrak ibiltzea, zaborra behar den moduan ez erabiltzea, lurraldearen ordenamendu desegokia… Batzuetan, ez gara konturatzen gune bat dagoen moduan zaintzea aukera izan daitekeela garapenerako ere. Eztabaidatu egin behar da zer nahi dugun: leku bat babestea ala bertan plataforma logistiko bat egitea edo garraio azpiegitura handi bat kokatzea? Zerk ekar dezake aberastasun handiagoa? Izan ere, naturaguneek paper garrantzitsua jokatzen dute gure garapenean. Bizi kalitatearen aldetik, gure etorkizuna ziurtatuko du naturaguneak hor edukitzeak, ondo zainduta.

**Garapen txarto ulertua?**

Garapena bakarrik bide horretatik ulertzen da: azpiegitura handiak eraikitzetik, gero eta azkarrago joatetik batetik bestera… Ematen du hori bakarrik dela garapena. Baina aisialdian nora joaten gara? Industriaguneetara ala mendira, ibaiertzera, itsasertzera…? Kalitatezko naturaguneak gure etorkizunaren parte garrantzitsu dira.

**Besteak beste, AHT eta Pasaiako superportua azpiegitura handien gainean, ze iritzi?**

Badakigu proiektu handi hauetan interes garrantzitsuak daudela. Baina planteamendu horiek, nire ustez, askotan, zaharrak dira, betikoak. Beste garapen modu batzuk topatu behar ditugu eta alternatibak aurkitu. Pasaiako portuaren gainean, esaterako, beste portu batzuekin egin daitezkeen elkarlanak, e.a. Eta AHTrekin berdin: egungo trenbide sarearen aukera aztertu da? Badirudi aukera beti dela beste bat egitea, dagoena aprobetxatu beharrean.




**Maider Arregi,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

**> ARRASATEN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARRASATEN, ARETXABALETAN,
ESKORIATZAN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ANTZUOLAN,
ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**kale inkesta**

# Azken datuek diote egoera ekonomikoak hobera egin duela gurean. Igarri duzu hobekuntza hori?



**Arrate Landa**
Langilea
Arrasate

Ez, egunero ko bizitzan ez dut batere igarri. Ni ezin naiz kexatu, baina hil bukaerara iristea kosta egiten zaigu. Kooperatiban lan egiten dutenek ere gutxiago kobratzen jarraitzen dute eta interesak jaso barik.



**Aitor Iturriaga**
Langilea
Arrasate

Ez, bat ere ez. Neure inguruan ere ez dut igarri inolako hobekuntzarik. Zaila da jakitea noiz aterako garen krisi honetatik; ni ezkorra naiz eta aurrera begira ere susmo txarrak hartzen dizkiot egoerari.



**Norma Madariaga**
Langilea
Arrasate

Ez, asko ez behintzat. Ezagun asko ditut langabezian eta orain ere hala jarraitzen dute. Baliteke zertxobait hobera egin izana egoerak, baina lana falta da. Alderdi politikoak dira ados jarri behar direnak guztion onerako.



**Angel Sanchez**
Langilea
Arrasate

Ez, oraindik ez. Nik espero dut datorren urtean izatea, baina oraindik agudo da; iazko krisia ordaintzen jarraitu beharko dugu aurten. Langabezia da arazoa eta denbora beharko dugu lana sortzen hasteko.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARAMAIO

**> Aramaio eta Arrasate artean ezin egin korrika**

Aramaio eta Arrasate arteko errepidea autoendako itxita dago baina debagoiendar batek esan digu ez duela jartzen oinezkoak ezin direnik pasatu. Eta bertan gertatutakoa salatu gura du: "Korrika joan nintzen Aramaiotik Gesalibarrera eta, bueltan, lur guztietarako auto batetik gizon bat atera eta ezin nintzela pasatu esan zidan oihuka. Etxera nindoala erantzun eta ezin nintzela pasatu berriro, buelta osoa emateko. Nor ote zen hori esateko galdetzerakoan guardia zibilei edo ertzainei deituko ziela erantzun zidan. Hala ere, korrikan jarraitzeko keinua egin nuen eta lepora salto egin zidan esanaz: "Que te voy a dar dos ostias".

ARETXABALETA

**> Mitarte kaletik ezin pasatu automobilak**

Mitarte kalea zamalanak egiteko izendatu dute oraintsu eta bertatik pasatu ere ezin diren egin autoak galdetu digu herritar batek: "Zamalanak egin ezean pasatu ere ezin da egin, adibidez Eroski alboko aparkalekura sartzeko? Udaltzainak ez zidan utzi eta izugarrizko buelta eman behar izan nuen leku berera joateko".

BERGARA

**> Txirrindulariak errepidean**

Betiko kexa da baina eguraldi onarekin ugaritu egiten dira txirrindulariak, zapatuan esaterako, eta bergarar batek gogorarazi gura du "eskubideez gain betebeharrak ere badituztela".

**usteak uste**

**Mirari Altube**

# Kultura unibertsala

Sarri esaten da kultura unibertsala dela, ez duela mugarik, guztion ondarea dela… baina sarritan berba dotore horiek haizeak eroan izan ditu. Hurrengoan, ostera, ekintzak dira berba egiten dutenak; Aretxabaletan, esaterako, ia 100 lagun elkartu ziren flamenko ikuskizunean. 100 lagun horietatik gehienak gazteak ziren, eta gehienak euskaldunak. Gustura baino gusturago jarraitu zituzten dantzak, kantuak eta gitarra doinuak; txaloka eta animu oihuak botaz.

Euskaldunok geure hizkuntza, dantza, ohitura eta usadioak ditugu, bai, baina zergatik ez ezagutu kanpokoak? Ezagutu bakarrik ez, harekin gozatu ere bai. Era berean, zergatik ez erakutsi geurearekin gozatzen kanpotik etorritakoei? Elkarbizitza normalizaturako pausoak keinu txikiekin etorriko dira, eta ez, hitzarmen potoloak eginda.

**zorroztailea**



**Elena Laka**

# Andereño ala andere

"Sareinak. Feminismo literarioak" blogak hiru urte bete ditu. Euskal literatura teoria feministaren bidez sortu, kritikatu eta hedatu nahi dute. Euskarazko literaturan "zuloak" daudela diote, baita zulo horietatik emakumeen liburuak amiltzen direla ere. Euskararen unibertsoa, feminismoa eta literaturaren arteko bidegurutzean lan egin dute urteotan." Berria > 2010-02-20




Inguruan begiratuz gero, gaur egun teoria feministaz berba egitea agian gehiegitxo irudituko zaio herritar arruntari. Matxismoa baztertuta, gaur egungo idazleek ez al dituzte emakume eta gizonak berdin agertzen euren idazkietan? Alegia, ze premia dago garai honetan teoria feministaz hitz egiteko?

Hala pentsatzeko burutazioa inoiz izan baduzu, adi azken hamabost egunetan bi gizon idazle modernori irakurritakoari: "andereño" hitza emakumea izendatzeko. Ez irakaslea aipatzeko, emakumearen titulo moduan baizik. Lehena, *zuzeu.com*-eko berri batean, emakume batek bidalitako eskutitz bati buruz: "Ez dugu uste pertsonalki ezagutzen dugunik Ibar andere edo andereñoa, baina seguru ez dela halako gauza bat sinesteko bezain inuxentea". Bigarrena, Berriako zutabe batean, kazetari baten lana kritikatzen: "Tolosako Inauterietako espirituarekin bat egin du editore andereñoak".

Hauta lanerako Euskal Hiztegiaren arabera, "andereño" emakume ezkongabea da. Deituraren ondoren erabiltzen da, batez ere. Garai batean ezkonduta zeudenak eta ez zeudenak sailkatzeko modua zen, horrek eskubideetan ere ezberdin egiten zituelako: ezkondu aurretik, andereño; ondoren, andere.

**"Emakumeak andere izateko ez du ezkontzaren beharrik"**

**"Andereño hitza, emakumea kritikatzeko"**

Uste nuen egun emakume guztien titulu formala "andere" zela: epaile anderea… Emakumeak andere izateko ez baitu ezkontzaren beharrik. Bikotekide barik, bikotekidearekin ezkontzeke, emakume batekin ezkonduta edo dibortziatutako emakumeak daudenean, andereño eta andereren arteko desberdintasuna ezabatuta zegoelakoan nengoen. Uste okerra. Euskaraz idazten duten bi gizon moderno hauentzako, inportantea da, antza, emakume bat ezkonduta egotea edo ez. Begiratu dezagun haratago: andereño hitza erabiltzen dute emakumea kritikatzeko; andereño esaten badiote, profesionaltasuna eta itzala murrizten diotelako. Andere ez esatea kritikarako beste alderdi bat da, gizon baten kasuan sekula erabiliko ez luketena.

"Desautorizazioa da gure aurka erabiltzen duten baliabiderik eraginkorrena" zioen Josune Muñoz Sareina blogetako arduradunetako batek. Pentsatu orain feminismoaz aritzea larregitxo ote den XXI mendearen hasieran.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi
Asteburuko erredakzioaren arduraduna Goiatz Arana Erredakzioa Arantzazu Ezkibel, Mirari Altube, Maider Arregi
Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19 **Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Hamaika urteren ondoren, egoitza berria izango dute Helduen Heziketa Iraunkorrekoek **> 14**



**> BERGARA**
Bedelkarkoek merkealdiko azoka txikia egingo dute egubakoitzean eta zapatuan **> 17**



**> OÑATI**
Hermansoloñak 7.057 kilo material jaso ditu Haitirako; elikagaiak dira ia erdia **> 18**

**ARRASATE** > BEHERAPEN AZOKA

# Saltzaileak eta erosleak gustura Merkemerkau azokako aukerekin

**HARRERA BIKAINA**
Saltzaileak, pozik; eta erosleak, gustura azokako aukerekin

**PUZGARRIA**
Gaztetxo askok disfrutatu zuen puzgarrian jolasean

**18 SALTOKI**
15 Arrasatekoak, 2 Bergarakoak eta bat Aretxabaletakoa



Laugarren aldiz egin den Merkemerkauak, barikuan zabaldu ditu ateak aurten, estreinekoz. JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Laugarren urtez, Merkemerkauak ateak ireki ditu asteburuan; oraingoan, barikutik hasita. Arrasateko Uarkapeko pilotalekuan jende ugari ibili da aukeren azokan. Balorazio positiboa egin dute bertaratutako erosleek eta, baita saltzaileek ere. Neguko denboraldian saldu ez dutena edota *stocke*an dauzkaten produktuak kentzeko "aukera ona" dela azaldu digute Merkemerkauan izan diren saltzaile askok. Ibarreko herri ezberdinetako erosleak ere gustura ikusi genituen saltoki ezberdinetan aukeren bila. Oñatiko Nieves Fuentes eta Naiara Palacin ama-alabek kontatu zigutenen sorpresaz hartu zituela azokak: "Ez genuen azoka ezagutzen eta benetan merezi du, guztiz gomendagarria da. Kalitatezko generoa, prezio onean". Aurten nobedade moduan, barikuan zabaldu ditu ateak Merkemerkauak eta 17:00ak inguru pilotalekua lepo zegoen: jendea arropa probatzen, umeak puzgarrian jolasean eta guraso asko Monte tabernak jarritako postuan mokadutxoa hartzen. "Erosketak egin, umea jolaslekuan utzi eta guraso asko zerbezatxo bat eta txorixo pintxoa dastatzera etortzen da. Jendeak eskertzen du taberna egotea atseden hartzeko edo lasai egoteko", kontatu digu Monte tabernako arduradunak. Esan, aurten lehen aldiz jarri dutela etxeko txikienendako puzgarria. Barikuan, esaterako, gainezka ikusi genuen puzgarria eta gurasoek begi onez ikusi dute horrelako zerbitzua: "Eguraldi txarrarekin primeran egoten da epelean, erosketaren bat egin eta umeak jolasean lasai utzita".

**IBAIARTEKO TXARTELA**

Ibaiarte Arrasateko Dendarien Elkarteak ere bere postu propioa izan du. Bertako arduradunak pozik azaldu dira jendeak izandako interesagatik: "Herritar asko gerturatu da, batez ere, informazio eske. Aurten, gainera, ardo botila oparitu diegu txartela egin dutenei; orohar, harrera polita izan du ekimenak".

Ibaiarteko merkatariak pozik azaldu dira aurtengo nobedadeekin. Monte tabernako Juan Carlos Davilak azaldu digunez, puzgarriak taberna ondoan egoteak gurasoak erakarri ditu tragoxka eta mokadutxo bat hartzera: "Iaz baino jende gehiago ibili da azokan; batez ere, bariku arratsaldean eta zapatu eguerdian. Aurtengo aldaketekin merkatariak pozik gaude; egun aldaketak jendea erakarri du eta guk behintzat gehiago saldu dugu". Balorazioa, oso ona dela azpimarratu digu Davilak.

## MERKEMERKAUKO EROSLE ETA SATZAILEAK



**Naiara Palacin**
Eroslea-Oñati

"Lehen aldia da etortzen naizena. Kasualitatez jakin dugu Merkemerkauaren berri. Berokia eta gona bat erosi ditut. Aukera polita dago; merezi du etortzea. Prezio oso onean ikusi ditut gauza asko".



**Gorka Zubizarreta**
Nothing Without-Arrasate

"Aukera ona da, batez ere, merkealdian kendu ez duguna saltzeko. Hirugarren urtez gaude eta aurten gainera barikutik. Denboraldiko arropa ekarri dugu eta jendearen harrera oso ona izan da".



**Mila Etxaniz**
Xuxu-Bergara

"Bigarren aldiz etorri gara. Orain dela hiru urte ere izan ginen eta esperientzia ona izan zen. Kalitate-prezio oso onean arropa eskuratzeko aukera dago. Denda ezagutarazteko bidea ere bada".

## EMAUSEN BEHERAPENAK

### Bigarren eskuko dendak harrera ona

Emaus Fundazioko dendak ere beherapenak ditu otsailean. Dena erdi prezioan dagoela azaldu digu Marga Garmendiak, Arrasateko Udaleko Enplegu Garapeneko teknikariak. "Egoera onean dauden arropak, berriro erabiltzeko aukera ona dago". Gizarteratzeko arazoa dutenei baldintza berezitan lana ematen die Emausek. Udalarekin batera, berrerabileraren kultura sustatu nahi du eta gizarteratzeko errekurtsoak sortu. "Baztertuak izan daitezkeenei aukera bat ematea dugu helburu". Emauseko dendan, ume zein helduendako bigarren eskuko arropa dago salgai, momentuz apirilera bitartean.



Arropa, erdi prezioan. J.A



Zuhaitz Eguna ospatzeko Zubillagan batu ziren haur eta gurasoak. JOSETXO ARANTZABAL



Zuhaitzak landatzen, Urkulu eta Oñati errekak batzen diren tokian. JOSETXO ARANTZABAL



Landare postua, udaletxe azpian. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > NATUR ASTEA

# Zuhaitzak erakutsi, saldu eta landatu dituzte Oñatin

Natur Eskolak antolatutako Ingurumen astean izan dira ekitaldiok

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Zuhaitz eta landareek Oñatiko plaza hartu zuten zapatuan. Kolore, neurri eta era guztietako landareak ikusgai eta salgai jarri zituzten. Ingurumen astearen baitan, Oñatiko Natur Eskolak antolatutako ekitaldia izan zen. Zazpi postu jarri zituzten plazan: Tafalla, Zaldibar, Aginaga eta Oñatikoak, besteak beste.

Zuhaitzak oso ondo saldu zituzten; batez ere, gereziondoak eta sagarrondoak. Ikusmin handiagoa piztu zutenak, baina, limoi, laranja eta mandarina zuhaixkatxoak izan ziren.

Aurtengoa 14. aldia izan da Oñatiko Natur Eskolak zuhaitz feria antolatzen duena. Giro onean pasa zuten goiza.

**ZUHAITZ EGUNA**

Atzo, Zuhaitz Eguna egin zuten. Oñatiko eskola guztietako neska-mutikoek jaso zuten gonbidapena zuhaitzak landatzera joateko Zubillagara. Haurrak ez ezik, gurasoak ere batu ziren Zubillagan. Azkeneko urteetan ohiko hitzordu bilakatu da Zuhaitz Eguna; aurten, 150 bat zuhaitz landatu dituzte. Besteak beste, lizarrak, haritzak eta gereziondoak sartu zituzten atzoko saioan, Oñati eta Urkulu errekak bat egiten duten lekuan, zehazki.

Ingurumen astearen baitan, eguenean, 20:00etan, kultura etxean, *Antartida, encuentros en el fin del mundo* filma emango dute.

**OÑATI** > EHIZA

# Bederatzi basurde harrapatu dituzte Arantzazu inguruan

**A.E.** > OÑATI

Gogoratzen den basurde-ehiza handiena egin zuen zapatuan Oñatiko ehiztari talde batek. Arantzazu, Olabarta eta Uribarriko ehiztariak ibili ziren ehizan. Harrapatu zutena historikoa izan zen: bederatzi basurde! Hala diote, ehizan ibili zirenek eta hura ikusteko aukera izan zutenek, behintzat.

Astean zehar konturatu ziren Gomiztegi inguruko zelaietan basurde arrastoak zeudela. Hala, txakurren laguntzarekin bederatzi basurde harrapatu zituzten.

**OKELA, JATEKO**

Gainera, atzo bertan, beste hiru basurde ikusi zirela jakin dute. Harrapatutakoarekin zer egingo duten galdetuta, basurde okela banatu egingo dutela diote; euren artean, eta kalteak jasan dituzten baserritarren artean.



Ehiztari taldea, lagunekin eta ehizatutako bederatzi basurdeekin. AITOR BIKUÑA

**AZOKA** > BASERRIKO PRODUKTUAK

# 13:00etarako hutsik zeuden baserritar batzuen saltokiak

Arrasateko Baserriko Produktuen azokak bikain hasi du ikasturte berria

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

Arrasateko baserritarrak itzuli dira Seber Altube plazara; zapatuan bueltatu ziren, urteko lehen azokan parte hartzera. Mietza, Askasibar, Aranguren, Zuloeta, Gorostiza, Bidasoro, Ikutixo, Etxebarri… herriko dozena erdi baserri baino gehiagotatik ekarri zituzten etxeko produktuak plazara. Sasoiko produktuak aurkitu genituen askoren postuetan: azak, porruak, brokoliak, zerbak, buzkantzak… eta horiekin batera bazegoen bestelakoak erosteko aukera ere: ogia, gazta eta txorizoa, esaterako.

**SALMENTAK BIDE ONETIK**

Baserritarrak pozik zeuden urteko lehen azokak emandakoarekin, jendeak bikain erantzun zuelako. Goiz hotza izan zen zapatukoa eta, ondorioz, salmentak motel antzean joan ziren lehen orduan. Baina 10:30etik aurrera, eguneko lehen eguzki izpien goxotasunak lagunduta, hasi zen jendea bueltaka. "Aste barruko estresa atzean utzita, denboraz ibiltzen da jendea asteburuan eta animatzen dira azokara etortzera", esan digu Zuloeta baserriko Gaizka Olabarrietak. Bere ustetan, jendeak badaki bertako produktuak baloratzen: "Badakigu, egun, gure elikagaien produkzioa zazpi multinazionalen eskuetan dagoela eta, beraz, jendeak eskertzen du Euskal Herriko produktuak erosteko aukera izatea". Erosleentzako ona dela deritzo eta baita beraientzako ere, "dituzten produktuei irteera ematen" laguntzen dielako eta "herriko baserrietan lanean eta gure ondarea zaintzen" jarraitzen dutela erakusten duelako, bere esanetan.

2010eko lehen azoka konpletoa izan da oso: kanpotik etorritakoek jarritako postuak ere egon dira eta fruta arbolak, baserriko erremintak, otarrak… aurkitu ditugu horietan.

**PRODUKTU SORTA OPARI**

2010erako bada nobedaderik: azoka bakoitzean, produktu sorta bat zozkatuko da erosleen artean. "Papertxoa bete eta kutxan sartzera joaten da jendea zuzenean, pozik", kontatu digu Mietza baserriko Basili Ezenarrok. Zapatuan, Juakin Bedia arrasatearrari egokitu zitzaion otarra.



Erosleek ez zuten zozketan parte hartzeko aukera galdu nahi izan. J. A.



Ekoizle eta erosleen arteko tratu zuzena ahalbidetzen du baserritarren azokak. JOSETXO ARANTZABAL



ARANTZAZU EZKIBEL

**BERGARA** > AISIALDIA

## Haur eta gaztetxoak uretan jolas egiten

Arratsalde polita izan zen zapatukoa, kalean ibiltzeko modukoa, baina Bergarako gaztetxoek ez zuten zalantzarik izan: Agorrosinera joan ziren, uretara. Txikienek jolas egin zuten eta nagusiagoek gozatu, puzgarrietan: txirristan behera eta waterpoloan ikusi genituen, besteak beste. Datozen hilabeteetan, gehiago.

**ARAMAIO** > IPUIN KONTAKETA SAIOA

## Munduko istorioak entzunez amets egin dute

**G.A.** > ARAMAIO

Aramaioko neska-mutikoak munduan barrena, bazterrik bazter, ibili ziren bariku arratsaldean. Fisikoki ez ziren kultura etxetik mugitu, baina amets egin zuten Apika haurrentzako antzerki taldearekin. Bilboko konpainiakoen eskutik, munduko bola hartu eta batetik bestera ibili ziren jauzika, tokian tokiko istorioak ezagutuz horrela. Hain zuzen, horixe zuen helburu bariku arratsalderako kultura etxean antolatutako *Munduko ipuinak* ipuin kontaketa saioak. Arratsaldeko bost t'erdietan hasi zen eta ordu t'erdi inguru iraun zuen. 5 eta 11 urte bitarteko 40 bat umek jarraitu zuten emanaldia eta gustura egon zirela azaldu zuten irteeran. Gainera, kontalariak guregandik oso urrun dauden herrialdeetako ipuinak bakarrik ez, bertakoak ere kontatu zizkien eta hori ere gustatu zitzaien gaztetxoei. Saio konpletoa izan zen, beraz.

**NIKARAGUA**

Isode elkartearen eta Aramaioko Udalaren eskutik, *Nikaragua: atzo, gaur, bihar* erakusketa egon da ikusgai Sastiña aretoan, atzora arte; Andrea Eidenhammer-en 25 argazkiz osatutako erakusketa. Bada, mostra horrekin hasitako ibilbidea amaitzeko antolatu zuten, hein baten, bariku arratsaldeko ipuin kontaketa saioa: helduei ez ezik txikiei ere munduko errealitate ezberdinak ezagutarazteko.



Kontalariak munduko bola erabili zuen, gaztetxoei istorioak kokatzen laguntzeko. KULTURA ETXEA

**ARRASATEKO UDALA** > 2010EKO INBERTSIOAK

# Hamaika urte eta gero, egoitza berria helduen heziketarako

Lehengo IMIren eta Mankomunitatearen lokaletan egokituko dute Helduen Heziketa Iraunkorreko 360 ikasle eta 15 irakaslerendako zentro berria



Arrasate pasealekuan daude IMIren lehengo lokala (argazkian) eta Mankomunitatearen egoitza. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Pozik daude Helduen Heziketa Iraunkorrekoak (HHI) Arrasateko Udalaren erabakiarekin: ikastetxe berria egokituko diete Arrasaten, oraingoa baino handiagoa. "Guztiok gaude oso pozik. Egoera izugarri larrian gaude, eskola txiki geratu da-eta. Batzuei esan behar izan diegu lekurik ez genuela; eta ikustea jendeak ikasteko gogoa duela eta esan behar izatea ez dagoela lekurik… Orain hamaika urte inguru hasita, zuzendari guztiek eskatu dute egoitza berria", kontatu du Lourdes Jauregialtzok, Helduen Heziketa Iraunkorreko zuzendariak.

Helduen heziketak Arrasaten dituen datuak begiratzea besterik ez dago euren beharra benetakoa dela ikusteko: 360 ikasle eta 15 irakasle dira. "Gaur egun ditugu hiru ikasgela; eta liburutegia ezin dugu erabili liburutegi moduan, ikasgela moduan erabiltzen dugulako. Bestalde, aprobetxatuz ikasgelak ere baditugula Eskoriatzan eta Aretxabaletan, haiek ere erabiltzen ditugu. Hala, jende askok Arrasatetik mugitu behar du Aretxabaletara edo Eskoriatzara".

**ERDIGUNEAN**

Ikastetxearendako lokal berriari dagokionez, berriz, kokagune egokia iruditu zaie Arrasate pasealekua: "Egoitza erdialdean gura genuen; San Andrestik, Zigorrolatik… guztiongandik antzerako distantziara egoteko".

Zer behar duten ere jakinarazi diote Udalari: irakasle-gela egokia, zuzendaritzarendako lekua, liburutegi ederra, informatika gela hobea… eta, jakina, ikasgelak.

Arrasateko Udalak, beraz, proiektua idazteko lanak adjudikatuko ditu lehenengo, gero egokitzapen obrak egin ahal izateko. "Aurten hasteko asmoa" dutela jakinarazi dute Hezkuntza Sailetik. "Baina hastapenetan dago oraindik", zehaztu dute.

Obra horiek egin ahal izateko zifra ere aurreikusi dute: 686.000 euroko inbertsioa. "Baina ez dakigu oraindik horrenbeste izango den; gero ikusi behar", diote Hezkuntzatik.

**BEHARREN ARABERAKO ESKAINTZA**

Bien bitartean, Iturriotzen segituko dute helduak hezten; izan ere, eskaera handia dute Arrasaten, eskaintza baino handiagoa, EPAren kasuan: "Bigarren matrikulazioa ezin izan dugu guztiz zabaldu, lekurik ez dagoelako, eta batzuei esan behar izan diegu irailera arte itxaroteko", dio zuzendariak.

Izan ere, urteekin eskaintza asko handitu da EPAn, "bizimoduaren beharretara egokitu" dutelako. Adibidez, atzerritarrendako eskaintza ere badute: "Hasi ginen gaztelera ematen, eta denborarekin ikusi dugu behin hori ikasita askok gura dutela euskara ere ikasi. Hori ematen hasi eta egundoko arrakasta du…", diote.

Batzuk ikasteko gogoz, besteak erakusteko gertu, kontuak kontu, EPAk badirudi etorkizun sendoa duela Arrasaten.

## Garapen iraunkorra landu dute HHIko kideek Grezian

Helduen Heziketa Iraunkorreko ordezkariak Greziatik bueltatu berri dira, garapen iraunkorraren gaineko jardunaldietan parte hartuta: *Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Estrategiak Grezian.*

Beste bederatzi herrialdetako ordezkariekin batera parte hartu dute arrasatearrek. Eurekin batera izan da, besteak beste, Grezia, Holanda, Polonia, Alemania, Letonia eta Txekiako jendea.

Orain, han ikusi eta ikasitakoa helduen heziketan uztartzeko asmoa dute.



Arrasateko HHIko ordezkariak Atenasko jardunaldietan. HHI

**ELKARTASUNA** > ARDO BIRA BEREZIA

# Ardo eta pintxoen bidez, Hatirako laguntza batu

Otsailaren 27an, 18:00eatik 21:00etara ipiniko dute 'barra' Biteri plazan



Arrasate Bizirik elkarteko eta Harreman erakundeko ordezkariak. ANABEL DOMINGUEZ

**U.M.** > ARRASATE

Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak eta gobernuz kanpoko Harreman erakundeak elkartasun hitzordua egin dute datorren zapaturako. "Barra" bat ipiniko dute Biteri plazan, edari eta pintxoa euro baten truke saltzeko.

Batutakoa eta "ekimenera atxikitako tabernetan kontsumitzen den ardo botila bakoitzeko euro bat ", Haitira bidaliko dute. Arrasate Bizirik elkarteko tabernek parte hartuko dute ekimen horretan: Dublin, Hilarion, Hotel Mondragon, Iturriotz, Lorategi, Monte eta Zuk Nahi.

Barrarekin batera, bestelakoak ere antolatu dituzte egun horretarako: umeendako gaztelu puzgarriak eta musika. Ekimenok Amstel garagardoa, Viña Alcorta ardoa, Super BM eta Hiper Eroski saltokiak eta Erostegi enpresaren laguntza dute.

Antolatzaileek argi utzi gura izan dute, bestalde, ekimen honekin bat egiten dutenen laguntza lurrikarak kaltetutako umeengana iristen dela, Haitin dauden debagoiendarren eskuetara bidaliko dutelako jasotakoa; *Kalean dauden umeak salba ditzagun* proiektua aukeratu dute eta hor dihardute lanean Arrasateko Arantza Ipiñak, Aramaioko Felisa Larreak eta Oñatiko Maria Luisa Ugartek.

## oharrak

ABAROA

**> Kadizera irteera**

Abaroa erretiratuen etxetik jakinarazi dute maiatzaren 31tik ekainaren 8ra Kadizera irteera egin behar dutela. Parte hartu gura duenak izena eman behar du martxoaren 3tik 31ra bitartean. Prezioa da 560 euro pertsonako eta 250 euro aldez aurretik ordaindu behar dira. .

MUSIKA

**> Anarirako sarrerak salgai**

Datorren martxoaren 6an (20:00etan) Anari abeslariak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian, eta Udalak jakinarazi du dagoeneko sarrerak salgai daudela Kutxaren kutxazainetan. 10 euro da prezioa.

**INGURUMENA** > UDALAKO ESKOLA

# Arrasateko 650 ikasle inguru pasako dira ikasturte honetan Udalako Ingurumen Eskolatik

Joan den astean egin zuten Ingurumen Eskolakoek urteroko tramitazioa Udalarekin; bestalde, Kulturateko 'Zaborreria' erakusketa domekan itxiko dute



Eskolako egonaldia irudiko jolasarekin hasten dute ikasleek, urtero. INGURUMEN ESKOLA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
"Artikulu baten irakurri nuenez, Debagoiena da Gipuzkoatik gehien birziklatzen duen bailara eta horretan erruaren zati bat gurea ere badela esango nuke. Gure lehen ikasleek 25 urte dituzte gaur eta gurekin ikasitakoak euren birziklatzeko ohituretan eragina izan duela deritzot". Kandi Fernandez Udalako Ingurumen Eskolako zuzendariaren hitzak dira, eskola eraginkorra dela eta urtetako esperientzia dutela baieztatzen duten adierazpenak. Izan ere, aurtengoarekin, 15 ikasturte beteko dituzte eta ibarreko ikastetxe gehienek urtero aurreikusten dute klase ordutegiaren barruan Ingurumen Eskolaren kanpainarekin bat egitea.

Fernandezek jakinarazi duenez, Arrasateko ikastetxeetako 650 ikasle inguruk hartuko dute parte aurtengo kanpainan: *Mundua garbi mantendu dadin, denon artean lan egin*. Egun, DBHko bigarren mailako ikasleekin ari dira eta egiteke dauden ekintzen artean zuzendariak muralen lehiaketa aipatu du. Izan ere, kanpainaren amaierako ekintza da eta ikasitakoarekin mural bat egin behar izaten dute ikasleek; euren herria 50 urte barru nola egongo den irudikatu behar dute. Bestalde, lelo lehiaketa ere egiten dute, datorren urteko leloa aukeratzeko.

**'ZABORRERIA', AURTEN BAI**
Joan den asteko gobernu batzarrean zehaztu zutenez, Ingurumen Eskolak egin ditu urteroko tramitazioak Udalarekin. Bestalde, ikasturte guztietan herritar guztiei begira ekitaldi bat antolatzen saiatzen dira. Azkena *Zaborreria* erakusketa izan da, iaz Arrasaten jartzeko aukerarik izan ez zutena; domeka honetan kenduko dute. Iaz okupatuta egon zen Kulturate eta horregatik jarri dute aurten erakusketa.


Martxoaren 5ean, 80 urtetik gorakoei omenaldia. Irudian, iaz egindakoa. J.B.

**JENDARTEA** > ERRETIRATUAK

# Urtez urte bazkide gehiago ditu Uribarriko egoitzak

Hainbat ekintza antolatzen dituzte; 80 urtetik gorakoak martxoaren 5ean omenduko dituzte

**J.B.** > ARRASATE
Egun, 980 bazkide ditu Uribarriko zaharren egoitzak, eta Juanito Osinaga egoitzako presidenteak jakinarazi duenez, urtez urte bazkide gehiago dira: "urteroko kuota zortzi euro bakarrik direnez hainbat erretiratu etortzen dira, horietatik asko aurre-erretiratuak".

Ondo aprobetxatutako zortzi euro dira, hainbat ekintza antolatzen dituzte-eta: denetariko eskulanak –kakorratza, puntua, ehoziria...– dantza modernoak –sanba, esaterako–, pintura ikastaroak, gimnasia Iturripen... Ikastaro guztiak aditu batek gidatzen ditu. Gainera, ekintza berezirik egon ez arren, Osinagak dioenez, "leku lasaia" da eta "oso gustura" egoten dira bertan erretiratuak.

**OMENALDIA ETA SAGARDOTEGIA**
Urteko zita aipagarrietako bat da 80 urtetik gorakoei egiten zaien omenaldia. Aurten martxoaren 5ean izango da; 14:00etan bazkaria egingo dute, eta bazkalostean opari banaketa.

Martxoaren 17an, sagardotegira irteera egingo dute . Hilaren 11ra arte eman ahalko da izena; dagoeneko 66 erretiratu apuntatu dira –Osinagak dio gero askok kale egingo dutela–. Usurbileko Aginaga sagardotegira joango dira; 27 euro ordaindu beharko dira.

> ZARZUELA

## Datorren zarzuelarako entsegu egutegia zehazten hasteko bilera egingo dute gaur, 21:00etan

Arrakasta borobila izan zen azken zarzuela, *La Corte de Faraon*. Tere Gonzalez zuzendariak obraren estreinaldiaren ostean adierazi zuen halako harrerarekin "beste 57" zarzuela zuzenduko lituzkeela. Bada, hasi dira datorren zarzuela antolatzen, oraindik ere asko falta den arren. Urtero moduan lau saio egingo dituzte azaroko azken bi aste bukaeratan. Baina zarzuelak lan handia eskatzen duenez, azken emaitza denboraz hasi behar da planifikatzen.

Hala, Izaskun Murgia elkarte lirikoak elkarteko kide guztiak deitu ditu gaur, astelehena, Zerrajerako egoitzan egingo den bilerara. 21:00etan hasiko da eta entsegu egutegia izango dute berbagai; asmoa da egutegia zehazten hastea.

# Angula kiloa eta bixigu bi, pilota elkarteari esker

Joan den egubakoitzean eman ziren aditzera Arrasateko Pilota elkarteak Eguren arrandegiaren laguntzarekin antolatutako zozketako irabazleak. Angula kiloaren zenbaki saritua 3.252 izan zen eta Zigarrolako Dami Gordobilek eraman zuen saria. Bestalde, antolatzaileek bixigu bi ere zozketatu zituzten eta Rumba tabernako lagun talde bat izan zen 2.522 zenbaki sarituaren jabea. Lagun bakoitzak hamar errifa erosi zituela adierazi zuen Juanjo Arizmendiarrietak saria jaso aurretik. Pilota elkarteko ordezkaritzarik, noski, ez zen falta izan.


JOSETXO ARANTZABAL

IAMAI ANTZOKIA ARRASATE X. URTEURRENA
OTSAILA
26 Suso Seca eta Rafa de la LLAVE
MARTXOA
5 Angelito, El Largo
12 Kike Biguri
19 Miguel Lago
26 Gorka Aguinagalde "El txou de Patxi"
APIRILA
9 Sebas, El Rayo
16 "100 años de perdón"
23 Dani Fontecha
30 Cesar Bueno. Magia 2. atala
MAIATZA
1 IAMAIko X. urteurren jaia. (lehenengo aldiz Arrasaten) DJ Makala

**ZERBITZUAK** > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

# Agorrosingo igerilekuak garbitzeko itxiera datak astebete atzeratu dituzte

Aurten itxiko dituzte martxoaren 29tik apirilaren 3ra eta irailaren 20tik 25era; erabiltzaileengan pentsatuta atzeratu dute garbiketa astebete

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak onartu du dagoeneko kirol instalazioen egutegia, eta, oro har, aldaketa nabarmenik ez dagoen arren, bada bat erabiltzaileek kontuan hartu beharrekoa: hain justu ere, Agorrosin Ekintza Gunea sakon garbitzeko urtean birritan itxi egiten dute. Azken urteetan itxi izan dute Pazko Astean eta udako denboraldia bukatu eta hurrengo egunetan. Bada, aurten, aldatu egin dituzte igerilekuak, spa-gunea... garbitzeko datak. Hala, Agorrosin egongo da itxita martxoaren 29tik apirilaren 3ra; hau da, Aste Santuan, eta irailaren 20tik 25era.

Udalak hartu du erabaki hori erabiltzaileendako baliagarriagoa izango delakoan. Hain justu, ikasleek jai izaten dute Pazko Astean, eta, besteak beste, igerilekuak erabiltzeko aukera eman nahi zaie. Iraileko garbiketari dagokionez ere, bat egin izan du orain arte San Martin jaiekin eta herritar askok jai izaten dute egun horietan. Bada, aurten, jaien ostera atzeratu dute garbiketa, jai duten herritarrek Agorrosin erabili ahal izan dezaten.

Osterantzean, Agorrosin egongo da zabalik orain arte bezala, astelehenetik domekara: astegunetan, 07:00-22:00 ordutegian; zapatu eta zubietan, 09:00-14:00 eta 16:00-20:00; domeka eta jaiegunetan, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00; eta abuztuan, 09:00-21:00 ordutegian.

**HAURTXOENDAKO IKASTAROA**

Sei hilabetetik hasi eta 36ra arteko umeendako ur estimulazio ikastaroa ere aurreikusi du Kirol Zerbitzuak aurtengo. Hiru helburu nagusi ditu: umearen garapen psikomotorra; guraso eta umearen arteko harremanak garatzea ur ingurunean; eta haurrak bizipenak eta estimuluak jasotzea. Izenematea izango da martxoaren 1etik 17ra. Ikastaroa hasiko da apirilaren 10ean eta iraungo du hiru hilebete.



Hainbat lagun ageri dira argazkian, zorua garbitzen. Igerilekua hustuta egiten dituzte lanok. JOSETXO ARANTZABAL

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Txorimalo lehiaketako baldintzak kaleratu ditu Jardun euskara elkarteak

Izena eman daiteke martxoaren 18ra arte; Erramu-zapatuan jakinaraziko dute irabazlea

M.B. > BERGARA

XVI. txorimalo lehiaketa abiarazi du Jardun euskara elkarteak. Martxoaren 27an izango da, Erramu-zapatuan.

Nahi duen edonork har dezake parte, bakarka zein taldeka –gehienez, zortzi lagun taldeko–. Izenematea da martxoaren 18ra arte, Jardun elkartearen egoitzan edo 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefono zenbakietan.

Txorimaloa egiteko edozein material erabili ahal izango da, baina txorimalo bakoitzak oinarri edo ardatz bat eroan behar-ko du, lurrean tinko eta zutik egon dadin. Txorimaloarekin batera, euskara bultzatzen lagunduko duen esaldi bat aurkeztu behar da eta esaldi hori ere martxoaren 18a baino lehen aurkeztu beharko da.

**LEHIATZEKO HIRU MAILA**

Lehiaketa, adinaren araberako hiru taldetan banatu dute: 12 urtetik beherakoak, 12-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Sariei dagokienez, honakoak izango dira: 12 urtetik beherakoen kasuan, lehenengo hiru sarituendako Gasteizko bolatokira irteera, apirilaren 17an; eta 12-60 urte artekoei eta 60tik gorakoei dagokienez, lehen sarituek jasoko dituzte 90 euro eta bigarrenek, 60 euro.

**SARIKETA ERRAMU-ZAPATUAN**

Lehiaketara aurkeztutako txorimaloak ikusgai egongo dira Erramu-zapatuko ferian, Ibargarai kalean, 11:30etik aurrera. Sari ematea ere Erramu-zapatuan egingo dute, 13:00etan.

> HITZALDIA

## Martin Mendizabalek euskararen jatorriaz jardungo du

Martin Mendizabalek *Euskararen jatorria* delako hitzaldia egingo du otsailaren 25ean, eguena, 19:00etan, kultura etxean. Batik bat, toponimiari emango dio garrantzia Mendizabalek hitzaldian. Lurraren eta gorputzeko atalen arteko uztarketa egingo du Arantzazuko abadeak hitzaldian eta euskara nondik datorren baino gehiago, euskararen berbak nola sortzen diren azalduko du zaldibiarrak. "Silabario eta soinu ezberdinetan euskararen jatorria aurki genezake", dio Martin Mendizabalek.

Mendizabal abadeak egingo duen hitzaldia Jardun euskara elkarteak antolatu du.

> HITZALDIA

## Kirolaren eta osasunaren gaineko bi berbaldi asteon

Kirolak gorputzaren kanpoko aldea moldeatzen duela jakinekoa da, baina zer gertatzen da barruko aldearekin? Ideia horren bueltan bi hitzaldi egingo dituzte asteon Ane Remedios eta Ane Coranti fisioterapeuta eta uroginekologian eta errei-digestioan adituek.

*¿Te conviene el deporte que practicas…?* delakohitzaldia egingo dute bihar, otsailak 23. Hilaren 25ean, berriz, *Una alternativa: gimnasia abdominal hipopresiva* delako berbaldia egingo dute.

Biak ala biak 18:00etan izango dira, Miguel Altuna insitutuan, eta sarrera doan izango da. Hizlariek herritar guztiak gonbidatzen dituzte hitzaldiotara.

> IKASTAROAK

## Interneteko erabilerak ikas daitezke KZgunean

Martxoko ikastaroen egitaraua kaleratu berri du KZguneak. Ohi bezala, Interneteko erabilerak ikasteko hainbat ikastaro egongo dira eta dagoeneko eman daiteke izena, 943 08 25 98 zenbakian edo *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera idatzita.

Martxoan egongo dira ikastaro hauek: Internet+e+Administrazioa, Youtube, Google itzultzailea eta Euskalterm, Softonic, Google albisteak eta alertak, Google eta Maps Earth, Gmail, Skype, Google calendar, zuhaitz genealogikoa, Picnik, web edukien sindikazioa eta Google reader eta JayCut.




Udako merkealdi sasoian ere egin zuten azoka txikia Bedelkarkoek. GOIENKARIA

**MERKATARITZA** > MERKEALDIA

# Bedelkarkoek merkealdiko azoka txikia egingo dute

## Hilaren 26an eta 27an izango da eta generoa denda aurrera aterako dute, herritarren bistara

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bedelkarko dendariek kalera aterako dituzte, beste behin, euren produktuak. Hain justu ere, merkealdiko azoka txikia egingo dute datorren aste bukaeran; egubakoitz eta zapatuan, hain justu ere. "Merkealdiak hil bukaeran amaituko dira, eta denboraldiko azkeneko pagotxak izango ditugu salgai", azaldu du Bedelkarko, herriko merkatarien elkarteko, lehendakari Maria Eugenia Igartzak.

Igartzak esandakoaren arabera, 60 bat dendak hartuko dute parte azoka txikian, nahiz eta zenbaki zehatza ematea zaila den: "Ekimenean parte hartzen dute nahi duten elkarteko dendek, izena eman beharrik ez dago".

**GENEROA KALERA**

Generoa herritarren bistara, dendaren aurreko aldean jarriko dute merkatariek hilaren 26an eta 27an. Auzoetako zein periferiako denden kasuan, erdigunera hurbiltzeko aukera izango dute. Horretarako, karpak egokituko dituzte Domingo Irala kalean, euren generoa han saltzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, egunean zehar Musika Eskolako gazte txaranga ibiliko da kaleetan barrena.

**KALEKO GIROA PIZTU**

Bedelkar elkarteak egiten duen halako hirugarren azoka txikia da datorren aste bukaerakoa. Ekimen horren zein azken boladan antolatzen diharduten beste hainbaten helburua da kaleko giroa piztea, elkarteko kideen esanetan.

**KULTURA** > IPUINAK

# Ipuin kontakizuna egongo da eguenean Pol-Polen

## Margarita del Mazo Toledoko ipuin kontalariak egingo du emanaldi hori

**M.B.** > BERGARA

Pol-Pol tabernan egoten diren askotariko ikuskizunen artean, hilaren 25ean, eguena, ipuin kontalaria entzuteko aukera egongo da, 22:30ean.

Hain justu ere, Toledoko Margarita del Mazo ipuin kontalariak egingo du emanaldia eta eskainiko du *Cuentos mal contados* ipuin saioa.

**NARRAZIO ZIRKUITUA**

Oihulari Klown antzerki taldeak antolatu du eguenean Pol-Polen egongo den ipuin emanaldi hori. Talde horrek azkeneko urteetan Euskal Herriko hainbat herritan ahozko narrazio zirkuitua antolatu eta bultzatzen dihardu. Bada, gauza bera egin du aurten ere. Hori horrela, urtean barrena hainbat saio ikusi ahal izango dira herrian.



Margarita del Mazo ipuin kontalaria. GOIENKARIA

> KULTURA

### Bihar, martitzena, da azkeneko eguna Musika Eskolak antolatutako tailerrean izena emateko

Musika Eskolak antzerki tailerra antolatu du otsailaren 27an hasi eta martxoaren 27ra arte, zapatuetan, 10:00-13:00 ordutegian. Tailerra zuzenduta dago 15 urtetik gorakoei, eta oinarrizko baliabide eta teknikak erakutsiko ditu Aitziber Garmendia aktoreak. Izenematea bukatuko da bihar, martitzena. Bi bide daude horretarako: 943 76 57 80 telefono zenbakia eta *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidea. Tailerraren prezioa da 35 euro Musika Eskolako ikasle eta bazkideendako eta gainontzekoendako, 50 euro.

**JAIAK** > ARATUSTEAK

# Aratuste jaietako balorazio positiboa egin dute Udaleko Kultura arduradunek

## Egin duen hotzari aurre eginez izandako herritarren partehartzea azpimarratu dute; baita zapatuko giro polita ere

**M.B.** > BERGARA

Aratusteak bukatu dira eta balantzea egiteko ordua iritsi da. Bada, balorazioa egiterakoan, pozik azaldu dira Udaleko Kultura arduradunak. Ekitaldi guztiak ondo bidean joan dira eta herritarren parte-hartzea ere ona izan da: "Aste bukaeran hotz handia egin zuen, eta, hala eta guztiz ere, jendea kalera atera zen. Giro polita egon zen zapatuan", esan du Kultura zinegotzi Enara Minguezek.

Horren haritik, azokan zapatu gauean egindako herri afaria ere azpimarratu du Minguez zinegotziak: "Aurten, lehenengoz, azokan egin da afaria eta leku egokia iruditu zaigu. Datorren urtean ere han egingo dugu, ziurrenik. Hori bai, afalostea luzatu egingo dugu. Gauerdi aldera geneukan jarrita azoka lagatzeko ordua, baina jendea gustura zegoen eta han denbora luzeagoa emateko gogoz geratu ziren. Hortaz, irteera ordua aztertzekoa da datorren urteari begira". Bestalde, ia 300 lagun batu izana ere pozgarria da zinegotziarentzat.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldiari dagokionez, berriz, badirudi aurreko urteetako *boom*-a baretu egin dela: 16:00etako emanaldiko 100 txartel geratu ziren saltzeko. 18:30eko emanaldikoak, berriz, guztiak saldu ziren.

**oharrak**

IKUSKIZUNA

**> Musika emanaldia egingo dute Mizpirualde egoitzan**

Nagusilan elkarteko kide Roberto Alvarezek eta Jose Ignacio Muruak egingo dute, egoitzako nagusiendako. Otsailaren 24an izango da, eguaztena, 17:00etan.

ZOZKETA

**> Ipintza institutuko bost otarre emateke geratu dira**

Aratuste-zapatuan ikas bidaiarako dirua batzeko hamar otarre zozkatu zituzten Ipintzako ikasleek. Bada, bost oraindik emateke daude. Zenbaki sarituak dira: 83, 366, 420, 496 eta 614.



**ELKARTASUNA** > DATUAK

# Hermansoloñak 7.057 kilo material jaso ditu Haitirako

Bidebarrietako lokalean batu dutenaren ia erdia elikagaiak izan dira

Guztia kamioi baten bidali dute Beasaingo Herriak Elkarlanean GKEren egoitzara



Bidebarrietako lokalean batu dute Haitirako materiala; elikagaiak jaso dituzte gehien. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak Beasaingo Herriak Elkarlanean GKErekin batera egindako kanpainak erantzun ona izan du herritarren artean. Bi astean, urtarrilaren 25etik otsailaren 6ra, 7.057 kilo material batu dituzte Haitira bidaltzeko. Guztia kamioi baten eraman dute Beasainera. Handik bidaliko dute Haitira edukiontzi handietan.

**UDAKO ARROPA ASKO**

Hermansoloñako kideak oso pozik daude herritarren parte-hartzearekin. Jaso dituzten 7.057 kiloetatik ia erdia, 3.268, elikagaiak izan dira: besteak beste, 720 kilo arroz, 455 kilo dilista, 460 kilo pasta, 288 kilo txokolate, 258 litro olio eta 240 kilo garbantzu.

Haitirako batu duten material guztia kaxatan sartu dute. Guztira, 389 kaxa bete dituzte. Horietako gehienetan elikagaiak sartu dituzte. Bestalde, 84 kaxatan oherako-arropak sartu dituzte: besteak beste, izarak eta mantak. Gainera, udako arropak ere eskatu zituzten,eta guztira 120 kaxa bete dituzte horiekin.

Era berean, oinetakoekin 12 kaxa bete dituzte (umeenekin zortzi kaxa eta helduenekin lau). Gainerako kaxetan, oihalak, sendagaiak eta umeendako pixoihalak sartu dituzte.

**TXOKOLATE-JANA**

Aratuste-martitzenean parrokiako Misio taldeak egindako txokolate-jan solidarioan 600 euro batu zituzten. Diru hori eta herritarrek egindako gainerako ekarpenak materiala Haitira eroan ahal izateko garraioa ordaintzeko, eta sendagaiak eta ur-araztegiak erosteko erabiliko dituzte. Guztira, 40.000 euro baino gehiago batu dituzte.

KANPAINAKO DATUAK

**3.268** KILO

Guztira batutako 7.057 kiloetatik 3.268 elikagaiak izan dira. Batez ere, arroza, lentejak, pasta, kontserba-latak, txokolatea, garbantzuak eta olioa batu dituzte.

**389** KAXA

Jasotako material guztia kaxatan sartu dute Beasaingo Herriak Elkarlanean GKEra bidaltzeko. 389 kaxa erabili dituzte, gehienak elikagaiak sartzeko.

**600** EURO

Hori da parrokiako Misio taldeak Aratuste martitzenean egindako txokolate-jan solidarioan batutako dirua. Haitiko lurrikaran kaltetutakoendako izango da.

**ERAKUSKETA** > 'HEGALETAN'

# Ingurumena 50 argazkitan bilduta

Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga bergararren erakusketa ikusgai kultura etxean

**M.B.** > OÑATI

Natura eta ingurumena dira kultura etxean dagoen erakusketaren protagonistak. Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga bergararrek egindako erretratuetan naturaren alderdi guztiak ikus daitezke. *Hegaletan* erakusketa domekara arte egongo da ikusgai, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

**IZOTZ-ESKALADA**

Canterok eta Gurrutxagak elkarrekin egindako 50 erretratu jarri dituzte erakusketan. Argazkietako batzuetan elurra da protagonista; Urbia eta Arbelar inguruetan egindako argazkiak dira. Era berean, izotz-eskaladari buruzkoak daude. Guztietan, natura eta ingurumena dira nagusi.



Herritar bat *Hegaletan* erakusketako erretratuak ikusten. MIREIA BIKUÑA

## oharrak

DEIALDIA

**> Deustuko ikasketen eskaintzari buruzko hitzaldia**

Txantxiku ikastolak Deustuko Unibertsitateko ikasketen gaineko hitzaldia antolatu du biharko. Deustuko kideek egingo dute hitzaldia ikastolako aretoan, 18:30ean.

JAIAK

**> Errekaldeko jai batzordeko kideen bilera**

Auzoko jaien prestakuntzarekin hasteko asmoz, Errekaldeko jai batzordeak bilera egingo du eguaztenean kultura etxean, 19:00etan.

DEIALDIA

**> Ingurumen Asteko hitzaldiak eta dokumentala**

Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Asteko hitzaldiak bihar, etzi eta egubakoitzean izango dira kultura etxeko zinema aretoan, 19:00etan.

Bihar, *Antartika, laborategi-kontinentea* delako hitzaldia egingo du Hidrologian katedradun Iñaki Antigüedadek. Etzi, *Flysch; Haitzen haitza* dokumentalaren gainekoak kontatuko ditu Asier Hilariok. Azkenik, egubakoitzean, Praileaitz eta Arantzazuko aztarnategien gaineko hitzaldia egingo du Xabier Peñalverrek.

DEIALDIA

**> Antartikari buruzko dokumentala zineklubean**

Egueneko zineklub emanaldia Ingurumen Asteko egitarauaren barruan egingo dute. Hain zuzen, Werner Herzogen *Antartida. Encuentros en el fin del mundo* dokumentala emango dute, 20:00etan hasita.

BIRZIKLAPENA

**> Baserrietako plastikoak batuko dituzte bihar**

Oñatin lau puntutan jasoko dituzte plastikoak: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta ETEO ikastetxearen atzealdean. Besteak beste, siloa estaltzeko eta belar boletako plastiko beltza; berotegietan erabiltzen den plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria batuko dituzte.

DEIALDIA

**> Arrantzako federatu txartelak eskatzeko epea**

Interesatuek bi aukera dituzte: eguaztenetan Pago-Uso elkartean, 20:00etatik 21:00etara; edo Ugarte ileapaindegian, egunero.

DEIALDIA

**> Asis sarearen otoitzaldia**

Asis sareko kideek otoitzaldi-bilkura egingo dute eguenean Bidaurretako elizan, 19:30ean.

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Kultura Plana abian jartzeko lehen pausoak eman dituzte

Kultura batzorde herrikoia eta bi azpibatzorde sortzea da asmoa: dinamizaziokoa eta jaietakoa

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Udalak batzarra deitu zuen joan den eguenerako, 2010eko Kultura Plana aurkezteko. Herriko musika, dantza eta kultura taldeek zuten hitzordurako deia, baina ordezkari gutxi batu ziren.

**HERRIKO KULTURA SAREA OSATU**
Kulturaren gaineko hausnarketa egin zuen iaz Udalak herritarrekin batera eta lau lan ildo zehaztu zituzten orduan: harremanak sendotzea Udalaren eta elkarteen artean; Arkupe herritik kudeatzea; kulturarako lokalak berrantolatzea eta herriko kultura eskaintza hobetzea.

Lau ildo horiek kontuan hartuta, Loramendik eta Udalak 2010erako Kultura Plana zehaztu dute. Plan horren oinarriak dira: kulturaren sistema eraiki Udalak eta kultura eragileak elkartuta eta kultura sarea osatu; kulturgintza norabide guztietara zabaldu; eta euskararen erabilera lehenetsi.

**EGITARAU BATERATUA**
Kultura Plan horren metodologia ere zehaztu dute. Batzorde politikoaren azpian Kultura batzorde herrikoia egongo da eta osatuko dute Kultura eta Euskara batzordeburuek, azpibatzordeetako kideek, Udalarekin hitzarmena duten elkarteetako ordezkariek eta Kultura teknikariak. Haien egitekoa izango da eskaintza bateratua kaleratzea eta ekipamenduak bideratzea. Eta hiru hilean behin egitarau bateratua kaleratu gurako lukete, apiril inguruan hasita.

Kultura batzordearen azpian bi azpibatzorde egongo dira: Dinamizazio batzordea –elkarteetako ordezkariak, herriko sortzaileak eta teknikaria–, proposamenak egiteko; eta Jai batzordea –interesa dutenak, auzoetako ordezkariak eta teknikaria–, jaiak antolatzeko.

Alkatearen asmoa zen batzarrean bertan sortzea Dinamizazio eta Jai batzordeak, baina, ordezkari gutxi elkartu zirenez, hurrengorako utzi zuen. Orain elkarteekin zuzenean jarriko dira harremanetan Kultura Planean parte hartzera animatzeko.



Iazko Andramaixak; egunotan hasi gura dute aurtengoak gertatzen. GOIENKARIA

**IKASTAROA**

## Autodefentsa ikastaroa egingo dute martxoan

Emakumeendako antolatu du Berdintasun Sailak eta zapatuetan da

**M.A.** > ARETXABALETA
Defentsa pertsonala lantzeko ikastaroa antolatu du Berdintasun Sailak emakumeendako –14 urtetik gorakoak–. Martxoko zapatuetan egingo dute (11:00-13:00) –6, 13, 20 eta 27–, Arkupe kultura etxean. Debalde da ikastaroa, baina leku jakinak daude; hortaz, lehenbailehen izena ematea komeni da: Arkupen edo Gizarte Zerbitzuetan. Azken eguna martxoaren 1a da.

Argibide gehiago gura izanez gero, idatzi honako helbidera: *berdintasuna@aretxabaleta.net*.

**ZELAN ERANTZUN JAKITEKO**
Arrisku egoeran edo erasoen aurrean zelan erantzun jakiteko antolatu dute ikastaroa. Adituek diote defentsa pertsonalak ahalmen psikologiko eta fisikoak ematen dizkiela emakumeei.

**ESKORIATZA** > ERRETIRATUAK

# Mus, briska, tute eta mahai joko lehiaketak aste osoan, Olazar elkarteak antolatuta

Martxoan hasita dantzan egiteko aukera izango dute erretiratuek egubakoitzetan, kultura etxeko lehen solairuan

**M.A.** > ESKORIATZA
Ekitaldi eta hitzordu asko dituzte antolatuta Eskoriatzako Olazar elkarteko erretiratuek datozen asteotarako. Astean, esaterako, mus, briska, tute, domino eta beste mahai joko batzuen txapelketak egingo dituzte.

Hainbat lagunek eman dute izena karta eta mahai jokoen lehiaketan parte-hartzeko eta taldetxo polita sortu da. Bikoteka jokatuko dituzte eta arratsaldeetan izango dira partidak.

**DANTZA EGUBAKOITZETAN**
Bestalde, martxoan hasita, hilaren 5ean hain zuzen, dantza egingo dute kultura etxeko lehen solairuan egubakoitz guztietan (18:00-20:00). Olazarko erretiratu guztiek izango dituzte ateak zabalik eta dantza gustuko duten guztiak animatu gura dituzte batzordeko kideek: "Giro polita izango da eta umore onean arratsaldea pasa gura dutenak etor daitezela beldur barik". Gainera, aditu batekin ikastaroren bat edo beste antolatzeko ere gertu daude , dantzazaleek interesa izanez gero.

**ALMADIAREN EGUNERA IRTEERA**
Maiatzaren 1ean Burgi herrian (Nafarroa) ospatuko duten Almadiaren Egunera joateko irteera antolatu du Olazarrek. Izenemate epea astean bukatuko da eta interesatuek bizkor ibili beharko dute, "dagoeneko 40 bat lagunek" eman dutelako izena. Horretarako azken egunak dira: martitzena eta eguena (11:00-12:30). Irteeraren kostua 48 euro da eta horren barruan sartzen dira: autobusa, egun osorako gidaria eta jatetxean bazkaria.

Burgin egun horretan erakusten dute sasoi baten almadietan egurrak zelan jaisten zituzten errekan, eta ikusmin handia sortzen duen jaia da. Hain zuzen, interes turistikoko jai nazional izendatu zuten 2005ean.

**KUOTA ORDAINTZEKO**
Bestalde, urteko bazkide kuota –7 euro– ordaintzeko azken egunak iritsi dira. Oraindik ordainketa egin ez duten erretiratuek aste honetan egin beharko dute Olazarren bulegora joanda martitzenean edo eguenean (11:00-12:30).



Iaz erretiratuek Castello aldera egindako irteera. OLAZAR

Garbittu
Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak




Antzuolako udaletxeko fatxadan dagoen armarria. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > JENDARTEA

# Armarriaren gaineko hitzaldiak egingo dituzte

Martitzeneko bileraren ondoren, lehenengo faseari emango diote hasiera: hitzaldien bidez herritarrak informatu gura dituzte

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Armarritik 12 kanoiak kentzeko prozesuarekin jarraitzen du Udalak; bide onetik, gainera. Joan den martitzenean herritarren aurrean egin zuten aurkezpena udal ordezkariek. "Txostenean oinarritutako aurkezpena" izan zen, Pedro Iturbe alkatearen esanetan. 15 lagun inguru batu ziren Olaran etxean.

**MARTXOAREN 9AN HITZALDIA**

Kanoiak kentzeko prozesua pausoz pauso egingo dute; hala, lehenengo fasea dagoeneko zehaztu dute. Martxoaren 9an, martitzena, 18:30ean, Torresoroan Nabarralde elkarteak hitzaldia emingo du. Azalduko dute 12 kanoiak nondik datozen: Belateko gudukoak dira.

Hurrengo hitzaldia martxoaren 16an izango da, 18:30ean, Torresoroan. Bi urte barru beteko dira 500 urte Nafarroa konkistatu zutela; hala, 1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeak emingo du hitzaldia.

Eusko Ikaskuntzako Rosa Aierbe izango da Torresoroan martxoaren 23an. Heraldika arduraduna eta Gipuzkoako armarrien inguruan aditua da Aierbe. Gipuzkoako armarrian izan diren aldaketak azalduko ditu Aierbek Torresoroan, hitzaldiei amaiera emateko.

**MAHAI INGURUA GOITB-N**

Asmoa da hitzaldietan parte hartuko dutenekin mahai ingurua egitea martxoaren 25ean GOITBn. Behin mahai ingurua eginda, lehen faseari amaiera emango zaio; hurrengoa eztabaida sortzea izango da; eta azkena, ondorioak atera eta erabakiak hartzea.

Armarritik kanoiak kentzeko prozesua Udal Gobernuak bideratu duela esan du Iturbek; hala, martitzeneko bileran, prozesuaren diseinuarekin bat ez datozela azaldu zuten hainbat taldek. "Eztabaida, gaiaren inguruan baino gehiago, prozesuaren diseinuan sortu zen", dio alkateak.

**ELGETA** > KIROLETAKO FOROA

## Squash pista eta kanpoko kantxa gutxi erabiltzen dira; Udal Pilotalekua, aldiz, asko

Kiroletako foroan udal instalazioen gaineko diagnostikoa aurkeztu dute; hutsuneak eta desorekak antzeman dituzte erabileran

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

20 urte ditu Elgetako Udal Kiroldegiak. Hausnarketarako kirol foroa zabaldu zuen Udalak irailean, eta bigarren aldiz batu da aurreko astean. Bertan aurkeztutako diagnostikoan desorekak antzeman dituzte. "Squash pista eta kanpoko kantxa gutxi erabiltzen dira", esan du Rebeka Ubera zinegotziak. "Eta Udal Pilotalekuan, aldiz, indargune bat daukagu".

**HERRI EKIMENAK, BEHERA**

Diagnostikoak argi laga duen beste gauza bat da behera egin dutela, nabarmen, kirolarekin lotutako herri ekimenek.

Hutsuneak antzemateko balio izan du diagnostikoak eta hausnarketa prozesuaren abiapuntua izango da epe ertainerako helburuak zehazteko. "Hiru lan esparru nagusi zehaztu ditugu", azaldu du Uberak. "Azpiegiturak, umeak zein gazteak eta helduak, azken horiek herri ekimenarekin edo herri militantziarekin lotuta". Uberak azaldu du foroan pertsona gutxi elkartzen direla, baina herriko kirol agente guztiak daudela bertan. "Hori oso positiboa da".

**ARAMAIO** > OSPAKIZUNAK

## II. Oroimenaren Eguna martxoaren 13ra atzeratu dute

Otsailaren 27an ospatzekoa zen, baina martxora atzeratzea erabaki du antolatzaileak, Ahaztuak 1936-1977 elkarteak

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Zapatuan, otsailaren 27an, ospatzekoa zen II. Oroimenaren Eguna martxoaren 13ra atzeratu du antolatzaileak. Horixe esan zion Goienari Asier Agirre Aramaioko alkateak egubakoitzean bertan.

Beraz, Ahaztuak 1936-1977 elkartearen eskutik martxoaren 13an ospatuko da II. Oroimen Eguna. Iazkoa Gernikan ospatu zuten. Frankismoak, errepresioak eta estatu kolpeak kaltetutakoak batzen ditu Ahaztuak 1936-1997 elkarteak. Adiskidetze eta Bakearen aldeko Gernika saria eskuratu zuen joan den urtean.

Martxoaren 13rako hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Kutsu politikoa eta jai giroa uztartzea da helburua.

**BITXIGINTZA TAILERRA**

Bestalde, zapatuan, hilaren 27n, gaztetxoei zuzendutako bitxigintxa tailerra izango da Txatxilipurdiko begiraleekin. Hitzordua da gazteen lokalean, 16:30ean. 12 urtetik gorako neska-mutilei zuzendutakoa da ekimena eta ez dago aurrez izena eman beharrik.



Gudari eta milizianoei omenaldia iaz, Santamañezarren. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > IKERKETA

## Herria mugitu egiten ote den aztertzen hasi da Aldundia

Errepide Saileko langileek hainbat lagin hartuko dituzte lau hilabetean behin

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako lurrak mugitu egiten diren edo ez jakiteko laginak hartzen hasi da Aldundiko Errepide Saila azken asteotan. Bost edo sei lagin hartuko dituzte herrian lau hilabetean behin eta ondoren, jasotakoa aztertu egingo dute. Emaitzak esku artean izateko gutxienez bi urte pasatu beharko direla uste dute Udaleko ordezkariek, gutxieneko lagin kopurua beharko dutelako horretarako.

**HODI LUZEAK SARTZEN**

Herriko hainbat tokitan sartu dituzte hodi luzeak laginak hartzeko. Lurrak zein altueratan mugitzen diren jakiteko dira hodi horiek eta norantz doazen ere esango dute. Eta jarraipena egiteko mugimendu horiei, gutxienez hiru proba egingo dituzte urtean.

**AZTERKETA LUZEA**

Gatzagarrek aspaldi zuten igarrita herriko lurrak beherantz zihoazela. Hain zuzen, hainbat eraikinetan ikus daitezke arrakalak eta pitzadurak. Eta Udalak kezka horien berri eman zien Aldundiko ordezkariei: "Guk uste genuen beheko urtegia kentzerakoan egin zutela lurrek beherantz. Adituek, baina, ezetz esaten digute, hori ez dela arrazoia", dio Eusebio Villar alkateak.

Udal agintariak gustura daude probak egiten hasi direlako, baina uste dute ikerketa luze joango dela, eta, gainera, samurrena horixe izango dela, ikerketa egitea: "Emaitzek esaten dutenaren arabera hartu beharreko erabakia izango da gaitza; seguru asko, ez da konponbide samurrik egongo-eta".




> FUTBOLA
Gazteen liga nazionaleko aretxabaletarrek puntu bat eskuratu dute > 22



> SASKIBALOIA
Arrasateko mutilek 58-77 galdu zuten La Salleren kontra, etxean > 24



> ELKARRIZKETA
Malen Ruiz de Azua atleta, harrituta Zaragozan egindako saltoarekin > 27

# Emakumezkoen lasterketa eta zikloturisten martxa, Bergaran

## GIPUZKOAKO KLASIKA

Gipuzkoako Federazioak antolatzen duen proba hau ere Bergaran egingo da, apirilaren 17an

## 29 ZIKLISTA LOKATZAN

Kimu, haur, kadete eta gazte mailetan osatu ditu taldeak Bergarako ziklismo eskolak

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Bergarako Lokatza ziklismo eskola gertu dago denboraldia hasteko: zapatuan aurkeztu zituen ziklistak eta egutegia.

29 txirrindularik ordezkatuko dute taldea oraingo denboraldian: hiru izango dira kimu edo alebinetan; sei, haurretan; eta hamarna, kadete eta gaztetan. Denak dira mutilak, haurren mailan korrituko duen neska bat izan ezik. Zapatuan, guztiak pasatu ziren Domingo Irala kalean egokitutako "oholtza" gainetik. Maillota jantzita bero handirik ez zuten pasa Bergara eta Antzuolako ziklistek, baina herritarren babesa eta berotasuna jaso zituzten bederen, herri gunean, jendartean, egindako aurkezpena izan baitzen zapatukoa. Behin aurkezpena eginda, luncha izan zuten eta txirrindulariei dituzten erronken gainean galdetu genien: podiumean egoteko aukerak ikusten dituzte batzuek; lasterketa amaitzearekin konformatzen dira, momentuz, beste batzuk.

**INOIZ BAINO HITZORDU GEHIAGO**

Erronka potoloa du Lokatzak 2010 urteari begira, inoiz baino proba gehiago antolatu behar ditu-eta: hamaika, orotara. Urterokoak izango dira horietako hainbat eta aurten lehen aldiz antolatukoak beste batzuk. Bi dira berritasunak. Emakumezkoen lasterketa da horietako bat, Bergaran lehen aldiz egingo dena aurten; Osintxun jokatuko da ekinaren 19an eta kategoria dene-tako neskek esku hartuko dute. Maiatzaren 2ko 3+5 zikloturisten martxa da beste berritasuna; kasu honetan, txirrindulariek hiru ibai zeharkatuko dituzte –Deba, Urola eta Oria– eta bost mendate igoko dituzte –Udana, Aztiri, Lierni, Mandubi eta Gorla–; hortik, probaren izena.

Bi horiekin batera, bada aurtengo egutegitik nabarmentzea merezi duen beste bat ere: Gipuzkoako klasika. Gipuzkoako Federazioak antolatzen du herri ezberdin batean aldiro eta aurten Bergaran izango da, apirilaren 17an. 2010a ez da, ordea, mahoneroen herriak lasterketa hori hartzen duen lehen aldia izango, bertan izan baitzen 1997an ere; Mikel Roldan aretxabaletarrak irabazi zuen orduan. Lokatzako ordezkariek garrantzitsutzat jo dute hitzordu hori, "Espainiako selekzio denek" esku hartzen dutelako eta "150 ziklistatik gora" batzen dituelako.

Hitzordu horiekin batera, beste zortzi jasotzen ditu aurtengo egutegiak. Martxoaren 6an jarriko da martxan egitaraua, Soraluce E.Koop sari nagusiarekin. Gipuzkoako gazte mailako proba hori izango da lehen lasterketa.

### 2010eko egutegia

| | |
|---|---|
| **Martxoak 6** | Soraluce E. Koop (gazte mailako sari nagusia) |
| **Martxoak 19** | Gorlako igoera (23 urtez azpikoak) |
| **Apirilak 17** | Gipuzkoako klasika |
| **Apirilak 24** | Labegaraieta saria (haurrak) |
| **Maiatzak 1** | Labegaraieta saria (kadeteak) |
| **Maiatzak 2** | 3+5 zikloturisten martxa |
| **Maiatzak 8** | Gipuzkoako haurrak, erlojuz kontra taldeka |
| **Maiatzak 23** | Pentekoste saria (19-20 urtekoak) |
| **Ekainak 13** | San Antonio saria |
| **Ekainak 19** | Emakumezkoen lasterketa Osintxun |
| **Irailak 19** | San Martin saria (19-20 urtekoak) |




Toki eta une jendetsuak aukeratu zituen Lokatza ziklismo eskolak denboraldia aurkezteko. Presidentea ziklistei azalpenak ematen ageri da argazkian. JOSETXO ARANTZABAL



G.A.

**Migel Angel Larrañaga** > Lokatzako presidentea

## "Izen handikoa izatera iristeko, hemendik pasa behar aurrena"

**G.A.** > BERGARA

**Migel Angel Larrañagak du Lokatza ziklismo eskolako presidente kargua. Larrañaga gustura dago osatutako taldeekin eta herritarren erantzunarekin.**

**Nola dago Lokatza momentuotan?**
Ziklisten kopurua gora doa eta kantitatetik ateratzen denez kalitatea... gustura gaude.

**Zein emaitza espero dituzu?**
Ziklista gazteak dira oraindik eta goizegi da ezer esateko, baina badaude tartean onak direnak, esaterako, Mikel Aristi: oso ondo ibili da kadeteetan. Orain gazteetara igarota, igarriko du maila aldaketa, baina ikusiko dugu. Hor dago Unai Retolaza ere.

**Zein da zuen helburu nagusia?**
Neska-mutikoei erakustea eta afizioa sortzea. Txirrindularitzan aritzeak konpromiso eta lan apur bat eskatzen du, baina gehienak euren borondatez datozenez...

**Bazkide eta laguntzaile aldetik, zer moduz?**
Bide onetik. Antolakuntza taldean jende gaztea sartzen dabil eta bazkide dezente egin ditugu neguan.




Iker atezaina baloia eskuetan hartuta, Realekoek jokaldia egin eta gero.

JOSETXO ARANTZABAL

**GAZTEEN LIGA NAZIONALA** > 24. JARDUNALDIA

# Irabaztera etorri zen Realari aurpegia erakutsi eta puntu bat lortu zuen UDAk

## Lehenengo zatian aparteko jokaldirik egin barik sartu zuen gola Realak korner baten ostean

## Berdinketa eta gero irabaztea gura zuen Realak baina etxekoek emaitzari eustea lortu zuten

**ARETXABALETA**

**1-1**

**REAL SOCIEDAD**

**Aretxabaleta** > Iker, Herrarte, Gorka, Alberdi, Mikel, Erik, Rajado, Ibai, Otxan, Jokin eta Jonan.

**Real Sociedad** > Castellanos, Martin, Bontegui, Egaña, Rodriguez, Urzelai, Sangalli, Sanz, Iparragirre, Kenan Kodro eta Oiartzun.

**Epailea** > Etxarri, bi marrazainen laguntzarekin. Lan txukuna egin zuen, baina ez zuen jokaldi guztietan asmatu eta ikusleek haserre bukatu zuten.

**Bestelakoak** > Aretxabaletako entrenatzaile Iban Rodriguezek ezin izan zuen aulkian egon, zigorra zuelako aurreko partidutik. Ikusleen artetik eman zizkien aginduak jokalariei eta hurrengoan ere halaxe egin beharko du. Partidua bukatzeko, aldageletako ate inguruan zeuden ikusleak kanpora bidali eta hesiak jartzeko eskatu zuen Etxarri epaileak.

Bestalde, partidu hasieran beharrean, bukatu eta gero atera zuten jokalariek taldeko argazkia.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Reala hartu zuten etxean aretxabaletarrek zapatu ilunkaran (17:45) eta partidu gogorra izango zela jakinik baloi guztiak borrokatzera atera ziren etxekoak. Gainera, hiru jokalari hirugarren mailan dabilen taldearekin joan ziren Santurtzira: Igor Oianguren, Julen Eraña eta Gillen Mar. Eta horien hutsunea igarri egin zuten.

Indartsu ekin zioten norgehiagokari eta aukera bana izan zituzten bi taldeek hasi orduko. Lehenengo zatian ez zuten aparteko jokaldirik egin Realekoek baina segituan erakutsi zuten arriskutsuak zirela kornerrak ateratzerakoan eta faltak botatzerakoan. Hala, 10. minutuan falta indartsua jaurti zuen Kodrok eta zuzenean langara joan zen baloia.

Etxekoek ere izan zituzten hainbat aukera, baina ez zuten asmatu Castellanosen ate aurrean. 25. minutuan aukera izan zuen Jonanek ezkerraldetik, baina jaurtiketa kanpora joan zitzaion. 30. minutuan, falta adierazi zuen epaileak Realaren alde eta Ibairi txartel horia atera. Falta justu-justu urrundu zuen Ikerrek eta kornerra ateratzerakoan iritsi zen gola. Ibai saiatu zen ate barrutik ateratzen baina buruarekin ukitu eta barrura. 39. minutuan, ostera, min hartu zuen Otxanek belaunean eta zelaia utzi behar izan zuen.

### BERDINKETAREN GOLA

Bigarren zatia hasi orduko aukera izan zuen UDAk eta gola 60. minutuan iritsi zen. Kornerra atera eta urrundu egin zuten Realekoek baina argi zeuden etxeko jokalariak eta Ibaik barrura bidali zuen.

Berdinketa eta gero Realekoak suspertu egin ziren, eta kosta ala kosta irabaztea gura zuten. UDAkoak, ostera, nekatzen hasita zeuden eta aukeraren bat edo beste izan arren nahikoa lan izan zuten puntuari eusten: 70. minutuan, esaterako, ia barruan zegoenean atera zuen baloia denfentsak. 73. minutuan, bigarren txartel horia atera zion epaileak Ibairi. Hutsune handia utzi zuen horrek zelaian, eta Realekoak gola lortzeko aprobetxatu gura izan zuten baina ez zen iritsi, zaleen pozerako.

**Iban Rodriguez** > Aretxabaletako entrenatzailea

## "Maila alde handia dago eta ahal duguna egiten gabiltza"



M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA

**Aulkitik kanpo eman zizkien aginduak jokalariei eta ondo sufrituta ikusi zuen partidua. Hala ere, bukaeran gustura azaldu zen.**

**Kosta, berdinketari eustea.**

Bai, baina oso gustura gaude; izan ere, aurrez aurre genuena Reala zen. Azken minutuetan, gainera, jokalari bat gutxiagorekin geunden eta hori igarri egiten da.

**Reala bosgarren dago eta zuek zortzigarren, baina 10 punturen aldearekin; alde handia da.**

Noski, maila alde handia dagoelako gurean. Goian daude Reala, Athletic, Alaves... eta gero gu, ahal duguna egiten.

**Gauzak ondo egin dituzuen seinale, bi urtean bi maila igotzeko.**

Bai, ohorezko gazteetatik euskal ligara lehenengo. Euskal ligan mantentzeko asmoa genuen baina oso talde polita sortu zen eta liga nazionalean gabiltza. Baina maila hau guretako gehiegitxo dela esango nuke, gazteek askotan beste lehentasun batzuk dituztelako. Otsaila, esaterako, oso hilabete txarra da: azterketak, Santa Ageda jaia, Aratusteak...

**Gaur, gainera, hiru jokalari hirugarren mailako taldearekin eroan dizkizute.**

Bai, lau kapitainetatik hiru, eta igarri egin du taldeak. Hala ere, gu harro gaude, eta irabazi egin dutela jakinik oso pozik.

**3. MAILA** > 27. JARDUNALDIA

# Lesioei eta zigorrei aurre eginez, hiru puntuak etxera

Aretxabaletako taldeak emaitza positiboa lortu zuen zapatuan Santurtziren aurka; hala, azkenaldiko dinamika apurtu dute

SANTURTZI
**1-2**
ARETXABALETA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Eden, Oianguren, Gorka, Borja, Alain, Eraña, Igartua, Perez, Imanol, Orueta eta Oinatzek osatu zuten Santurtzin hasierako hamaikakoa. Lesioak eta zigorrak tarteko, jokalari gutxirekin joan zen Aretxabaletako taldea Santurtzira; hala, beheko mailetako jokalarien laguntza izan zuen Gordobilek eta Arenazak zuzentzen duten taldeak. Laguntza eman zietenak izan ziren preferente mailako Igor Ezkibel eta gazte mailako Gillen Mar, Julen Eraña eta Igor Oianguren.

**LEHENENGO GOLA, AURKA**

Partidua aldapa gora jarri zitzaien aretxabaletarrei 30. minutuan Santurtzik gola egin zuenean. Etxetik kanpo eta galtzen hastea ez da ez hasiera ona.

UDAkoak, baina, kikildu beharrean, egoerari aurre egin eta partiduari buelta emateko gauza izan ziren. Falta bidez egin zuen Oinatzek berdinketaren gola, 33. minutuan. Eta, aldageletara joan aurretik, Iker Orueta *Piru*k egin zuen bigarren gola. Jokaldi polit batean baloia sareetan sartu eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuen Aretxabaletako aurrelariak.

Bigarren zatian Aretxabaletako mutilek oso joko ona egin zuten; atzean serio ibili ziren eta kontraerasora ondo atera ziren, min asko emanez. Gustura jokatu zutela esan daiteke. Gainera, partidua amaitzeko 15 minutu falta zirenean epaileak Santurtziko jokalari bat egotzi zuen; hala, jokalari bat gehiagorekin ibili ziren aretxabaletarrak azkeneko minutuetan.

**JARRERA ONA**

Igor Arenaza pozik zegoen jokalariek Santurtzin erakutsi zuten jarrerarekin: "Jarrera ona izan dute momentu oro; galtzen joan arren, aurpegia erakutsi dute".

Kontuan hartu, gainera, bi jokalarik 3. mailan debuta egin zutela zapatuan: Igor Oianguren hamaikakoan sartu zen, eta Igor Ezkibelek ere berdegunera salto egin zuen bigarren zatian.

**EMAITZA POSITIBOA**

Aretxabaletak zapatuan Santurtzin lortu zituen hiru puntuak oso garrantzitsuak dira, ez bakarrik sailkapenari begira, baita taldearen konfiantzarako ere.

"Emaitza positiboa lortzea oso garrantzitsua izan da; kontuan hartu, azkeneko hamar partiduetan ez ditugula puntu asko irabazi, hortaz, dinamika hori apurtzeko ezinbestekoa genuen irabaztea", azaldu zuen partidu amaieran Igor Arenazak, pozik.

Dagoeneko Aretxabaletak 30 puntu lortu ditu. Orain, sailkapeneko 17. tokian daude, eta jaitsiera postuak lau puntura besterik ez dituzte. Datorren astean, Aretxabaletak Laudioren aurka jokatuko du; sailkapenari begira garrantzi handiko partidua izango da, Laudio, sailkapenean, 18. tokian dago-eta.




JOSETXO ARANTZABAL

**Antzuolako mutilek etxean galdu zuten Zumaiakoren aurka: 2-3**

Hiru puntu baliotsuk alde egin zuten zapatuan Estala futbol zelaitik. Antzuolak ezinbestekoa zuen etxean irabaztea azkeneko jardunaldietako bolada txarra eteteko. Baina, atzera ere, ez zen posible izan: etxean, 2-3 galdu zuten antzuolarrek Zumaiakoren aurka.

Modu honetan, Antzuolak 22 puntu ditu sailkapen orokorrean eta 11. postuan dago. Datorren astean Getariaren etxera egin beharko dute bisita Unanuek eta Larreak zuzentzen dituzten mutilek.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 22. JARDUNALDIA

# Aloñak bolada ona apurtu du Trintxerpen galduta

Partidua hasi eta bosgarren minutuan 2-0 galtzen zihoazen Oñatiko mutilak

TRINTXERPE
**3-2**
ALOÑA MENDI

**A.E.** > BERGARA

Aloña Mendiko mutilek ezin izan dute eutsi azkeneko bolada ona; zapatuan, Trintxerperen aurka 3-2 galdu zuten oñatiarrek. Partidu ona jokatu zuten arren, lehenengo hamabost minutuek guztiz baldintzatu zuten neurketa.

**ATEZAINAREN AURREAN KALE**

Partiduko lehenengo minutuan markagailuan aurre hartzeko aukera paregabea izan zuten oñatiarrek: atezainaren aurrean bakarrik geratu zen aurrelaria, baina kale egin zuen.

Ondoren, Trintxerperen bi golak etorri ziren; 5. minutuan Aloña 2-0 galtzen zihoan. 2-1 hurbildu zen Aloña, baina, jarraian, hirugarrena jaso zuten. Azkenean 3-2 txukundu zuten markagailua oñatiarrek. Arregi eta Idigoras izan ziren golegileak.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 22. JARDUNALDIA

# Sentsazio ona, baina puntu bakarra arrasatearrendako

Azkargorta entrenatzailea pozik zegoen taldeak egindako lanarekin

OIARTZUN
**0-0**
MONDRA

**A.E.** > BERGARA

Joko ona eginda sentsazio onak berreskuratu zituzten zapatuan Arrasateko mutilek. Horrela laburtu daiteke Oiartzunen aurka berdegunean zerrajeroek egindako lana. Izan ere, emaitzari begiratuz gero, Karla Lekuona zelaiko markagailua ez zen mugitu: husnako berdinketarekin amaitu zen lehia.

**AUKERAK SORTU**

Mondra, batez ere, defentsan ibili zen oso ondo; erasoan, gola egiteko hiru aukera garbi izan zituzten, baina baloia ez zen sareetan sartu.

Denboraldia aurrera doanez, Azkargorta hasi da jokalari berriei minutuak ematen eta gauza berriak ikusten; hala, lau aldaketa egin zituen.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 22. JARDUNALDIA

# Bergarak beheko postuak ekidin ditu atzo irabazita

Haizea kontra izan arren, Eloy Cresporen bi golek garaipena eman zioten

EHU VASCONIA
**0-2**
BERGARA

**A.E.** > BERGARA

Irabaztea ezinbestekoa zuten mahoneroek beheko postuetatik alde egin eta sailkapenean erditik gora begira jartzeko. Hala, atzo baloiaren jabetzarekin egin ziren Manu Diazen mutilak lehenengo minututik. Gainera, lehenengo zatian haizea alde izan zuten mahoneroek; baina, izan zituzten aukeretan ez zuten golik sartu.

**ELOY CRESPOK BI GOL**

Bigarren zatian haizea kontra izan zuten mahoneroek; eta, ondorioz atzean sartu ziren. Hala, kontraerasoak aprobetxatu zituzten golak egiteko. Hain zuzen, bi gol egin zituzten: biak Eloy Crespok eta biak kontraerasoan.

"Pozik nago taldeak egindako lanarekin. Garaipena garrantzitsua da; izan ere, galduz gero, behean sartzeko arriskua geneukan", dio Diazek.



MUko jokalari Moracho jaurtiketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**LEHENENGO MAILA** > 18. JADUNALDIA

# La Salle arrasatearrak baino askoz gehiago izan zen Iturripen

Javier Zurbanoren mutilak hasieratik egon ziren markagailuan atzetik, ezinean

Beste astebetez sailkapeneko azkeneko postuan jarraitu beharko dute arrasatearrek

MU
**58-77**
LA SALLE

**MU** > Arantzabal, Anasagasti (4), Moracho (7), Balantxa (5), Anasagasti (15), Rodriguez, Igoa, Arejolaleiba (19), Barrena, Gonzalez (3), Bidaburu (3) eta Isasa.

**La Salle** > Ruiz (10), Benito (5), Muñoz (18), Gaston (3), Neira (9), Duque (6), Aurtenetxea (18), Rodriguez, Alonso (10), Rabano, Camuera (2), Dieye (2).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 12-18. Bigarren laurdena: 20-35. Hirugarren laurdena: 44-58. Laugarren laurdena: 58-77.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE
Ezinean ibili ziren etxeko jokalariak zapatuan Iturripen. La Salle taldea gehiago izan zen; ondorioz, beti atzetik ibili ziren etxekoak.

Partiduko lehenengo saskiratzea Bilboko Aurtenetxeak egin zuen; etxekoen taula, ostera, Anasagastik estreinatu zuen.

Bilbotarren nagusitasuna lehenengo minututik ikusi zen Iturripeko kantxan. Hala, Zurbanok hutsartea eskatu zuen lehenengo hamar minutuetan jokalariei aginduak eman eta haserre egiteko. MUko entrenatzailea ez zegoen batere gustura bere jokalariak egiten zebiltzan lanarekin.

**SEI PUNTUKO ALDEA**
Lehenengo laurdenean 12-18 emaitzarekin amaitu zuten; hamar minututan sei puntuko aldea atera zuten bilbotarrek. Iturripeko harmailetan bildutako zaleek animatu zuten taldea, baina ezer gutxirako balio izan zuten oihu eta txaloek.

Bigarren laurdeneko bosgarren minutuan etxeko taldeak 19-24 jarri zuen markagailua. Momentu horretan, Iturripeko giroa guztiz berotu zen; markagailuan aldea murriztu eta berriro lehian sartzeko aukera garbia zeukan MUk. Baina, momentuko itxaropena besterik ez zen izan. Etxeko mutilek burua galdu zuten eta kontraerasoan agudo irteteko asmoarekin, baloi asko galdu zituzten. Hala, Zurbanok hutsartea eskatu behar izan zuen giroa lasaitu eta akatsak zuzentzeko. Atsedenera 20-35 iritsi ziren.

**BIGARREN ZATIAN, BERDIN**
Aldagelatik bueltan jokoak bere horretan jarraitu zuen. La Salleko jokalariek aldea handitu egin zuten: 24-44, 26-46 eta 30-50 izan ziren emaitza batzuk.

Hirugarren laurdena amaitzeko minutu eta erdi falta zela Anasagastik saskiratzea lortu, eta gainera jaurtiketa libreak lortu zituen. Modu horretan, 40-55 jarri ziren markagailuan.

**HUTS ASKO**
Azkeneko laurdenean gauzak hobeto egiten saiatu ziren etxekoak, baina ordurako berandu zen. Jaurtiketa libre asko huts egin zituzten etxekoek –partidu guztian bezala–, eta hiruko saskiratzeetan ez zuten zorterik izan. Gainera, partiduaren pisu guztia Arejolaleibarengan utzi zuten, eta hark ezin izan zuen taldea aurrera atera.

Modu horretan, MUk sailkapeneko azkeneko postuan jarraitzen, du 23 punturekin. Ea datorren astean irabazterik duten!

**LIGA AUTONOMIKOA** > 18. JARDUNALDIA

# Defentsan hobetuta lehia irabaztea lortu zuen Aloñak

UPV Alava oso maila altuko taldea dela kontuan hartuta, balio bikoitza du Aloñako mutilek lortutako garaipenak

UPV ALAVA
**58-88**
ALOÑA MENDI

**A.E.** > BERGARA
Pozik, gustura, itzuli ziren oñatiarrak zapatuan Gasteizetik UPVren aurka irabazi ondoren.

Partidua ez zen batere samurra; izan ere, UPV Alava talde indartsua da. Horren adibide da sailkapenean duen seigarren postua. Horregatik, balio garrantzitsua duten bi puntu lortu zituzten oñatiarrek Gasteizen.

**HASIERA ZAILA**
Partidua, baina, ez zen oso ondo hasi oñatiarrentzat. UPV Alavak eroso jokatu zuen eta 15 puntu lortu zituen hasierako minutuetan; hala, markagailuan aurretik jarri ziren lehenengo laurden horretan.

Bigarrenen laurdenean, Xabi Igartuak zuzentzen duen taldeak defentsa gogorra egin zuen eta, erasoan lortutako puntuei esker, markagailuan aurre hartzea lortu zuen. Hori horrela, aldageletara 17 puntuko aldearekin joan ziren oñatiarrak.

Bigarren zatian, jokoaren jabe izan ziren oñatiarrak. Momentu batean erritmoa jaitsi zuten arren, berriro partiduan sartu eta ez zuten arazorik izan errenta mantentzeko.

Hala, 30 puntuko aldearekin nagusitu ziren Gasteizen.

**DEFENTSAN BIKAIN**
Azkeneko partiduei erreparatuz, Igartuak defentsan ikusten zuen taldearen ahulezia. Zapatuan, baina, jokalariek erakutsi zioten defentsan ondo moldatzen direla eta ez dutela inongo arazorik taula azpia zaintzeko. "Defentsan oso ondo aritu dira; gainera, talde guztiak egin duen lana nabarmenduko nuke", adierazi zuen partidu amaieran Igartuak. Datorren astean Getxoren bisita jasoko dute oñatiarrek Zubikoa kiroldegian.

**EUSKAL LIGA** > GAZTEAK

# Beldurtuta kantxaratzeak guztiz baldintzatu zuen Baskoniaren aurkako lehia

Zapatu goizean jokatu zuten euskal ligako gazteek partidua: 84-51 galdu zuten Ointxe taldeko mutilek

**A.E.** > BERGARA
Buruak huts egin zien zapatuan Ointxe taldeko mutilei Baskoniaren aurkako lehian. Arrasatearrek hainbat bajarekin bidaiatu zuten Gasteizera; eta, gainera, aurrean zuten taldea ikusita, beldurtu egin ziren. Hala, hasieratik guztiz baldintzatuta egon ziren arrasatearrak eta ezer gutxi egin ahal izan zuten Jose Mari Baltzategiren mutilek kantxan.

Partidu txarra, "orain arteko txarrena", Baltzategiren berbetan, zapatuan jokatutakoa. Ointxek hainbat baja zituen eta ondorioz bi taldeen arteko aldea nabarmena zen.

"Baskoniak lau jokalari bekadun zituen, eta horiei aurre egitea benetan zaila da", adierazi zuen Baltzategik.

**2,10 METROKO MUTILA**
Aldageletara 13 puntu atzetik joan ziren arrasatearrak, baina bigarren zatian alde hori asko handitu zen. Bukaerako emaitza 84-51 izan zen.

Baltzategiren ustez, buruak huts egin zien, eta baita 2,10 metroko jokalari bati aurre ezin eginak. Hala, Baskoniari kanpoko jokoa egitea galarazi zioten arrasatearrek, baina ez barrukoa.

**ARETO FUTBOLA** > EUSKAL LIGA

# Azkeneko dagoen taldeari irabazteko estu eta larri ibili ziren eskoriatzarrak

Alegria taldearen moteltasuna bereganatu zuten eta ezinean ibili ziren

Partidua bukatzeko 50 segundo geratzen zirenean iritsi zen bosgarren gola (5-3)



Eskoriatzako jokalariak Alegriaren aurka ezinean. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA
Azkeneko dabilen Alegria taldea izan zuen aurrez aurre Eskoriatzak atzo arratsaldean, etxean. Hala ere, alde handirik atera gabe eta partidu benetan eskasa jokatuta lortu zuen garaipena etxeako taldeak (5-3).

**BESTEEN AKATSAK BEREGANATU**
Eskoriatzarrek ez zuten asmatu defentsan, ezta golak sartzen ere. Kanpoko taldearen moteltasuna bereganatu zuten eta akatsak behin eta berriz egin zituzten. Bosgarren gola partidua bukatzeko 50 segundo geratzen zirenean iritsi zen, kostata iritsi ere.

Patxi Nevado entrenatzailea lur jota zegoen bukaeran: "Hiru puntuak dira garrantzitsuenak baina galtzaile moduan noa etxera". Eta gaineratu zuen halako taldeekin kontuz ibili beharra daukatela: "Halakoak oso arriskutsuak dira, euren akatsak bereganatzen ditugulako geuk ere. Hori horrela, ez dugu ezer ondo egin". Aurreko astean atsedenaldia izan zuten jokalariek eta entrenatzaileak uste du ez diela batere onik egin horrek, "guztiz lasaitu" dira-eta.

Hurrengo partidua laugarren dagoen Lagun Onak taldearen aurka jokatuko dute.

**ESKUBALOIA**

# Verkol Aloñako neskek ezin irabazi

Ies Costruccion taldearen aurka 10 puntuko aldearekin galdu zuten (18-28)

**M.A.** > OÑATI
Aurkari gogorra zuten aurrez aurre Verkol Aloñako emakume helduek –sailkapenean hirugarren dagoen Ies Construccion taldea– eta ezin izan zuten garaipenik usaindu ere egin (18-28).

Partidu eskasa jokatu zuten: defentsa lanetan eskas eta golak sartzerakoan ezin asmatu. Olatz Zabaleta atezaina bikain ibili zen, lehen zatian batez ere, baina gainerako jokalariek ez zioten gehiegi lagundu. Gainera, jendea falta zen taldean eta atseden hartzeko tarte motzak izan zituzten.

Urte berrian oraindik ez du partidurik irabazi Verkolek eta horri buelta eman gura diote oñatiarrek. Hurrengoa Zarautzen aurka jokatuko dute, hori ere etxean.

## Futbola

### 3. MAILA

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Amorebieta** | **55** | 27 |
| 2. **Real Sociedad B** | **53** | 27 |
| 3. **Portugalete** | **45** | 27 |
| 4. **Elgoibar** | **44** | 27 |
| 5. **Zamudio** | **43** | 27 |
| 6. **Beasain** | **42** | 27 |
| 7. **Cultural Durango** | **42** | 27 |
| 8. **Gernika** | **42** | 27 |
| 9. **Amurrio** | **40** | 27 |
| 10. **Basconia** | **38** | 27 |
| 11. **Arenas Getxo** | **35** | 27 |
| 12. **Santurtzi** | **34** | 27 |
| 13. **Leioa** | **34** | 27 |
| 14. **Lagun Onak** | **33** | 27 |
| 15. **Zalla** | **32** | 27 |
| 16. **Eibar B** | **32** | 27 |
| 17. **Aretxabaleta** | **30** | 27 |
| 18. **Laudio** | **29** | 27 |
| 19. **Retuerto Sport** | **23** | 27 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 27 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Lagun Onak-Basconia | 1-0 |
| Durango-Zamudio | 0-3 |
| Beasain-Elgoibar | 0-2 |
| Zalla-Amurrio | 0-1 |
| Santurtzi-**Aretxabaleta** | 1-2 |
| Real Sociedad B-Amorebieta | 1-2 |
| Eibar B-Retuerto Sport | 1-1 |
| Gernika-Portugalete | 0-0 |
| Laudio-Salvatierra | 1-0 |
| Arenas Getxo-Leioa | 1-2 |

Hurrengoak

**Aretxabaleta-**Laudio

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Pasajes** | **50** | 22 |
| 2. **Zarautz** | **45** | 22 |
| 3. **Aurrera Ondarroa** | **44** | 22 |
| 4. **Idiazabal** | **36** | 22 |
| 5. **Tolosa** | **33** | 21 |
| 6. **Ordizia** | **31** | 22 |
| 7. **Oiartzun** | **31** | 22 |
| 8. **Aloña Mendi** | **30** | 22 |
| 9. **Bergara** | **29** | 22 |
| 10. **Berio** | **29** | 22 |
| 11. **Trintxerpe** | **29** | 22 |
| 12. **Hernani** | **26** | 22 |
| 13. **Mondra** | **26** | 21 |
| 14. **Hondarribia** | **24** | 22 |
| 15. **EHU Vasconia** | **23** | 22 |
| 16. **Euskalduna** | **23** | 22 |
| 17. **Beti Gazte** | **18** | 21 |
| 18. **Real Union** | **17** | 22 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Aurrera-Beti Gazte | 2-0 |
| Euskalduna-Berio | 1-0 |
| Trintxerpe-**Aloña Mendi** | 3-2 |
| EHU Vasconia-**Bergara** | 0-2 |
| Idiazabal-Tolosa | 2-0 |
| Zarautz-Hondarribia | 2-0 |
| Ordizia-Pasaia | 0-1 |
| Hernani-Real Union | 3-2 |
| Oiartzun-**Mondra** | 0-0 |

Hurrengoak

**Aloña Mendi-**Euskalduna
**Bergara**-Trintxerpe
**Mondra**-Hernani

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Aretxabaleta-Real Sociedad | 1-1 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Retuerto-Bergara | 4-0 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Antzuola-Zumaiako | 2-3 |
| Aretxabaleta B-Amaikak Bat | 0-0 |
| **LEHEN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Vasconia-Bergara | 3-0 |
| Irun-Mondra | 1-0 |
| **LEHEN ERREGIONALA, KOPA** | |
| UDA Arizmendi-Texas Lasartearra | 1-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Mondra-Beti Gazte | 1-2 |
| Aloña Mendi-Lagun Onak | 3-1 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA** | |
| Easo 08-Aretxabaleta B Arizmendi | 3-0 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, KOPA** | |
| Bergara-Ikasberri | 1-1 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA** | |
| Aretxabaleta Arizmendi-Kostkas | 0-3 |
| Bergara-Añorga | 1-2 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Hondarribia-Aloña Mendi | 5-0 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA, IGOERA** | |
| Aloña Mendi-Sto.Tomas Lizeoa | 3-1 |
| Arrasate-Orioko | 1-2 |
| **KADETEAK, KOPA** | |
| Elgoibar-Arizmendi | 2-1 |
| Eibartarrak-Bergara | 2-3 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Portugalete-Ford Mugarri | 22-32 |
| **EUSKADIKO SENIORRAK, EMAKUME.** | |
| Verkol Aloña- IES Const. | 18-28 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Hegialde-Soraluce BKE- | 28-25 |
| Ormaiztegi-Izarraitz Aloña | 22-20 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Arrasate-Tolosa | 35-32 |
| **FEDERAZIO SARIA** | |
| Bergara Soraluce-Rotula Studio | b.b |
| Aloña Mendi-Urola | 37-28 |
| **FEDERAZIO SARIA, EMAKUMEZKOAK** | |
| Citroem Chapime-Aiadek | 8-19 |
| Aiala-Verkol Aloña | 26-24 |
| **FORU ALDUNDIKO TORNEOA** | |
| Bergara Soral.-Urola | 29-29 |
| Urnieta-Talleres Chapime | 45-31 |
| Verkol Aloña-Egia | 16-35 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| MU-La Salle | 58-77 |
| **SENIOR AUTONOMIKOA** | |
| UPV Alava-Aloña Mendi | 58-88 |
| **SENIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Eskoriatza-Bera Bera | 47-42 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Gernika-Kanpanzar | 37-0 |



ARRASATE

# kirolarekin gozatuz, jolasean aritu ziren geure gaztetxoak

**UMEZ GAINEZKA** Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Arrasateko umeak elkartu ziren

**ESKUBALOI JOLASAK** Astero kirol ezberdin bat egiten dute. Oraingoan eskubaloi jokoetan aritu ziren gaztetxoak

**ANTOLATZAILEAK ERE LAGUN** Jokoak azaldu ez ezik, umeekin jolasean aritu ziren antolatzaileak

NAROA ODRIOZOLA> ARRASATE

Kirolari txiki asko daude geure bailaran eta horietako batzuk Arrasaten bildu ziren zapatuan. Esna-esna azaldu ziren Lehen Hezkuntzako 2.mailako ikasleak Musakola kiroldegian. 11:45ean zuten txanda Leintz Eskola Kirolekoek eta, beraz, lo egiteko astia izan zuten.

Pozik bildu ziren guztiak kantxan eskubaloi jolasak egiteko, baina jolasekin hasi aurretik antolatzaileek hainbat azalpen eman zizkieten. Kiroldegiko kantxa hiru zatitan banatu zuten eta zati bakoitzean, jolas desberdinetan jokatu zuten.

Azkenengo hamar minutuetan eskubaloian jokatu zuten gaztetxoek. Saioa bukatzean, antolatzaileen aginduz, bi ilara osatu eta elkar agurtu zuten.

Antolatzaileekin egoteko aukera izan genuen zapatuan eta azaldu zigutenez gaztetxoek partiduak nahiago dituzte jolasak baino. Gainera, kirolen artean futbola dute gogokoen, mutilek batez ere.

**KIROLDEGIAK UMEZ GAINEZKA**

Musakola kiroldegian LH 2.mailako ikasleek eskubaloian egiten zuten bitartean, gainontzeko mailetako umeak ez zeuden ohean lo. LH 3 eta 4. mailako ikasleak ere eskubaloian aritu ziren Iturripe kiroldegian. Mojategi ere umez gainezko egon zen, izan ere 5 eta 6.mailakoak 8ko futbolean jokatzen aritu ziren. DBHko ikasleak Musakolan aritu ziren saskibaloian jokatzen.



N.O.

**Gazteluondo eta Santa Teresa.** Olaia, Aitor, Iraitz, Naia, Jon, Jokin, Iker, Julen, Beñat, Iker, Olatz, Irene, Julen eta Andoni.



N.O.

**Kurtzeberri.** Zutik: Unai, Gorka, Markel eta Aritz. Makurtuta: Beñat, Axel, Julen, Julian eta Gorka.



N.O.

**Almen, Arimazubi eta Herri Eskola.** Naiara, Iker, Markel, Ekain, Kristian, Ander, Asier, Xabi, Eñaut, Aitor, Nora, Jone, Edurne.



N.O.

**Mañondo.** Zutik: Paulo, Ekaitz, Peru, Aitzol eta Aritz. Makurtuta: Ixone, Igone, Olatz eta Izaskun.

## ZERTAZ MOZORROTU ZINETEN ARATUSTEETAN?



**Olaia, Julen eta Jon**
Gazteluondo

Kiroldegira heldu bezain laster hitz egin genuen Olaia, Julen eta Jonekin. Gazteluondoko ikasleek esan zigutenez, Olaia sevillarrez mozorrotu zen aratusteetan, Julen superman-ez eta Jon gerreroz jantzi zen. Oso ondo pasatu zuten.



**Olatz eta Igor**
Gazteluondo eta Santa Teresa

Euren taldea jokatzen zegoela hitz egin genuen Olatz eta Igorrekin. Ikastetxe desberdinetakoak izan arren, talde berdinean zeuden biak. Olatz indiaz jantzi zen Inauterietan eta Igor toreroz mozorrotu zen.



**Ixone eta Eñaut**
Mañondo eta Almen

Ixoneren eta Eñauten taldea atsedenaldian zegoela aprobetxatuz, bi gaztetxo hauekin izan ginen. Adierazi zigutenez, Ixone sevillarrez jantzita joan zen Aratusteetan eta Eñaut, aldiz, drakulaz mozorrotu zen.



**Julen eta Iraitz**
Gazteluondo

Aatsedenaldian elkartu ginen Julen eta Iraitzekin, pasa berri diren Aratusteei buruz hitz egiteko. Azaldu zigutenez, eurak ere mozorrotu ziren: Julen bakeroz jantzi zen eta Iraitz Bob esponjaz mozorrotu zen.



**Andoni**
Gazteluondo

Zapatuko saioa bukatzean izan ginen Gazteluondo ikastetxeko ikasle Andonirekin. Esan zigunez, super man-ez mozorrotu zen Aratusteetan eta oso ondo pasatu zuen. Eskola kirolean bezain ondo, alegia.

Malen Ruiz de Azua > Atleta

# "Zaragozan egindako saltoa sorpresa izan zen niretako!"



Malen Ruiz de Azua Mojatekiko pistan, pertika eskuan duela. A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Oviedon jokatutako pista estaliko Espainiako txapelketan bigarren postua eskuratu zuen Malen Ruiz de Azua arrasatearrak 3,25 metroko pertika-saltoa eginda. Gero, Zaragozan Bidasoa taldearekin jokatu zuen; eta, han, Espainiako kadete mailako errekorra ontzea lortu zuen 3,48 metroko saltoa eginda. 14 urterekin, etorkizun handiko atleta da Ruiz de Azua.**

**Zorionak! Ez da marka makala lortu duzuna!**

Eskerrik asko.

**Oviedon lehenengo, eta Zaragozan gero, nola ikusi zenuen zure lana?**

Oviedon Arrasateko taldearekin jokatu nuen. Zaila ikusten nuen txapelketa irabaztea; berez, banekien Castellóko Paulak irabazi egingo zidala, baina momentu batean oso parekatuta egon ginen. Azkenean, bigarren postuarekin konformatu behar izan nuen.

Zaragozara Bidasoa taldearekin joan nintzen; izan ere, gu euren filiala gara. Egia esan, ez nuen espero hain marka ona egitea. Entrenamenduetan 3,40 eta 3,35 egin izan dut... baina 3,48 egitea sorpresa izan zen!

**Zer suposatzen du Espainiako errekorra egiteak?**

Poz handia, ez nuen sinisten egindakoa. Egia esan, momentu hartan ez nuen ezer pentsatu... baina, gero, pentsatzen jarrita lagundu didatenekin gogoratu nintzen.

**Nola hasi zinen pertika saltoa egiten?**

Orain dela hiru urte hasi nintzen pertika saltoa egiten. Lehen Arrasateko krosa egiten ibiltzen nintzen, eta hala atletismoan sartu nintzen. Hasieran *Txufi*-rekin entrenatzen nuen, baina ez dakit zela, halako batean, Jonathanekin entrenatzen hasi nintzen.

**Zer ikasi behar izan duzu? Alde handia dago korrika egitetik pertika saltoa egitera?**

Batez ere, seriotasun gehiagorekin entrenatzen dut orain; astean hiru entrenamendu egiten ditugu, eta entrenamendu bakoitzean gauza jakin bat egiten dugu.

Batez ere, teknika da ikasi behar izan dudana.

**Zer da garrantzitsua salto on bat egiteko?**

Garrantzitsuena pertika ondo presentatzea da. Hau da, pertika bere kutxan ondo sartzea. Oso altu presentatzea da egokiena, salto ondo egiteko.

Zailena, baina, airean egin behar dena da. Nik uste dut akats gehien hor egiten dudala. Egia da, baina, orain dela hiru urteko bideoak gaur egunkoekin alderatuta, igartzen dela hobetu egin dudala.

**Zeintzuk esango zenuke direla zure alde onak eta txarrak salto bat egiterakoan?**

Zaila da esatea... baina, esango nuke, abiadura apur bat badaukadala; bestalde, oraindik hobetzeko daukadana aireko fasea da. Hori teknikoagoa da.

**Arrasaten talde polita osatu duzue. Neska gazte asko eta maila onekoak, gainera, zabiltzate atletismoan.**

Bai, hala da. Arrasate eta ingurukoak gara: Lore, Izar, Oihane, Maialen... orain mutil bat hasi da gurekin entrenatzen.

Atletismoarekiko zaletasuna badago Arrasaten. Nik uste dut Jonathanek eragin handia izan duela horretan.

**Nola moldatzen zarete entrenamenduak egiteko? Neguan hemen entrenatzea ez da goxoa izango!**

Negu partean, euria delako, edo hotza delako Donostiara edo Ermura joaten gara entrenatzera. Ez litzateke gaizki egongo estalpetxo bat izatea Mojategin neguan entrenatzeko. Behin baino gehiagotan komentatu izan dugu hori!

**Zenbat entrenamendu egiten duzu astean?**

Astean hiru bider entrenatzen dugu, eta lehiaketarik ez daukagun aste bukaeran, zapatutan ere etortzen gara entrenatzera. Elikadura zaintzen dugun? Ez dugu aparteko ezer egiten; lehiaketa egunetan, ordea, beti begiratzen dugu jaten duguna.

**Aurrera begira jarrita, nora iristea espero duzu?**

Datorren urtean gazte mailako mundialak jokatuko dira eta, adibidez, polita izango litzateke horiek jokatzea. Iaz, Maialen eta Lore oso gutxigatik geratu ziren mundialera joan barik.

**Jonathan Perez da zure entrenatzailea. Zer erakutsi dizu?**

Dena. Berarekin hasi nintzen eta dena erakutsi dit. Erreferentea da. Bestalde, erreferente moduan nire adineko neskak hartzen ditut; zela egiten duten ikusi, nik ere horrela egiteko.

**"Orain dela hiru urte hasi nintzen pertika saltoa egiten, Jonathanekin"**

**"Salto ona egiteko garrantzitsuena pertika ondo presentatzea dela esango nuke"**

**"Datorren urtean jokatuko diren gazte mailako mundialetan egotea gurako nuke"**

**"Nire adineko neskak erreferente dira; nola egiten duten ikusten dut, nik ere egiteko"**



Arizmendik antolatu duen guraso mintegian ateratako argazkia. ARIZMENDI

**GURASO MINTEGIA** > KOLABORAZIOA

# Umeen ezetzak edo kasketaldiak ez dira hain hutsalak

"Ez" edo "bai" erantzun behar zaie umeei zerbait eskatzen dutenean? Horixe landu dute, besteak beste, Arizmendiko guraso mintegian

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

"Ez utzi umeari nahi duen guztia egiten" edo "mugarik jartzen ez badiozu ilargia ere eskatuko dizu" moduko esaerak sarri entzun edo esan ohi dituzte gurasoek, eta horren inguruan hitz egin dute Arizmendik antolatutako guraso mintegian. "Kasketei ez zaie inolako garrantzirik ematen, edo, bestela, garai jakin bateko garapen fasetzat hartzen dira, baina ez dira hain hutsalak, ezta hain ondorio kalterik gabekoak ere", dio mintegia zuzentzen duen Rafael Cristobal psikiatrak.

"Haurraren 'ez' baten ostean beti dago 'bai' bat. Umeak 'ez' dio aurretik ekintza proiektu bat zuelako bat ez zetorrena helduaren bizitzak markatzen dituen erritmo eta baldintzekin. 'Ez' esaten duenean matxinatu egiten da eta matxinada horretatik galtzaile aterako da beti; horixe da kasketa. Haurren ekimenei baietz esateko beldurra ere egon ohi da, eta horren arabera ekintza hori kapritxo handiagoa edo txikiagoa izango da", azaldu du.

**HAURRAREN IZAERA**

Heziketa arazo horren jatorria haur ekimena ulertzeko moduan dagoela dio Cristobalek, "baina nork du egia umearen proposamena epaitzeko? Kultura batzuek irizpide batzuk dituzte eta beste batzuek beste batzuk, baina kulturak aldatu egiten dira eta izadiak iraun egiten du. Egun, denok dakigu izadiak bere garapen legeak dituela eta garapen ideal hori da portera on edo txar baten irizpidea. Egun, heziketarako gidaliburua dugu eta zientziak dio haurraren izaera fidagarria dela".

**ADOPZIOA** > NAZIOARTEKO MAPA

## Jaitsi egin da nazioarteko adopzioen eskaera

Herrialde gutxik onartzen dituzte kide bakarreko familien adopzio eskaerak

**O.E.** > ARRASATE

Azken urteetan jaitsi egin da nazioarteko adopzioen eskaera. Horixe ziurtatu dute bai Bizkaiko Aldundiko Herrialdeen Arteko Adopzio Sailak eta baita tramite horietan bitarteko lanak egiten dituen Nafarroako Nuevo Futuro elkarteak ere.

**PROZESU LUZEAK**

Jaitsiera horren arrazoiak –%68 artekoa Nafarroan– krisia, prezioak eta prozeduraren iraupena izan dira. "Txinako umeak adoptatzeko eskaera asko izan ziren 2004 eta 2006 artean, baina 2006ko eskaera batzuk betetzeke daude oraindik", dio Amaia Urzainkik.

Bizkaiko Aldundiko Herrien Arteko Adopzio Saileko gizarte laguntzailea da Amaia Urzainki, eta hark dioenaren arabera, "eskaeren %42 eta %45 artean lortzen dute umea adoptatzea. Gainerako kasu gehienetan, bikotekideetako bat haurdun gelditzen da adopzio prozesuak irauten duen bitartean, eta zenbait kasutan gertatu da arazoak sortzea umea adoptatu gura duten herrialdean". "Gaur egun adopzio eskaera egiten duten gehienek badute seme-alabaren bat aurretik, ez da lehenengoa eta 35 eta 50 urte bitartean dituzte umea ekartzen dutenek", dio Nafarroako Nuevo Futuroko Jaione Legarrak.

Oraindik ere herrialde gutxik onartzen dituzte kide bakarreko familien eskaerak. "Vietnam, Kolonbia eta Errusian bai, adibidez, baina kide bakarra gizonezkoa bada, aukerak murriztu egiten dira. Familia homoparentalek, aldiz, ezin dute umerik adoptatu", dio Urzainkik.

**HONDAMENDIETAN EZIN**

Haitiko hondamendi naturalaren ondorioz hizpide izan da nazioarteko adopzioa. Bada, legediak dio ezin direla adoptatu hondamendia gertatu edo gerran dagoen herrialde bateko umeak.



Mutiko korear bat. MELVIN SCHULUBMAN



19:00etatik aurrera hutsik geratzen dira bulegoak. FRANZ TUNDA

**UMEAK** > JAIOTZE TASA

## Umeak izateko, langileak lehenago etxera

Lantokiko argiak zazpietan itzaltzen dituzte Hego Korean, langileak maite dituztenekin egoteko

**O.E.** > OÑATI

Hego Koreako Gobernua funtzionarioak etxera goizago bidaltzen hasi da, haur gehiago izan ditzaten. Osasun Sailaren aginduz, arratsaldeko zazpietan itzaltzen dituzte argiak, langileak lehenago atera daitezen eta denbora luzeagoa eman dezaten maite duten jendearekin. Izan ere, herrialde horretako jaiotze tasa mundu osoko txikienetakoa da; Japoniak ere gainditzen du.

Gobernuaren lehentasuna neska-mutiko gehiago jaiotzea da, herrialdea azkar zahartzen ari baita. Ondorioz, lan-esku txikia dute eta izugarri igo dira osasun zerbitzuetako gastuak. Horren aurrean zerbait egin behar delaeta, hilero errepikatuko dute bulegoetako argiak lehenago itzaltzeko esperimentua. Kontra agertu direnek, berriz, ziurtatu dute erreforma orokorra behar dela, haurrak zaintzeak eta hezteak eskatzen duen kostu ikaragarriari aurre egiteko.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> 70 ETA 80KO PUNKA**
UK Subs eta The Vibrators taldeek urteroko bisita egin dute Arrasatera > 30



**> 'LA PULGA'**
Flamenkoa, gitarra eta takoi hotsak nagusi, Aretxabaletan > 31



**> ARCO**
Muniategiandikoetxea margolari bergararra, Madrilgo ferian > 31



Txapelketan parte hartu zuten Aramaioko bi taldeak, elkarrekin, gustura azaldu ziren garaipena ospatzen Aramaioko Marixeka elkartean. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Aramaioko bertsolariak kanporaketan nagusi

**FORMAZIOA**
Arabako txapelketan parte-hartzeko bertsolari berriak sortzea da asmoa

**ARAMAIO & IZARRA**
Estilo eta maila ezberdineko bertsolariek, saio txukuna egin zuten

**MAIDER ARREGI** > ARAMAIO

Arabako koadrilen arteko lehen bertso txapelketa hasi da, eta Aramaiok ez du hutsik egin. Hasieratik da faboritoa Elosurekin batera, eta maila bikaina erakutsi zuen barikuan egindako Zuia-Gorbeialde ligako lehen bertso kanporaketan. Beteranoek, sortu berri den Izarrako bertso eskolaren aurka neurtu zituzten indarrak. Umorea eta txantxa nagusi, ederto moldatu ziren, bai Manex Agirre moduko eskarmentudun bertsolariak, baita Unai Gomez bezalako bertsolari hasiberriak ere. Marixeka elkartea topera, 50 lagun inguru elkartu ziren bertsolari, antolatzaile eta zaleen artean.

**BERTSO SORTA KOLEKTIBOA**

Etxeko taldeek prestatutako afariaren ostean, Bertso Sorta Kolektiboen lehiaketarekin hasi zuten gaua. Herri bakoitzeko taldeek bertso idatzia egin eta bertso sortak jendaurrean abestu zituzten. Lehiaketa hau taldekako bat-bateko bertso txapelketarekin paraleloan ospatzen da. Bakoitzak bere herria zeukan gaitzat eta bertso politak entzun ahal izan ziren. Aramaioren kasuan, gorriz jantzita, trikitia, panderoa eta kaxoiaren soinuarekin lagunduta, 15 lagun aritu ziren kantuan. Izarrako taldean, beltzez jantzita, hiru lagun aritu ziren, ederto asko, euren herriaren berri ematen. Epaimahaiak, baina, Aramaiori eman zion finalerdietarako pasea.

**BAT-BATEKO TXAPELKETA**

Bertso sortaren ostean, bat-bateko txapelketaren txanda izan zen. Etxeko taldean Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta Xabier Igoa aritu ziren kantuan, eta Idoia Beitia gaia jartzen. Kanpoko taldean, berriz, Zigor Enbeita, Alberto Martinez eta Unai Gomez aritu ziren bertsotan. Saio polita, eta bertsolariak gustura. Izarrakoak, bertso eskola berria izan arren, maila polita erakutsi zuten. Manex Agirre ere pozik, egindako lanarekin: "Giro ederrean, bestelako sentsazioak izan ditugu. Taldean oso ondo moldatu gara; ez dauka zerikusirik bakarkakoarekin". Bat-batekoan ere, Aramaio nagusitu zen.

Hala ere, sekulako saioa egin zuten bi taldeek. "Izarrako Unai Gomezek lehen aldiz kantatu du jendaurrean eta sekulako ausardia eta erakutsi du; meritua du. Saio txukuna egin du eta txalo zaparrada ederrak jaso ditu" nabarmendu zuen Agirrek. Asier Lafuente antolatzaileak gaineratu zuen koadrilen arteko txapelketaren helburu garrantzitsuenetariko bat Gomezen moduko gazteak animatzea dela: "Bertso zaletasuna hedatzea eta bertsolari berriak sortzea da asmoa".

**AGURRA, POLITA**

Baina zalantza gabe, jendearekin gehien konektatu zutenak Xabi Igoa eta Manex Agirre aramaioarrak izan ziren. Aramaio faboritoen artean dago liga honetan. Bertsolariak eskarmentu handikoak dira-eta. Izarrakoek abestu zieten bezala "zezen handiak zarete baina gu toreatzera etorri gara". Umorea eta txantxa giroan, Izarrakoak fin aritu ziren. Aramaioarrek agurrean, aldiz, Elosukoak zirikatu zituzten, horiek ere faborito dira-eta. Agurrean esan zuten moduan "erne! ze, hurrengoan zuek irabaztera goaz". Elosuko txokoan neurtuko dituzte indarrak martxoaren 6an. Aramaiok irabaziz gero, final erdirako pasea eskuratuko du.

ESANAK

**"Taldean gustura aritu naiz; bestelako sentsazioak izan ditut herriko txapelketan"**
**Manex Agirre** > Bertsolaria

**TXAPELKETAREN HELBURUAK**

Arabako Bertsolari Txapelketa garai ezberdinetatik pasatu da eta azken zortzi urteotan gora egin du entzule eta bertsolari aldetik. "Aldaketa behar genuen eta bi urtean behin egingo dugu txapelketa; tartean, txapelketa herrikoiak bultzatuko ditugu. Arabako Bertso Txapelketarako eskola onak izan daitezke", azaldu digu Asier Lafuente antolatzaileak.

"Bertso-koadrila ezberdinetan auzo lana sustatzea eta bertsozaletasuna sortzea da asmoa", baina, gai-jartzaileak eta epaile berriak ere sortu nahi direla gaineratu du: "Bederatzi epaile gehiago sortu dira herriko txapelketari esker". Arabako Txapelketarako prestatzea ere bada asmoa.

**KRONIKA** > UK SUBS ETA THE VIBRATORS

# 70eko eta 80ko punka bizirik

**NON:** Arrasateko 3 Aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 20.
**ZENBAT JENDE:** 200 bat lagun.
**IRAUPENA:** Hiru ordu inguru.

**IAM MACGREGOR/M.A.**> ARRASATE
Punk rock aitzindariak, UK Subs eta The Vibrators talde ingelesek emanaldi borobila eskaini zuten zapatua gauean 3 Aretoan. 70 eta 80ko hamarkadetako punk giroa gertutik bizitzeko aukera paregabea eskaini zuten ingelesek, zaleen gosea asetzeko modukoa. The Vibrators taldeak 23:00etan puntuan hasi zuen gaueko lehen emanaldia, oraindik jendea iristear zegoela. Aldiz, Disorders talde zaldibarrak bertan behera utzi behar izan zuen emanaldia, taldekide bat gaixorik zegoelako.

**THE VIBRATORS**
Ian Carnochan abeslari eta gitarra jotzailearen gidaritzapean, The Vibrators taldeak ez zuen hutsik egin. 1977. urtean sortu zen Ingalaterran The Vibrators. Oraindik ere, Carnochanen gidaritzapean talde trinkoa da. Badaki eszenatokian mugitzen eta ikuskizuna ematen. Iggy Pop *munstroarekin* egindako biran ikasitakoa barneratuta daukala garbi erakusten du zuzenekoetan.

Hala ere, bosgarren abestitik aurrera poltsikoratu zituen jarraitzaileak. Izan ere, Carnochanek onartu zigun asko afaldu zuela eta betekadaz hasi zuela emanaldia. Zaleek hasierako hoztasuna barkatuta, betiko abesti ezagun eta arrakastatsuekin gozatu ederra hartu zuten. Bi disko segidan kaleratu dituzte; batetik, Under The Radar, abesti berriez osatutako lana; eta bestetik, bertsioekin osatutakoa. Bi diskoetako abestiak eskaini zituzten punki ingelesek, ordu eta erdiko emanaldia egitera ailegatuz. *Automatic Lover* ezagunarekin, 3 Aretoko gangarrak astindu zituzten. Ondoren etorri ziren, *Baby baby* edota *No Way* abesti inkonformista.

**UK SUBS**
Eskola zaharreko punkiek pilak kargatuta dituzte. 30 urte baino gehiago eszenatokian, eta emanaldi bakoitza lehena izango balitz bezala taularatzen dute. 3 Aretoan etxean moduan daudela azaldu zigun Charli Harper beteranoak. Eta hori igarri egin zen. Dena eman zuen eta ohikoa den bezala, UK Subsen emanaldia teknikoki ia bikaina izan zen. "Oso gustura egoten gara areto honetan. Soinua ere apartekoa dauka, gure zuzenekoetarako aproposa", azaldu zigun abeslariak. Urte betean 150 emanalditik gora egin dituzte eta sasoiko daudela garbi geratu da. Jarraitzaileek gustura abestu zituzten Live in a Car diskoko abesti ezagunak.

Etorriko dira berriz Arrasatera: "Oso gustura etortzen gara Arrasatera eta Debagoienera. Berriro etorriko gara, zalantza barik", baieztatu zigun Charli Harper mitikoak.



Charlie Harperrek sasoiko daudela erakutsi zuen, beste behin. JOSETXO ARANTZABAL



The Vibrators laukote ingelesak ikuslegoa bereganatu zuen. JOSETXO ARANTZABAL

**ERAKUSKETA**

## Toribio Jauregiren erakusketa Bilbon

Abuztuaren 29ra bitartean izango dira zuri beltzeko argazkiak ikusgai

**MAIDER ARREGI** > BERGARA
Toribio Jauregi antzuolarraren argazki erakusketa ikusgai dago Bilboko Euskal Museoan. Jauregik 40ko hamarkadan ateratako argazkiak dira; zuri beltzean eta mugimendurik gabekoak, garaiko kamerek ateratzen zituzten modukoak. Bilboko Euskal Museoan, pilotari buruzko erakusketaren osagarri dira Jauregiren lanak.

**ARGAZKIEKIKO ZALETASUNA**
Toribio Jauregi 1896an jaio zen, Antzuolako Antzeta baserrian. Ez zen argazkilari profesionala baina erretratuak ateratzea gustuko zuen. Hala, Bergarako Barrenkalen zeukan drogerian atondu zuen argazki estudioa eta laborategia . Herrian gertatzen zen guztiaren partaide zen. Horri esker, ez zen ezer geratzen haren objektiboak harrapatu gabe. Baina gehienbat pilotari buruzko argazkiak egin zituen. 30 urte baino gehiagoko lanaren emaitza da. 1936an hasi eta 1969a bitartean aritu zen. Egun, Bergarako Udal Artxiboaren esku daude.

**MUSIKA** > 'OÑATI 2ZIRIK' EKIMENA

## 'Oñati 2zirik' ekimenak Debagoieneko liburutegia lagunduko du diruz

'Oñati 2zirik' ekimeneko musika taldeek saioa egin zuten zapatuan Arrasateko gaztetxean, ibarrean egin nahi duten liburutegia bultzatzeko

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE
Elkartasuna oinarri, *Oñati 2zirik* ekimeneko musika taldeek emanaldi ederra eskaini zuten zapatu iluntzean Arrasateko gaztetxean. Punk doinuek lagunduta, elkartasun giro aparta sortu zen gaztetxean. Hala, 120 lagun inguruk bat egin zuten *Oñati 2zirik* ekimenarekin. Izan ere, bertan batutako dirua Bergarako gaztetxean egiten ari diren Debagoieneko liburutegira bideratuko dute. "Pozik gaude jendearen harrera ikusita. Ekimen polit eta interesgarria da. Ibarreko liburutegia izatea da gure helburua, besteak beste", azaldu digute Oñatiko gaztetxeko kideek. Drakes, Klinesa ta kakarrastua kumunzuluan, Bitz, Ez! eta Galdu arte taldeak dira 'Oñati 2zirik' ekimena osatzen duten musika taldeak. Hala ere, atzoko jaialdian Ez! taldearen ordez, Nos la suda oñatiarrak igo ziren taula gainera.

**IBARRERAKO LIBURUTEGIA**
Bergarako gaztetxean kokatuta egongo den Debagoieneko liburutegia martxa onean doa eta dagoeneko liburu sorta ederra dutela kontatu digute arduradunek: "Jada 40 liburu inguru ditugu. Batzuk erositakoak dira, eta beste batzuk, aldiz, herritarrek emandakoak. Nahi duen orok egin dezake bere ekarpena eta ekar dezake materiala, Debagoieneko liburutegia osatuagoa izan dadin".

**KONTZERTU BIRA**
*Oñati 2zirik* ekimena osatzen duten bost musika taldeek apirila bitartean emanaldiak egingo dituzte Euskal Herriko txoko ezberdinetan.

Hala, martxoaren 6an, Mirafuentesen (Nafarroan), egingo dute emanaldia; martxoaren 13an, Oiartzunen; martxoaren 27an, Donezteben; apirilaren 17an, Azpeitian; eta apirilaren 24an, Oñatin.

Etxean emango duten kontzertuaz galdetuta, Oñatiko gaztetxeko kideek aurreratu digute sorpresaz betetako emanaldia izango dela: "Apirilaren 24an etxean, Oñatin, amaituko dugu bira eta berezia izango da. Ezin dugu ezer aurreratu baina ikuskizuna eta sorpresak izango dira". Ilusioa eta gogoa nagusi, *Oñati 2zirik* diskoa astintzen jarraituko dute musikari oñatiarrek apirilera bitartean.

**KULTURA AGENDA** > MUSIKA ETA ERAKUSKETA

## Asteon, rock-and-roll doinuak Arrasaten eta erakusketa Eskoriatzan

Barrence Whitfield eta Petti musikariak Amaia antzokian izango dira; 'Natura 2000' erakusketa, berriz, Ibarraundin

**MAIDER ARREGI** > BERGARA
Hilaren 27an, zapatuan, Amaia Antzokiko hall-ean rock-and-roll doinuak izango dira nagusi Barrence Whitfield eta Pettiren eskutik. Biek batera, talde gabe, aurkeztuko dute kaleratu berri duten lan berria.

Emanaldia 20:00etan hasiko da. Bera eta Bostoneko abeslariek, elkarrekin, euskara eta ingelesa, esperientzia eta gaztetasuna uztartuko dituzte.

**NATURA 2000 SAREA**
2010. urtea Biodibertsiatearen Nazioarteko urtea izendatu dute Nazio Batuek. Horren harira eta Eskoriatza Natura 2000 Sareko kide denez, gaiari buruzko erakusketa ikusgai dago Ibarraundi museoan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak prestatutako *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* erakusketa ibiltaria, Eskoriatzako Ibarraundi museoan dago ikusgai otsailaren 26a bitartean, barikura arte, hain zuzen ere.

Natura 2000 Sarea proiektua gurean nola gauzatzen den azaltzea da erakusketaren helburu nagusia. Interesa duten orok, martitzenetik barikura bitartean bisitatu dezakete ordutegi honetan: 09:00-14:00 eta 17:00-19:00.

**IKUSKIZUNA** > FLAMENKOA

# Emozioz betetako takoi hotsak

**NON:** Aretxabaletako Arkupen.
**EGUNA:** Egubakoitza, otsailak 19.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete pasa.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Flamenko zaleak, flamenkoa zer den ezagutu gura zutenak eta *La Pulga* bera ezagutzen zuten lagun asko elkartu ziren egubakoitz ilunkaran Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. Askoa Etxebarrieta *La Pulga* dantzari gasteiztarraren ekitaldiak ikusmina eragin zuen eta ondo baino hobeto aseta utzi zituen bai zaleak, bai *La Pulga y compañía* ikuskizunarekin gozatzera joan ziren ikusleak.

**TAKOI HOTSEN ERAKUSTALDIA**

*Penique de Malaga* abeslariak "txikitita" esan zion *La Pulga*ri aurkezpenean baina "artista handia" ere badela iragarri zuen eta ez zebilen txarto. Javi Antoñanaren gitarrak eta *Giliyo*ren perkusio doinuek uneoro egin zieten lagun takoi hotsei eta *Penique de Malaga* abeslariak une hunkigarriak eskaini zituen apurtutako ahotsarekin: *Giliyo*ren amari eskainitako kopla esaterako. Hala, flamenko garbi-garbia erakutsi zuen laukoteak: Cadizko alegriak, buleriak, *seguidillak*, tangoak… Flamenkoa gustuko dutenendako gozagarri eta ezagutzera joandakoendako harrigarri.

*La Pulga* izan zen protagonista, nahiz eta Antoñanaren gitarra doinu dotoreak ere ez geratu atzean. Nerbio hutsa da dantzari gaztea eta takoi hotsen erakustaldia egin zuen. Hain zuzen, takoi doinuek markatu zituzten dantzen nondik norakoak: batzuetan alaiak, hurrengoan hunkigarriak eta probokatzaileak ere bai. Eskuek hankei jarraitzen zieten eta aurpegiak islatzen zituen momentuan bizitako emozio guztiak, sarritan animu oihuak botaz.

Gustura zegoen Arkupeko areto txikian dantzaria eta barruko emozio guztiak kanporatu zituen *La Pulga*k. Ikusleak ere oso gustura ikuskizunarekin nahiz eta askorendako ezezaguna izan, eta txalo artean esan zioten agur laukoteari.



'La Pulga' dantzaria Arkupeko taula gainean, aurpegian emozio guztiak islatzen dituela. JOSETXO ARANTZABAL

**ANTZERKIA** > 'KRI, KRA, KRO'

# Mundua umeen ikuspegitik

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 21.
**ZENBAT JENDE:** 130 pertsona inguru.
**IRAUPENA:** Hiru ordu laurden.



Rosi eta Javi pertsonaiak Amaiako taula gainean. JOSETXO ARANTZABAL

**M.A.** > ARRASATE

Rosik eta Javik egin zieten ongietorria umeei Amaia antzokian eta, irudien eta soinuen bitartez, ume horiek munduaren gainean duten ikuspegiaren berri eman zuten. Argiak eta itzalak, soinuak eta zaratak izan ziren gidari uneoro, eta paisaia ezberdinen berri ematen zuten irudiak behin eta berriz. Rosik eta Javik eguneroko bizimoduan ohikoak diren pasarteak biziarazi zizkieten umeei. Eta Asier izan zen hirugarren laguna, pantailan agertzen zen mutikoa.

Umeek adi-adi jarraitu zituzten ikusmen jolasak eta txikienak harrituta geratu ziren, automobilak eta hegazkina etorri zirenean edota hosto bakarreko gizon-emakumeak agertu zirenean.

**UMEEN IRUDIMENA**

Paraiso taldeak 30 urtetik gorako ibilbidea du. Bideoa eta irudia antzerkigintzara egokitzeko lanetan jardun du. Gainera, antzerkiarekin, haurtzaroarekin eta hezkuntzarekin lotutako proiektuak garatzen ditu. Eta umeen irudimenera hurbildu gura izan dute oraingoan. Marc Cerfontaine egilearen irudiak dira *Kri, kra, kro* ikuskizuneko protagonista.



Manu Muniategiandikoetxea. GOIENKARIA

**Manu Muniategiandikoetxea** > Margolaria

# "Galerista on batekin, ez duzu arazorik ARCO moduko ferietan"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Manu Muniategiandikoetxea (Bergara, 1966) Madrilgo ARCO ferian izan da, Espacio Minimo galeriaren eskutik. Margolari bergararra beteranoa dugu arte garaikidearen feria ospetsuan; izan ere, 1995a ezkero ez du hutsik egin Madrilen. Era berean, *Night flight* izenburuko erakusketa ikusgai dauka Murtziako La Conservera aretoan, otsailaren 28ra arte.**

**Zer moduz ARCOn? Zer eraman duzu aurten?**

Murtziako La Conservera aretoan Rodchenkoren *Nº9* lanaren gaineko eskultura jarri dut. Bada, hango eskultura baten maketa txiki bat –altzairu herdoilgaitzezkoa– eta Murtziako muntaiako koadro bat ekarri nituen. Biak ere lehenbiziko egunean saldu genituen eta orain beste koadro bat dut erakusgai, *Mahai beltza* izenburukoa, aurretik Koldo Mitxelenan erakutsi nuena.

**Zer-nolako garrantzia daukate galeristek ARCO moduko feria baten?**

Galeristen lana ezinbestekoa da, funtsezkoa. Galerista ona baduzu, ez duzu ARCOn arazorik izango. Aurretik bost bat urte egin nituen Lourdes Fernandezekin –ARCO feriako zuzendaria gaur egun– DV galerian, eta orain Espacio Minimoko Jose Martinez eta Luis Valverderekin nabil, duela bederatzi urtetik. Oso gustura nago.

**Zer da ARCOtik gehien erakartzen zaituena?**

Neurri handi batean, lagun arteko topaketa da, aspalditik ezagutzen dugun jendearekin urtero elkartzeko aukera eskaintzen digulako ARCOk. Baina ezin da albo batera utzi jendea saltzera datorrela hona... Joan den urtean beldur handia zegoen krisia zela-eta, eta aurten ere kolokan egon da feria. Baina mugimendua badago, eta, horrez gain, gustuko dituzun artisten lanak bertatik bertara ikusteko aukera ematen dizu honek.

Gainera, ARCOtik kanpo erakusketa indartsuak antolatzen dituzte inguruan. Egunean, esaterako, Sonic Youth musika taldeari eskainitako erakusketa ikusten egon nintzen, Mostolesen.

**Murtziara eskapadatxoa ere egin duzue Madrildik...**

Bai, egunotan Arte Bienala ospatzen ari da Murtzian eta bertako Gobernuak museo zuzendariei eta bildumazaleei zuzendutako hegaldi bat antolatu zuen egubakoitzean. Ehun bat lagun joan ginen, tartean arte bisualen AV aretoa, diseinu eta arkitekturako BS behatokia eta La Conservera aretoa ikustera. Zapatuan etorri ginen Madrilera bueltan. Interesgarria izan da.

**"Lagun arteko topaketa moduko bat da ARCO, nahiz eta jendea saltzera datorren"**

**"Murtziara egindako eskapadatxoa oso ondo egon da: hainbat areto bisitatu ditugu"**


Goiena kluba
Abantailaz betetako kluba!
300 euro opari. Nahi?
http://zozketa.goienakluba.com web orrian sartu, eta bete hutsuneak, bazkide txarteleko zenbakia erabilita.
Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 28a.
GOIENA KLUBA | Telefonoa: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com

ASTE BUKAERA...

## Juanjo Alvarezekin



Juanjo Alvarez, Bergarako UNEDeko liburutegian.

MIREIA BIKUÑA

# "Literaturak lasaitu egiten nau; sarritan, aldi berean lau liburu irakurtzen ditut"

Juanjo Alvarez abokatua, irakaslea eta Bergarako UNEDeko zuzendaria da azken 14 urteotan

Astegunetan, egunero, 06:00etan jaikitzen da Zarautz eta Getaria arteko ibilbidea korrika egiteko

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Juanjo Alvarez (Zumaia, 1964) abokatua eta irakaslea da. Baina debagoiendar gehienok Bergarako UNEDeko zuzendari delako ezagutzen dugu. Azken 14 urteotan du Bergarako egoitzako zuzendari kargua.

Egunero, 08:30 aldera hasten du lan jarduna. EHUn eskolak eman eta UNEDeko ardura izateaz gain, beste lan batzuk egiten ditu; besteak beste, Cautrecases abokatu-langelan dihardu; bederatzi pertsonak egiten diharduten doktoretza-tesiak gidatzen ditu; eta Eusko Ikaskuntzan eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais) foru-zuzenbidearen gaineko aholkuak ematen ditu. Lan horrek 12 ordu kentzen dizkio. "Astelehenetik egubakoitzerako agenda beteta izaten dut, baina ez naiz kexatzen. Lan asko da, baina ez zait estresagarria egiten. Irakaskuntza eta abokatutza maite ditut. 1987an karrera bukatu nuenean hasi nintzen irakasle. UNEDen biak uztartzen ditut", esan digu Alvarezek.

Zarautzen bizi da, Leioan ematen ditu eskolak, abokatu-langela Donostian du eta Bergarara joaten da ia egunero. Kilometro asko egiten ditu. "Autoa orain dela bi urte erosi nuen, eta 80.000 kilometro ditu! Baina gidatzea atsegin dut", dio. Errepideak ondo ezagutzen ditu, eta AP-1 luxua dela dio: "Oraindik gogoan dut Zarautzetik Bergarara A-8tik etortzeko, Elgoibarko ordainlekuan irteten nintzela. Urbina-Maltzaga errepidea kaosa zen".

**LAU SEME-ALABA**

Juanjo Alvarezek emaztea, Carmen, eta lau seme-alaba ditu: Fermin 19 urtekoa, Laura 16 urtekoa, Paulo 14 urtekoa eta Kattalin 10 urtekoa. Astelehenetik egubakoitzera libre duen denbora eurekin ematen du, gehienbat afaldu ondoren. "Eguneko errepasoa egiten dut eurekin. Ez da erraza eurekin berba egitea, semeek eta alaba zaharrenak euren bizitza dutelako. Txikienarekin hartu-eman sendoagoa dut. Ohera joan aurretik hitz egiteko ohitura dugu oraindik", dio Alvarezek.

Oheratu aurretik irakurri egiten du. "Lasaitzeko eta laneko kontuak ahazteko liburuak irakurtzen ditut; gehienetan, lau batera. Une honetan, gau-mahaiaren gainean ditut Roberto Bolañoren *2.666*; Eduardo Haro Tecglen-en *El niño republicano*; Daniel Penac-en *Mal de escuela*; eta Paul Austerren azkena". Era berean, esan digu Ramon Saizarbitoria eta Muñoz Molinaren liburuak asko gustatzen zaizkiola.

**KORRIKA EGITEN DU 06:00ETAN**

Aste bukaeretan, eta egunero-egunero, 45 minutu korrika egiten du; hain zuzen, Zarautz eta Getaria arteko ibilbidea. Astegunetan 06:00etan jaikitzen da. "Niretako oso inportantea da kirola egitea. Loari ordubete kentzen diot eguna osasuntsu hasteko".

Emaztearekin mendi buelta egiten du zapatuetan. "Batzuetan, seme-alabaren bat ere animatzen da, baina jeneralean biok joaten gara bizpahiru orduko ibilaldia egitera".

### "Telebistan futbola ikusten dut; dagoen eskaintzarekin nahi dudana ikus dezaket"

Urte askoan futbolean jokatu du, azken hirurak Eibarren. Orain, futbolzalea da. Gehienbat, telebistaz ikusten du, baina Atotxan eta Anoetan egondakoa da. "Bi futbol zelaiak ezagutu ditut. Futbola zuzenean bizi izatea ikaragarria da", dio. Gaur egun telebistek duten eskaintza zabalarekin, norberak nahi duen partidua aukera dezake. "Batez ere, Reala eta Eibar jarraitzen ditut, baina beste txapelketa batzuetako lehiak ikustea atsegin dut. Bartzelonarekin gozatu egiten dut", dio. Xabi Alonsorekin hartu-eman sendoa du eta Real Madrilen partiduak jarraitzen dituela esan digu.

Futbolarekiko zaletasuna Fermin eta Paulo semeek ere hartu dute. Futbolean jokatzen dute. Laurak, berriz, saskibaloian, eta Kattalinek eskola kirolean dihardu. Hortaz, aste bukaeran txofer lanetan ibiltzen da: "Euren partiduen arabera antolatzen ditut zapatua edo domeka. Hori bai, arratsaldeetan lan apur bat egitea atsegin dut".

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Etxarri Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranazko Kalamurtxei kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bi balkoietatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezioa adosteko. Deitu 645 73 50 59 telefonora (Maite).

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai Etxarri Aranatzen, bigarren eskukoa. Hiru argi edo ikuspegirekin, lehen pisua da. Berogailua eta aluminiozko leiho bikoitzak ditu, eta guztiz jantzia dago. Hiru gela, sukaldea, sala, komuna, despentsa eta bajera trastelekua. Prezioa adosteko. Deitu 636 15 85 35 telefono zenbakira.

**Irurtzun.** Eraberritutako pisua salgai Irurtzunen. 3 logela, 2 balkoi, sukaldea jantzia. Prezioa: 150.000 euro. Deitu 699 02 03 63 telefonora.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:652 70 12 49

**Oñati.** Kale Barrian eraikitzen ari diren etxeetako bat salgai. Oso prezio interesgarria. Lehenbailehen deituz gero, dena aukeratzeko aukera. Azulejoak, komunak... Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 665 73 96 51

**Oñati.** Trianan eraikiko diren etxe berrietako bat salgai, garajearekin. 125 metro koadro. Deitu: 665 73 96 51.

### 102. EROSI

**Etxebizitza** erosiko genuke Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasaten. Hiru logela edukitzea ezinbestekoa, baita igogailua ere. 200.000 euroraino. Partikularrekin bakarrik hitz egingo dugu. 663 72 78 23.

**Altsasu.** Apartamentu edo pisu txiki baten bila nabil Altsasu edo inguruetan. Interesatuek deitu 660 33 23 63 telefono zenbakira. (Oihana).

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 636 73 54 94.

**Arrasate.** Apartamentuak ematen ditut errentan. Jantzita. Galdetu Igonegatik. 677 21 87 81.

**Bergarako** alde zaharrean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua. Altzariekin. Oso atsegina. Deitu 656 85 38 30 zenbakira.

**Hendaian** gelak ematen ditut errentan. Egonaldi luzeetarako, oporretarako edo asteburuetarako. Interesa baduzu idatzi mezu bat *davidlorea@aol.com* helbidera edo deitu 688 68 11 40.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 645 71 98 84.

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Garajea aukeran. 665 72 87 89.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Harremanetarako deitu: 615 79 27 56

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Harremanetarako deitu: 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Harremanetarako deitu: 671 33 75 54

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Harremanetarako deitu: 657 08 96 69

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil, gutxienez bi logela izan beharko luke. Hori bai, hobe litzateke hiru logela izatea. Harremanetarako deitu: 636 80 87 68

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Harremanetarako deitu: 943 76 32 85

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Donostia.** Donostian etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. 661 33 85 87

**Gipuzkoa.** Etxea edo baserria alokagai hartuko nuke Gipuzkoan. Ahal bada Donostialdetik gertu. 605 73 63 71.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 235 € hilean. 606 74 42 37

**Arrasate.** Mutil arduratsua logela bila. Lan finkoa daukat. 647 28 82 41

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. Harremanetarako deitu: 630 71 35 83

**Arrasate.** Eskola Politeknikoko 3 Erasmus ikasle gara eta pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 4 banakako logela, sukaldea, komuna, terraza handia. Unibertsitate aurrean. 200 euro + 30 euro (gastuak)hilean. Internetarekin 12 euro gehiago. Otsailetik uztailera. Interesatuok idatzi helbide honetara: *septunova.zuza@centrum.cz*, edo deitu telefono hauetara. Emilia edo Chiara. Harremanetarako deitu: 638 15 76 98 edo 638 15 77 00

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Lau logela eta bi bainugela ditu. Langileak bizi dira. Harremanetarako deitu: 653 71 44 57

**Arrasate.** Logela jantzia ematen da errentan, erdigunean. Internetarekin. Telebista, hozkailua eta abar logelan bertan. Harremanetarako deitu: 647 28 82 41 edo 943 79 74 13

**Bergara.** Bergaran etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Etxebizitza Bergarako erdialdean kokatuta dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. Interesatuek deitu zenbaki hauetara: 696 02 68 30 edo 670 40 74 53

**Debagoiena .** Bikote batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. Harremanetarako deitu: 655 74 41 60

**Etxarri Aranatz.** Logela bat alokatzen dut Etxarri Aranatzen. 655 74 79 19 .

**Oñati.** Logela hartuko nuke errentan partekatutako etxeren batean. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 635 70 07 92

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 686 02 56 56.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Martzial Agirren. Zabala da, baina ez oso sakona; hortaz, auto ez horren handiendako egokia. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 616 22 33 78.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Etxarri Aranatz.** Garaje partzela bat alokatzen da Etxarri Aranatzen. Deitu 652 26 28 18 telefono zenbakira.

**Oñati.** Garajea ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 645 71 98 84.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bolu auzoan. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 658 73 35 96.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 665 73 51 59

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 666 21 73 48

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bulegorako egokitutako 90 m²ko inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 943 76 33 56.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala hartuko nuke errentan. 250 euro ordaintzeko gertu nago. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 943 53 29 18.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. Deitu: 647 16 40 49

**Arrasate.** Hemengo neska umeak zaintzeko,etxeko lanak egiteko edo edozein lanerako prest,orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbiketa zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Interesatua bazaude deitu:699 54 17 27

**Arrasate.** Emakume arduratsuak lan egingo luke etxeak garbitzen, tabernan edota mekanika lanetan. Eli. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 630 94 68 37

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 671 71 90 03

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. Harremanetarako deitu: 637 28 58 52

**Bergara.** Pertsonak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 671 71 90 03

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. Harremanetarako deitu zenbaki honetara:686 76 22 96

**Bergara.** Bikotea gertu edozein lan egiteko. Harremanetarako deitu zenbaki honetara:645 72 92 87

**Bergara.** Larunbatetan eta domeketan egunkariak banatzen egingo nuke lan. Harremanetarako deitu zenbaki honetara:654 98 69 14

**Bergara.** Neska goiz eta arratsaldez etxebizitzak garbitzeko gertu. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. Deitu 660 57 33 92 zenbakira.

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak edo pertsona nagusiak arratsaldez zaintzeko. Itziar: Harremanetarako deitu: 695 78 22 47 edo 943 76 17 17

**Bergara.** Neska euskalduna gertu goizetan umeak zaintzeko. Astelehenetik eguenera 11:30ak arte eta egubakoitzetan 13:00ak arte. Irakaslea naiz. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 650 27 75 82

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 943 76 28 12 edo 943 76 29 52 telefono zenbakietara

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 625 11 20 71

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Harremanetarako: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte askoko esperientzia. Antonio. Harremanetarako deitu: 630 65 30 22

**Debagoiena.** Egun erdiz lan egingo nuke: umezain, garbiketa, sukalde laguntzaile... Mondragon Unibertsitatean dagoen Txekiar Errepublikako Erasmus ikaslea naiz, gaztelera ikasten ari naiz eta ingelesa hitz egiten dut. Idatzi mezu bat *septunova.zuza@centrum.cz* helbidera edo deitu 638 15 77 12 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan sukaldari aritzeko. Esperientzia daukat. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 637 12 15 18

**Debagoiena.** Pintore lanak egingo nituzke partikularrentzat edo enpresentzat. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 697 88 35 62

**Debagoiena.** Kamioi gidari baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. Deitu: 610 67 18 60

**Debagoiena.** Denbora libre luzea daukan gazte aramaioar zintzo eta esperientziaduna baso lanak zein baserriko lanak egiteko gertu. Nire materialen artean motozerra txikia daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 649 54 24 61

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. Harremanetarako deitu: 666 08 58 49

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo edozein motatako garbiketa lanak egiteko. Gainera, igeltsero-laguntzaile edo peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:697 54 28 76

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Harremanetarako deitu: 663 65 78 43

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu tabernan lan egiteko edo garbiketa lanak egiteko. Christian-engandik galdetu. Deitu: 662 08 22 03

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldetan, aste bukaeratan eta jai egunetan. Auxiliar laguntzaile titulua. Itxaso. 943 74 82 09

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
  **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**ALDIBATEKO LANA**
**Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN**
**943-16 20 48**
**Ikusi lan eskaintzak:**
**www.ikolanaldi.com**

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez telefono zenbaki honetara: 943 71 46 24

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. Interesa baduzu deitu:671 35 22 60

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak ditut. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. Deitu:637 18 07 23

**Debagoiena.** Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Umeak ere zainduko lituzke. Felisa. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 943 53 33 92

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Orduka, egun osoz zein etxean bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. 680 30 24 64

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakume arduratsua esperientzia eta informeekin gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Zerbitzari lan egiteko prest.Esperientziarekin eta tituluarekin. Deitu:671 35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu dago garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko. Deitu:691 03 25 02

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 616 38 31 64

**Durango.** 22 urteko neska umeak zaintzeko egunean zehar eta aste osoan zehar eskaintzen da. Euskara maila ona daukat. Interesdunak mesedez kontaktuan jarri.

**Goierri.** Goierrin emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 660 02 85 52

**Haurrak zainduko nituzke.** Haurrak zaintzeko prest nago, goizez eta arratsaldez. Haur hezkuntzan diplomatua naiz eta 4 urteko esperientzia daukat haurreskoletan. Deitu 628 33 31 56 telefonora. Mila esker.

**Irun.** Bidasoaldea Oarsoaldea. Emakume euskaldun jakintsu eta arduratsua, frantsesez eta espainolez dakiena, etxean idazkari zein etxeko lanetarako prest. Gidabaimena eta autoa baditut. Interesatuek deitutelefono zenbaki honetara: 622 06 33 48.

**Lakuntza.** Astelehenetik ostiralera, goizetan, Lakuntzan edo inguruan lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interesatuek deitutelefono zenbaki honetara: 653 99 80 35.

**Oñati.** Neska euskaldun oñatiarra haurrak eta etxeko gauzak egiteko prest. Arduratsua. Interesa baduzue deitu telefono zenbaki honetara: 618 09 47 87

**Zarautz.** Andre euskalduna, etxeko lanetarako prest, asteazken eta ostiralerako. Esperientzia handia. Interesatuek deitutelefono zenbaki honetara: 634 45 91 59

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. Interesatuek deitutelefono zenbaki honetara: 658 73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergaran.** Irakaslea behar da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako eskolak emateko. Eskolak eguerdian jaso nahi nituzke. Interesatuek deitutelefono zenbaki honetara: 639 03 43 58.

**Bergara.** Matematikazko eta euskarazko eskola partikularrak emateko norbait behar dut. 6. maila. Interesatuek deitutelefono zenbaki honetara: 652 75 68 95

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 696 37 92 29

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Interesa baduzu jarri harremanetan telefono zenbaki honetan: 630 71 35 83

**Arrasate.** Arrasate edo Aretxabaletan batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 653 01 76 67

**Arrasate.** Goi maialako ingeniritza ikasten dabilen neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Deitu 606 88 94 20 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:654 94 87 26

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. 648 06 79 85

**Bergara.** Aleman Filologian Lizentziaduna eta irakaslea naiz. Ingeles eta aleman eskolak emango nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara:660 52 25 01

**Bilbo.** Aupa! Bilbon ikasten duen gazte donostiar bat naiz, eta edozein lan (batik bat tabernari edo haur eta gazteak zaindu eta irakastea) egingo nuke, aste barruko arratsaldez, Bilbon.

**Gernika-Lumo.** Klase partilularrak emango nituzte Gernika zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozeingauzarako deitu inolako konpromiso barik telefono zenbaki honetara: 680 53 84 82.

**Oñati.** Ingeniaritza ikasten dabilen neska arduratsua Oñatin eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldetan. 667 52 83 29

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 664 16 02 68

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660 33 77 16 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Esneko arkumeak.** Esneko arkumeak saltzen dira, hilabetekoak, baserritik zuzenean. Debagoienean. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 687 06 04 34

**Txakurra salgai.** Mastin arrazakoa. Gaztea. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara:943 79 62 63

**Zaldi hispaniar-arabiarra salgai.** Monturakoa. 7 urte. Zuria. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 616 00 34 29

### 703. EMAN

**Arratoi txakurra** ematen da. 943 79 62 63.

**Setter ingelesa** ematen da opari, ezin dudalako zaindu. 10 hilabete ditu. 646 47 58 84.

### 704. BESTELAKOAK

**Bergara.** Bost hilabeteko txakurra galdu nuen orain dela hiru aste. Mikrotxipa du eta 'Tekel' du izena. 150 eurorekin sarituko dut. 651 70 72 40.

**Txakur txikitxoa** aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. 620 61 91 34.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Hiru plazako sofa beixa (300 euro), sarrerako altzaria (100 euro) eta kristalezko mahai luzagarria (100 euro). Ia berriak. Indesit garbigailua, 2009koa, 100 €. 635 74 27 43.

**Bizikleta estatikoa** salgai. Sinplea, arina eta berria. 670 08 12 16.

**Boxeorako** zakua salgai. Debagoienean. 638 89 78 76.

**DJ maleta.** Technics DJ maleta saltzen dut. 80 binilorendako lekua. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 648 06 79 85.

**DVD** erreproduzitzaile unibertsala, Best Buy LTD sintonizatzaile eta guzti. USB bidez telebista grabatu eta multimedia edukiak ikus daitezke. Erabili gabea. 40 euro (dendan 60 euro). Easy Home Combo Rec markakoa.Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 659 55 27 16.

**Ezkontza soinekoa salgai.** 38 40 neurrikoa. Harremanetan jartzeko deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 635 70 07 92

**Eskiak salgai.** Dynastar Vitesse etxekoak, Lookfijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60eruo. Eskiatzen hasteko oso aproposak. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 690 83 98 53

**Eskiatzeko ekipo berria salgai.** Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40 41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 690 83 98 53

**Eskiatzeko trajea salgai Debagoienean.** Eskiatzeko trajea salgai Debagoienean. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara:943 79 65 99 edo 639 48 60 49

**Golf pilotak salgai Debagoienean.** Golf pilotak salgai Debagoienean. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 943 79 65 99 edo 639 48 60 49

**Snow taula salgai.** 168 neurrikoa. Baita ere Burton fijazioak, 46 neurriko botak eta eskiak eramatekoa. Dena 250 eurotan. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:661 73 37 91

**Trabesiako eskiak.** Otsailaren 12an, Nordica markako eskiak galdu nituen Arrasateko Aldai kalean. Jaso dituenak dei dezala honako telefonora: 667 75 02 02

**GPSa.** Mendirako GPSa salgai. Egokia oinez, BTT, motor eta abarrerako. Magellan Triton 500. Ordenagailura konexioa, memoria txartela mapendako eta Euskal Herri, Pirinio, Europako mendi eta abarreko mapa zehatzekin. 150 euro. 656 71 41 59.

**Korrika egiteko makina trukean.** Korrika egiteko makina trukatuko nukebizikleta bategatik. Debagoienean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:638 33 03 01

**Pinarello bizikleta.** 54 neurrikoa. Aluminiozko koadroa. Karbonozko Look urkila. Ultegra-Dura Ace. Argazkiak bidaltzen ditut. 700 euro. 677 24 31 98 edo 943 78 29 19.

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Harremanetanjartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 626 28 68 13

**Tabike-armairua** salgai. Debagoienean.Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 670 08 12 16.

**Telebista.** 2 urte dituen 28 hazbeteko telebista salgai. 170 euro. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki honetara: 616 22 49 64.

### 802. EROSI

**Autorako** umeendako segurtasun aulkia behar dut. 9-36 kilo artekoa. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 650 57 36 07.

**Pastoralen liburuxkak erosten ditut.** Honako pastoralen liburuxkak erosiko ditut: *Atharratze Jauregian* (1997) eta *Santa Kruz* (1992). Prezioa adostuko dugu. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 656 72 68 70

**Lur Hiztegia.** Lur Hiztegi Entziklopedikoaren hamabigarren liburukia erosiko nuke. Prezioa adosteko. Harremanetan jartzedo deitu telefono zenbaki honetara: 94 460 74 44. Getxo.

### 803. EMAN

**Somierra.** 150x190ko somierra ematen da. Ohea, hankak eta somierra. Egoera oso onean. Emateko prest bazaude deitu 635 12 87 82 edo 943 25 05 79 telefono zenbakietara.

### 804. HARTU

**Trona.** Erabiltzen ez duzun umeendako trona badaukazu, gustura erosi edo hartuko nuke opari. Aldez aurretik eskerrik asko. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 635 75 54 53.

**Sofak botatzeko asmotan?** Zure sofa zaharrekin zer egin ez baldin badakizu... gustura hartuko ditugu guk! Deitu edo idatzi, eta joango gara gu euren bila. Mila esker! Deitu 688 62 39 55 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *haizearenfereka@hotmail.com* helbidera.

### 805. TRUKATU

**Korrika** egiteko makina trukatuko nuke bizikleta bategatik. Debagoienean. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 638 33 03 01.

### 806. GALDU

**Amantala galdu Oñatin.** Ikastolako amantal berdea galdu dut Bidebarrieta eta Errementari plaza inguruan, ostiralean, hilak 22. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu telefono zenbaki hauetara: 943 78 00 01 edo 943 78 08 09

**Autoko giltzak** galdu ditut Arrasaten. Honda autoarenak. Otsail hasieran. Aurkitu badituzu deitu mesedez, telefono zenbaki honetara: 653 01 76 67

**Eraztunak Bergaran.** Kilometrotako buelta egiten hiru eraztun galdu ditut. Norbaitek aurkituz gero mesedez deitu zenbaki honetara. Eskertuko da. Aurkitu badituzu deitu mesedez, telefono zenbaki honetara:670 26 46 35

**Eraztuneko harria** galdu nuen Zubiaurre eta Ozaeta artean (Bergara). Amatista da. Aurkitu badituzu deitu mesedez, telefono zenbaki honetara:637 77 45 57

**Kotxeko giltza galdu.** Abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu telefono zenbaki hauetara: 618 49 28 56 edo 943 79 58 98

**Sakelako telefonoa galdu.** Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena) sakelako telefonoa galdu nuen. Nokia beltza da. Sarituko da SIM txartela, behintzat, bueltatzea. Deitu 676 66 02 66 telefonora.

**Lapitzen zorro bat eta memoria bat galdu.** Astelehena 25ean Oñatiko Bidebarrieta Kalean 18:30ak inguruan arkatzak eramateko laukidun zorro ilun bat galdu nuen. Informazio garrantzitsua duen memoria bat ere bertan neukan. Norbaitek zorroa jaso edo aurkitu baldin badu, faborez dei dezala 653 71 79 81 telefono zenbakira. Eskertuko dut. Harremanetan jartzeko telefono zenbakiak: 653 71 79 81 edo 943 53 44 71.

**Nahastuta eramandako botak berreskuratu nahi nituzke.** Netto supermerkatuan, haurren jolasteko gunean, norbaitek, nahastuta, nire haurraren zapatak eraman zituen, itxuraz berdinak baina zenbaki ezberdinekoak. Gureak berreskuratu nahi genituzke, etxera eramandakoak 3 zenbaki handiagoak baitira. Harremanetan jartzeko hots egin 666 01 41 48 telefono zenbaki honetara.

**Ume baten bota Altsasun.** Ume txiki baten 20 zenbakidun bota berde bat galdu da Altsasun, berri-berria, mustu gabe. Opatu duenak eraman dezala Guaixeren bulegora edo hots egin dezala 647 37 02 41 telefono zenbakira harremanetan jartzeko.

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak aurkitu dira Arrasaten.** Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 943 79 48 02

**Bizikleta bat agertu da Oñatin.** Bizikleta beltza agertu zen abenduko zubian, Lazarraga kalean. Nahikoa berria da. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 626 17 73 55

**Galdutako giltzak.** Otsailaren 8an, giltza batzuk aurkitu nituen Bergarako poligonoko aparkalekuan. Galdu dituenak dei dezala 630 62 15 97 telefonora.

**Giltzak Ugarrixan aurkitu dira.** Bi giltzatako aurkitu dira: batek 3 giltza ditu eta besteak 12. Galdu dituenak dei dezala 689 70 44 17 zenbakira

**Giltzak aurkitu Arbizun.** Athletic-en giltzarria duen giltza jokoa topatu duteArbizuko Nafarroako Kutxako kutxazainean. Galdu dituenak bertatik pasatu dadila.

**Kartera topatu Altsasun.** Urtarrilaren 9an Altsasuko Foruen plazan karteratxo bat topatu genuen. Galdu duenak Guaixen galde dezake.

**Kaskoa aurkitu nuen Oñatin.** Kaskoa aurkitu nuen Oatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. 658 75 64 65

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil bila.** 39 urteko mutila naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke, ahal bada, gazteagoarekin. Interesa izanez gero, bidali SMS bat telefono honetara: 615 39 82 46.

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuak idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbide honetara.

**Sasimusika: ezohiko musika sorkuntzarako sare ireki bat.** Inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazio askoz gehiago *sasimusika.ning.com* webgunean.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

### 903. DEIAK

**Lekuko bila Bergaran.** Azaroaren 11n, 17:00etan, Bergarako Super Amara supermerkatuaren aparkalekuaren kanpoaldean bi pertsonaren arteko erasoan parte hartu zuen mutil gazte baten bila gabiltza, lekuko moduan epaiketara etortzeko. 657 79 79 35.

### 904. BESTELAKOAK

**Basauri-Gasteiz bidea kotxez konpartitzeko lagun bila nabil.** Lakua inguruan lan egiten dut, eta goizeko 07:15 inguruan irtengo nintzateke Basauritik Gasteizera. Arratsaldean Gasteiztik 17:00etarako irtengo nintzateke Basaurira. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 685 73 17 18. Ana.

**Gasteiztik Arrasatera.** Urtarrilean Gasteiz erdialdetik Arrasatera 22:00etan joateko auto bila nabil. Harremanetanjartzeko telefono zenbaki honetara deitu: 695-70 51 42

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten gara. Momentu honetan 3 pertsona joaten gara auto berean. Deitu 635-20 33 14 telefonora.

UR.ONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Administrazio Publikoa.** IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Unibertsitate titulazioa duten pertsonei Adrean prestakuntza osagarria eskaintzea da beka hauen helburua. Epea: ekainaren 17a.

**LANA**

**> Prebentzio teknikaria, bi turismo teknikari, enplegu eta garapeneko agentea.** Debagoieneko Mankomunitatea. Epea: ekainaren 16a.

**> Euskaltegiko irakaslea.** Bergarako Udala. Euskaltegiko irakasleen lan poltsa. Epea: ekainak 11.

**> Erdi mailako teknikariak.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoak 21 plaza betetzeko lan-poltsa osatzeko hautapen probetarako deialdia. Epea: ekainaren 16a.

**> Hezitzaileak.** Elgoibarko Izarra Kultura Elkartea. Hezitzaileak behar dira Elgoibarko ludoteka eta gaztelekurako. Epea: ekainaren 13a.

**EKINTZAK**

**> Gazte epaimahaikideak.** Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. Gazte epaimahaikideen hautaketa 2008ko irailean egingo den Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako, 17 eta 21 urte bitarteko gazteak. Epea: ekainaren 15a.

**LEHIAKETAK**

**> Graffitiak.** Topagunea; Euskara Elkarteen Federazioa. Euskal Herriko V. Graffiti Lehiaketa. *Spraikada*-n 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, bakarka edo taldeka. Epea: ekainaren 27a.

**> Kontaketa laburrak.** Eusko Jaurlaritza. Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza. 16 urtekoak. Epea: uztailaren 18a.

**> Argazkilaritza.** Irungo Argazkilaritza Elkartea. XXII: Irun Hiria Argazki Lehiaketa Herrikoia 2008. Epea: ekainaren 13a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 22



**> John Andueza, 'Simplemente' filmaz berbetan**
**21:15**

John Andueza arrasatearrak *Simplemente* dokumentala aurkeztu berri du. *Goiena magazinea*-n izango da gaur.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 23



**> Urtzi Urrutikoetxea, 'Ilunpean'-en**
**22:15**

Urtzi Urrutikoetxea kazetaria, idazlea eta itzultzailea da. Hura izango da Jon Berezibar kazetariaren asteko gonbidatua.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kulturzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 24




**> Antzuolako iturrien gaineko erreportajea**
**22:15**

*Goiena magazinea* saioaren ondoren, Antzuolako iturrien gaineko erreportajea izango da. Jose Mari Iturbek erakutsiko dizkigu.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 25



**> Kulturarekin hitzordua: 'Gipuzkoakultura'**
**22:15**

Tolosako artxiboa, *Arrasto Bluak* umeentzako antzerkia eta, amaitzeko, Gipuzkoako museoak antolatzeko plana, gaur hizpide.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoakultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo->Eskuokin.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 26



**> Ahaldun nagusia, 'Sakonduz' saioan**
**22:15**

Goierri Telebistak egindako *Sakonduz* saioan, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiarekin elkarrizketa ikusiko dugu.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoakultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Musika emanaldietarako sarrerak eta umeendako puzzle bat, zozketan**

Oraingo astean, bi motatako opariak ditu Arrasate Irratiak zozketan emateko: batetik, sarrerak 3 aretorako: zapatuan, otsailaren 27an, Sexty Sexers eta The Riff Truckers taldeek joko dute, 23:00etan. Eta, bestetik, Inauterietako puzzlea zozketatuko du, Ikastolen Elkarteak emandakoa. Parte hartzeko: 943 25 05 05.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**JENDARTEA** > EZTABAIDA

# Marrazki bizidun batzuek zezenketen aldekoen haserrea piztu dute

TVE kateak joan den domekan eman zuen marrazki bizidun batzuen kapitulu bat zezenketen aurkakoa dela salatu dute

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Marrazki bizidunen inguruan ere polemika sortu da. Zezenketen aldekoak eta aurkakoak gatazkan bete-betean dabiltza azkenaldian, eta oraingoan telesail batek piztu du ika-mika. Izan ere, Television Españolak aste bukaeran ematen dituen *Vipo, las aventuras del perro volador* izeneko marrazki bizidunak zezenketen aurkakoak dira, *www.burladero.com* webguneak salatu duenez, joan den domekan emititu zen kapitulua ikusi eta gero. Telesaila 3 eta 5 urte arteko umeendako da.

**"GU ZEZENAREKIN GAUDE"**

Betiere webgune horren arabera, kontakizunean umeei azaltzen zaie zezenketak zer diren, eta "toreatzailea barregarri" utzi eta "zezena gizaki balitz bezala" tratatzen da. Pertsonaiek honakoak esan izana ez dute gustuko izan *www.burladero.com*-ekoek: "Zezenketak ez dira bidezkoak, zezena borroka egitera behartzen dute berak nahi ala nahi ez. Berak ez dio toreatzaileari minik egin nahi, eurak asko dira eta Billy –zezen baketsua– bakarrik dago"."Ez ahaztu gu zezenarekin gaudela" gaineratu dute.

## telealbisteak

> AUDIENTZIA

### '¡Mira quién baila!-k jaisten segituko duela aurreikusten dute

Telecincoren apustu berriena, *¡Mira quién baila!*, jausi egin zen goreneko audientzia postutik bere bigarren emanaldian, joan den eguaztenean. Hiru puntu galdu zituen, eta, gainera, ez zuen lortu gaueko programa liderra izatea; postu hori TVEren lehenengo kateko *Comando actualidad* erreportaje saioak lortu zuen. Hirugarren Antena3 izan zen, *Los hombres de Paco* telesailaren zortzigarren denboraldiarekin.

Famatu dantzarien saioko irabazlea Belen Esteban izan zen, lehenengo astean denok iritzi arren taldeko eskasena zela dantza kontuetan. Baina amu horrek ere ez zuen lortu audientzia hobetzea. Adituek uste dute jaisten jarraituko duela saioak, kontuan hartuta, gainera, Esteban protagonista ez dagoela pozik bere partaidetzaren ondorioekin.

> AUDIENTZIA

### Cuatroren arratsaldeko saioak, 180.000 ikusle soilik

Cuatro kateak ez du arratsaldeetako programazioarekin asmatzen. *Password* lehiaketako aurreko aurkezle Lujan Arguellesek hura utzi egin zuen bera protagonista izango zen arratsaldeko saio bat aurkezteko, *Lo que diga la rubia*. Bada, anbizio eta helburu handiekin hasi zen proiektuak agudo egin du porrot, audientzia datu eskandalagarriekin –inoizko baxuenetarikoak arratsaldeko saio batendako–: pantaila-kuota %2 baino txikiagoa; hau da, 200.000 ikusle inguru. Azken emanaldietan, 180.000 ikusle inguru besterik ez. Ironikoki, saio horren erakarpen eskasa hasia zen eragiten Arguellesen aurreko saioan, *Password* lehiaketan, hura bukatutakoan hasten zena.

Oraingoz, Arguellesendako ez du beste proiekturik jakinarazi Cuatrok.

## zorion agurrak



ARRASATE
**Manex eta Irati Ayesa Ibaibarriaga**
Otsailaren 15ean, 3 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bana familia guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!



OÑATI
**Beñat Ugalde Urkiola**
Otsailaren 15ean, 12 urte. Zorionak, Beñat! Muxu handi bat etxeko danen partetik. Oso ondo pasatu urtebetetze eguna eta ondorengoak…



BERGARA
**Joxepa Aranburu**
Joxepa Aranburuk, 100 urte bete ditu otsailaren 16an. Egun zoriontsua pasatu zenuelakoan… muxu handi bat eta zorionak familiaren partetik!



OÑATI
**Alazne Irazabal Kortabarria**
Otsailaren 16an, 33 urte. Zorionak, guapa! Oso ondo pasatu eguna eta hartu denporia bizkotxo goxo-goxo bat gertaketako. Muxu potolo-potolo bat Gorka eta Jonen partetik.



ARRASATE
**Camila Bonilla Manrique**
Otsailaren 17an, urtebete. Nire pottola ederra, zure lehen urtebetetzean, ahalguztidunak urte asko eman diezazkizula, guretzat oparirik onena izan den zure zeruko argia izan dezagun.



BERGARA
**Garazi eta Libe Ugarte Leturia**
Otsailaren 18an, urtea betetzen dute. Zorionak, gure polittak, urtetxo bat! Mila patxo. Naroa, aitatxo eta amatxo.



ELGETA
**Auritz Zabala Sarasketa**
Otsailaren 19an, urtebete. Zorionak, potokon! Zure lehenego urtebetetzean erregalo asko hartu etxeko danen partetik. Auritz txapeldun. Muaks.



ARRASATE
**Nagore Sasiain**
Otsailaren 19an, 6 urte. Zorionak, etxeko printzesa. Ondo-ondo pasatu zure egunean. Mua mua pila-pila Oier, aita, ama, Aner, Jokin eta Enekoren partetik.



ARRASATE
**Maider Villar Iriarte**
Otsailaren 20an, 4 urte. Zorionak, pitxirrina. Muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Maribi Arregi**
Otsailaren 20an, 67 urte. Bueno amama, allau zatzu eguna! Badakigu danok elkarrekin egotia izango dala oparirik onena eta hortxe egongo gara zurekin. Zorionak eta muxu.



BERGARA
**Ariane Igartua Muxika**
Otsailaren 20an, 3 urte. Zorionak etxekoen partetik.



BERGARA
**Markel Becerril Anton**
Otsailaren 20an, urtebete. Zorionak, maitia. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat familiakoen partetik.



BERGARA
**Leire Manso**
Otsailaren 21ean, 10 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Familiaren partetik.



OÑATI
**Goretti Abaunz**
Otsailaren 21ean, 11 urte. Zorionak eta hamaika muxu aitatxo, amatxo, Unai eta Xabierren partetik!



OÑATI
**June Barrena Bikuña**
Otsailaren 21ean, urtetxo bat. Zorionak. pituki! Marrubizko patxo pila Markelen, Leireren eta Eiderren partetik.



OÑATI
**Aitziber Aramburu**
Otsailaren 22an, 31 urte. Gure pinguino gustokoenari, zorionak! Kuadrilakoen partetik. Disfrutatu zure eguna, aurtengoa berezia izango da eta… txokolatada ze ordutan? Muxuak!



ESKORIATZA
**Nagore Gruzeta**
Otsailaren 22an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako.



OÑATI
**Aimar eta Iban Arregi**
Otsailaren 22an, urtebetetzea. Ibanek, 35 urte eta Aimarrek, urtetxo bat. Zorionak bikote. Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta patxo handi-handi bana familixa danan, eta batez be amatxoren partetik!



ARRASATE
**Markel Aranburuzabala Kortabarria**
Otsailaren 22an, 2 urte. Zorionak, bihurritxo! Ondo pasatu eguna eta muxu handi handi bat Naiaren partetik.



ESKORIATZA
**Maren Bruña Gonzalez**
Otsailaren 23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat zure gurasoen partetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
**Lander eta Garazi Agirre Osinaga**
Otsailaren 23an, 5 urte. Zorionak, pottolos! Oso oso ondo pasa dezazuela zuen urtebetetze eguna. Muxutxuak bioi.



ARRASATE
**Xabier Aranzadi Moreno**
Otsailaren 23an, zorionak, primutxi! Muxu handi bat lehengusu guztien partetik! Ea noiz egiten duzun tokia zure agendan bazkari bat egiteko! Txokolatea zure kontu! Muxutxoak.



BERGARA
**Aitor De Benito**
Otsailaren 24an, 16 urte. Zorionak, *enano*! Eguna ondo-ondo pasatu eta 16 belarri tirakada Oñatiko familixan partetik. Patxo handi-handi bat!



OÑATI
**Leire Amundarain Agirre**
Otsailaren 24an, 9 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu pila bat zuretzat.



ARETXABALETA
**Aimar Diez**
Otsailaren 24an, 3 urte. Zorionak, Aimar! Zure etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Amaia Ribera**
Otsailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, printzesa. Muxu handi bat zure guraso eta anaia Anderren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzean eguna.



ARRASATE
**Elisabeth Moreno Echevarrieta**
Otsailaren 25ean urtebetetzea. Zorionak, amama! Oso ondo pasatu eguna eta ea primeran ospatzen dugun! Muxutxo pilo-pilo bat bereziki Uxue eta Aurkenen partetik; eta noski, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
**Maider Gomez Ibaibarriaga**
Otsailaren 25ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik. Ondo-ondo pasatu eguna.



ARETXABALETA
**Aner Zugasti**
Otsailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Kapitan Pirata. Ondo-ondo pasatu zure egunean eta patxo pila-pila Eneko, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Daniel Bonilla Manrique**
Otsailaren 26an, 3 urte. Guraso, aitonamona, lehengusu eta gainerako senideek hoberena opa dizugu zure hirugarren urtebetetzean. Zorionak! Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Aitor Anton Serrano**
Otsailaren 28an, 2 urte. Zorionak, prexioso! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat familiakoen partetik.



BERGARA
**Izar Barrutia Font**
Otsailaren 28an, 2 urte. Zorionak, printzesa. Zure bigarren urtebetetzean ondo pasatu. Muxu handi-handi bat amatxo, aitatxo eta bereziki Maitaneren partetik.



OÑATI
**Urko Gomez Barrena**
Otsailaren 28an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu pila bat etxeko danon partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak datorren hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
**GOIENKARIA: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



ESKELA

## Lorenzo Askasibar Heriz

Pilar Askasibar Arizmendi Ikastolako langilearen aita

2010eko otsailaren 20an hil zen, 82 urte zituela.

Arizmendi Ikastolak bat egiten du senideen saminarekin.



Arizmendi ikastola

Leintz bailara, 2010eko otsailaren 22an.

ESKER ONA

## Angel Milikua Yarza

Oñatin hil zen 2010eko otsailaren 15ean, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko otsailaren 22an.

## asteburuko albuma



**Herria abesten.** Arrasateko Portaloia taldeak antolatuta Herria abesten saio irekia egin zuten atzo AEDren lokalean. Kantatzea gustuko dutenei zuzendutako saioa izan zen; eta, atzokoan, 15 lagun inguru batu ziren. Maixa Lizarribar trikitilaria lagun zutela, hainbat kantu abestu zituzten; tartean, kantu oso ezagunak.



**Arrano Eguna Oñatin.** Arrano Elkarteak antolatuta, Oñatiko ezker abertzaleak Arrano Eguna ospatu zuen atzo goizean Arrano-Aitzen. Ospakizuna aprobetxatu zuten Euskal Herria Zutik ponentziaren azalpena egin eta datozen erronken berri emateko han bildutakoei. Oñatiko Bertso Eskolako kide batek bi bertso bota zituen ospakizuna hasteko; ondoren, preso, iheslari eta bidean eroritakoei omenaldia egin zieten aurreskua dantzatuz; eta, amaitzeko, eusko gudariak abestu zuten. Goiza borobiltzeko salda eta txorizoa jan zituzten, trikitilarien konpainian.

## jaiotakoak



**Haizea Gorosmendi Ugartemendia**
Donostia > 2,800 kilo. Otsailaren 17an. Gurasoak: Eider (Irun) eta Arkaitz (Oñati). Argazkian, Haizea, izeba Izaskunen besoetan



**Uxue Iñurritegi Inza**
Oñati > 3,280 kilo. Otsailaren 13an. Gurasoak: Agurtzane (Oñati) eta Josu (Oñati). Argazkian, Uxue jaioberria, lo.



**June Iñurritegi Inza**
Oñati > 3,490 kilo. Otsailaren 13an. Gurasoak: Agurtzane (Oñati) eta Josu (Oñati). Argazkian, Uxue jaioberria, lo.



**Irune Escudero Herrera**
Elorrio > 3,450 kilo. Otsailaren 13an. Gurasoak: Johanna (Elorrio) eta Marcelo ( Elorrio). Argazkian, Irene jaioberria, lo.



**Kemen Bilbao Alvarez**
Bergara > 4,370kilo. Otsailaren 13an. Gurasoak: Uzuri (Bergara) eta Eduardo (Zumarraga). Argazkian, Kemen jaioberria, lo.



**Manex Olabarria Arrizabalaga**
Bergara > 3,160 kilo. Otsailaren 16an. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Manex jaioberria, lo.



**Malen Pineda Martin**
Bergara > 3,020 kilo. Otsailaren 16an. Gurasoak: Amparo (Arrasate) eta Javi (Bergara). Argazkian, Malen jaioberria, lotan.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-02-22

**Urtzi Urrutikoetxea** > Kazetaria eta idazlea

# "Kaukason miresmen totala dago EHrekiko"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Berlindik, Ekialde Hurbiletik eta Latinoamerikatik jaso ditugu haren kronikak. Literaturan Bilboko panoramika literarioa eta Afrikatik bidaia-abentura utzi dizkigu, eta, bitartean, sekula ere ez dio utzi poesia idazteari. Boladatxo bat kanpoan eman eta gero atzera ere Bilbon da Urrutikoetxea.**

**Istanbuldik iritsi berria zaitugu.**

Sei hilabete egin ditut han bizi izaten. Hiri berezia da eta Ekialde Hurbiletik ibili izan naizenean bertan egon izan banaiz ere, gogoa neukan hobeto ezagutzeko: Kurdistan, Abkhazia eta Kaukaso aldean ibili naiz. Aita izango naiz hemendik gutxira, eta horregatik itzuli naiz.

**Semearekin itzuliko zinateke hara?**

Zergatik ez? Gaur egun distantziak asko murriztu dira, ez da lehen bezala. Istanbul, gainera, oso hiri europarra da; herrialde islamiarretatik europarrena ziurrenik. Ni oso gustura egon naiz han bizi izaten.

**Interes pertsonalak ala profesionalak orduan?**

Biak. Egia da moda informatiboak daudela, baina ez palestinarrena adina; kurduen gatazkak aldian-aldian hedabideen interesa pizten du.

**Kurduekin lotura estua duzu.**

Kurduak berez dira abegikor eta eskuzabal. Jende gutxi joaten da hara eta bisitariak beti harrera beroa izaten du. Istanbulgo bazarra ikusgarria da, baina edozein herri kurdutakoa baita ere. Gainera, lasai ibil zaitezke alfonbra saltzaileekin tea hartzen, negoziatzen, trankil, ezer erosteko beharrik gabe.

**Kaukasoko euskaldunik aurkitu duzu?**

Kaukason miresmen hutsa dago Euskal Herriarekiko. Euskaldunok eta herri kaukasiarrek zelanbaiteko lotura izan dezaketen ustea oso zabaldua dago, nahiz eta hemen jaramon handirik egiten ez zaion. Sinetsita daude ahaide garela. Egia dena da laguntasun bat badagoela, eta hori polita da.

**Hainbeste bidaiarekin, literatura albora lagata daukazu?**

Azken lana bidaia-kronika bat izan zen: *Afrika Express*. Kazetaritzaren eta literaturaren arteko hibridoa da hori, baina. Poemak idatzi izan ditut azken urte hauetan, makina bat, gainera; baina, oraindik ere, ez argitaratzeko moduan.

SOSLAIA

## 'Freelance' izatea

ETBn praktikaldia amaitu eta Berlinera joan zen Urrutikoetxea (Bilbo, 1976). Jakin-minak bultzatuta munduko hamaika txokotan ibili da berri-emaile, baina azkenaldian Ekialde Hurbilak eta Kaukaso aldeak piztu dute haren interesa. Letren munduarekin beti lotura estua izan du, Santutxuko bertso-eskolatik hasi eta bere azken liburura arte etengabe idatzi izan du. *Freelance,* lanbidean zein literaturan; oraingoz, dio etekin ona atera diola askatasun horri.



Urtzi Urrutikoetxea. JONE INUNTZIAGA

## ai, ene!



**Toallak ala elefantea?**

Bi toalla, elefante bat balira moduan bilduta. Kategoria handiko hoteletan, esaterako, ohikoa da horrelako artelanak aurkitzea. Imajinazio apur bat eta elementu gutxi batzuk aski dira gauza politak sortzeko. Erraza, ez; posible, bai.

http://www.yaves.es

## biharamuna

Iñigo Biain

### Peinetak, flamenkoak eta futbola

Ostiralean bi berrik harritu ninduten ohetik jaiki eta berehala. Batetik, Aznar Espainiako presidente ohiak bere aurkako oihuak botatzen zituzten gazteei zuzendu zien keinuaren ingurukoa; ez keinua bera, "intelektual" honen maila pertsonala zein politikoa ondo ezagutzen baitugu. Benetan harritu ninduena espainiar komunikabideetan keinu hura nola deitzen zuten izan zen: peineta. Hori ez al da ba flamenkoaren munduko emakumeek buruan jartzen duten traste hura? Eta ze kasualitatea, beste berriaren inguruan ere flamenko hitza behin eta berriz entzun nuen: izan ere, Athletic-ek Anderlecht talde "flamenkoaren" kontra jokatu zuen partidua da beste berri harrigarria. Flamenkoak gora behera, partidu hartan ikusi zirenak, beste behin ere, lotsagarriak iruditu zitzaizkidan, Aznarren peineta bezalaxe. Errua zeinena izan zen ez dakit, bertakoek belgikarrei egotzi baitie, belgikarrek bilbotarrei, eta bilbotarren presidenteak Ertzaintzari. Baina tamalez, futbolaren mundutik urrun ibiltzen naizen arren, azkenaldian berri lartxo entzuten ari naiz Bilboko taldeko jarraitzaile batzuen inguruan (gogoratu oraindik fresko dagoen Des-Kontrol taldearen aurkako erasoa). Ia kasualitatea besterik ez den.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +16 | +09 |

Haizearekin jarraituko dugu. Zerua guztiz estalita egon ez arren, noizean behin lainoak sartu eta zaparradak utziko dizkigute.

www.euskalmet.net

OGIZUN
koop. elk.
okindegia


Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA 943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13